

Jakin^{•eus}**242**
herria kultura hizkuntza urtarrila-otsaila
2021



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joanmari Larrarte

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi • Joxe Azurmendi • Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre • Xabier Eizagirre • Idurre Eskisabel
Patxi Juaristi • Joanmari Larrarte • Imanol Murua
Andoni Olariaga • Olatz Osa • Gexan Sors

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 Andoain
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAIALA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

HISTORIA BIZIA

11 Pilare Baraiazarrari elkarrizketa Miren Rubio Iturria

Pilare Baraiazarra irakasle eta euskaltzalearen bizitzan eta jardunean sakontzeko aukera eskaintzen digu elkarrizketak: haurtzaroa Meñakan; gaztetako militantzia Herri Gaztedin; batxilerra Ikaztegietan, 26 urterekin; irakasle Donostiako Santo Tomas Lizeoan eta Gros auzoko pisuko bizipenak; euskal filologia eta irakasletza ikasketak; 70etako Bilboko giro sozial, politiko eta kulturala: euskal kontzientziaren eta langile kontzientziaren sakontzea; materialgintza eta didaktikaren berrikuntzan egindako ekarpena; D ereduaren aldeko lana eta borroka Bizkaiko Ezker aldeko eskola publikoan, eta lan hori egiteagatik jasandako zigorra; euskarari eta hezkuntzari lotutako bestelako ekimenak...

GAIAK

71 Ihesa zilegi balitz: Xabier Lete eta trantsizioko poetikak

Alexander Gurrutxaga Muxika

Xabier Letek (1944-2010) trantsizio garaian (1975-1982) intelektual gisa izandako ibilbidea erreparatzen da, eta garai hartako bere poetika interpretatzeko ohar zenbait eskaini. Hortik abiatuz, gogoetarako bideak proposatzea da xede, trantsizioko giro soziopolitikoaren eta aro historiko hartako poesiaren arteko zubiak seinatuz. Leteren obra poetikoari dagokionez, *Urrats desbideratuak* (1981) liburuaren ekarpen estetiko eta etikoa azpimarratzen dira.

EGUNEN GURPILEAN

91 Kultura
Maialen Akizu Bidegain

97 Soziolinguistika
Jaime Altuna Ramirez

103 Glocalia
Iñigo Martinez Peña

KONTRAZALA Unai Iturriaga Zugaza-Artaza

Interview with Pilare Baraiazarra

The journalist Miren Rubio Iturria conducts a wide-ranging interview with the teacher and Basque activist Pilare Baraiazarra, in a new issue of the *Living History* series. The interview covers an extensive look back at Baraiazarra's life: her childhood in Meñaka; her involvement in the *Herri Gaztedi* youth movement; high school studies in Ikaztegieta, at the age of 26; teacher at Santo Tomas Lizeoa school in Donostia and her life in the apartment in the Gros district; studies in Basque Philology and teacher training; the social, political and cultural milieu in the 70s in Bilbao: her deepening awareness of the Basque conscience and that of the working class; her contribution to didactic renewal and updating of teaching material; her work and struggle in favour of model D teaching (i.e. teaching exclusively in the Basque language) in state schools on the Ezkerraldea (Left Bank) in Bizkaia, and what had to be endured to support this cause; her participation in numerous initiatives linked to the Basque language and education... **Miren Rubio Iturria**

If it were permitted to flee: Xabier Lete and the poetics of the transition

The language and literature teacher Alexander Gurrutxaga Muxika takes a look back at the intellectual trajectory of Xabier Lete (1944-2010) during the transition years (1975-1982), adding several notes to help interpret his poetics from that time. Means for reflection are proposed and reference is made to the bridges existing between the socio-political milieu of the transition period and the poetry of those years. In terms of Lete's poetry, the aesthetic and ethical contribution of his book *Urrats desbideratuak* (Diverted Steps, 1981) is highlighted. **Alexander Gurrutxaga Muxika**

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, sociolinguistic and globalization matters. This section draws on various specialists: Maialen Akizu Bidegain, Jaime Altuna Ramirez and Iñigo Martinez Peña. **Various authors**

Nor diren benetan komunitatearen oinarri, zutabe... pilare, galdera botatzen digu Unai Iturriagak zenbaki honen kontraletik. Oinarri, zutabe, pilare: Pilare Baraiazarra, bat. Agian, askori ez zaio ezagun egingo izena ere, baina Miren Rubiok egindako elkarrizketa luze eta ederrak erraldoi bat jartzen digu begien aurrean, borrokalari nekaezin bat, erresistentziaz harago, eraikitzen eman duena bizitza ia osoa, etengabean, ekin eta ekin. Zenbat lezio Meñakan euskaldun huts jaio eta oro har euskararen eta zehazkiago euskarazko hezkuntzaren alde emandako bizi ibilbidean. Ikastolak, sare publikoa, D ereduaren alde Bizkaiko Ezkerraldean egindako borroka eta jasotako zigorra, ikastolen publikazio prozesu gatazkatsua, hezkuntza materialaren sortzaile, pedagogia aurreratuak eta aurrerakoiak euskarari esku emanda, aisialdi euskalduna, gurasoen engaiamenduaren akuilu... Gaude gaur egungo eztabaidei ganoraz heltzeko eta ekiteko funtsa bada-goela Baraiazarraren hitzetan eta ekintzetan. Eta, bestalde, gune eta gertaera zehatzagoak ere bai, euskalgintzaren historia emakumeen ekarpenetik behingoz idazten hasten garenerako mugarri: Donostiako Gros auzoko andereño eta emakume ikasle gazteen pisua; ikastolen sarea, Casa del Café lantokiaren engaiamendua... Emakume belaunaldi euskaltzale bat ingurumari eta leku horietatik pasea da, izen eta abizen, sarri multzoan jasotzen badituzte ere jasotzen dituzten historia liburuek. Haien lana dago oraingo lorpenen oinarrian. Baina, agian, bidean, izenak eta gertatuak ezkutuan, jaso gabe geratu diren bezalatsu –edo hain zuzen horregatik–, lorpenena bai baina kontzientziaren transmisioa ez da zuzen iritsi eta sustraitu egungo euskararen errealtatera. Hor hari bat dago, ahopeka, garrantzirik ez balu bezala erdi ezkutuan doana. Bizitza bera eta euskararen bizitza sostengatzen duten emakumeak. Epika ez-epikoen heroi isilduak. Hor, bat, Pilare Baraiazarra.

Baraiazarraren garaikide Xabier Lete dugu zenbakiaren bigarren emaitza. Inon elkar topo egin ote zuten ez dakigu, baina biak dira herri honi etorkizun bat opa nahi izan dioten bi ekintzaile. Alexander Gurrutxagak, Leteren gainean osatu duen doktore tesia oinarri, musikari, poeta eta pentsalari oiartzuarrek trantsizio deitu garaian

–1975etik 1982ra– egindako ekarpena aztertzen du. Zehazki, Letteren *Urrats desbideratuak* poemategia, aro historiko jakin bateko bizipen pertsonala ez ezik, bizipen kolektibo gordinen isla da, Gurruixagaren iritziz.

Urtea berritzearekin batera, *Egunen gurpilean* saila aldaketekin dator. Itziar Ugarteri Maialen Akizuk hartu dio erreleboa, eta Alba Garmendiari Iñigo Martinez Peñak. Akizu kulturaz ariko zaigu eta Martinez Peña filosofiaz. Eskerrik asko Ugarteri eta Garmendiari, eskaini dizkiguten artikulu zinez pentsarazle eta argiengatik. Akizuri eta Martinez Peñari, berriz, ongi etorri. Gaurko mundua, euren begiradatik iragazi ondotik, pentsatzeko ariketa eskainiko digute, Jaime Altunak, beti fin, antropologia linguistikoaren betaurrekoekin egiten duen legez.

HISTORIA BIZIA

1 1 Pilare Baraiazarrari elkarrizketa
Miren Rubio Iturria

Pilare Baraiazarrari elkarrizketa

Miren Rubio Iturria

Kazetaria

Zer da euskaltzaletasuna Pilare Baraiazarrarentzat?

Oso gauza inportantea, euskara jakitea adinakoa. Euskaltzalea bazara, nondik edo handik, ekarpen onak egingo dizkiotzulako euskarari.

Eta zer da irakaslea izatea?

Ikasle bakoitzaren gaitasunaren arabera, bidea egiten laguntzea.

Barakaldo eta Ezkerraldea?

Lanbidean pozik handienak eman dizkidaten lekuak. Baita nekerik handienak ere. Baina izerdi haiek emaitza onak ematen zituztenez, poztasunak ere halakoak izan dira. Euskaltzale asko aurkitu ditut nik han. Askok ez zekiten euskaraz, baina euskararen benetako militanteak ziren.

Militantzia eta euskaltzaletasuna bat direlako Pilarerentzat?

Hizkuntza hegemonikoetan hori esatea gehiegikeria izango litzateke. Baina, gure kasuan, esango nuke oso lotuta daudela.

1976az geroztik Bilbon bizi arren, sorterrian jarraitzen du erroldatuta Pilare Baraiazarra Txertudik (Meñaka, 1938). Militantziagatik, dio: «Herri txikietatik kalera gatzela ikusten dut, eta kitto. Baina gure herria izaten jarraitzen du, eta hango arazoak gure arazoak ere badira». Txakolina, bonboiak, kafea eta Meñakako baserriko laranja zatiak ipini ditu mahaian. «Kiloak eta kiloak ekarri ditut nik Bilbora, lagunena eta bizilagunen artean banatzeko». Ematekoa baita Pilare.

Hamar neba-arrebako familian hazia, Uresandi baserriko senideen erretratuak ditu egongelako horman; zortzigarrena da bera. Irudi erlijiosoren bat du tartean, eta bertso idatziak koadro legez ipinita. Apalategiak liburuz, albumez, karpetez eta oroigarritz beteta. Ugaoko eskolako ikasle ohien argazkia dago apal horietako batean, egun berrogei urteak gaindituta dituzten Pilareren «umetxuenak». Beste aldean du erretiroa hartzerakoan Barakaldoko lankideek oparitutako ordenagailua. «Oso lagungarriak dira teknologia berriak. Ez naiz batere kontrakoa, alderantziz. Erabilgarriak izan zaizkit».

Gerraondoko emakume abertzaleen bultzadari esker egin zuen salto Meñakatik Gipuzkoara, hogeitau urteak luze pasata zituela. Batxilergo ikasketak eta lana uztartu beharrez, Donostiako Santo Tomas Lizeoan hasi zuen hezkuntzako ibilbidea, Karmele Esnal bidelagun. Eta euskal filologia eta irakasletza ikasteko gogoak eramango zuen gero Bilbora, Gotzon Garatek proposatuta. Geroztik, euskarari eta hezkuntzari emana jardun du Pilare Baraiazarrak; euskarak irakaskuntza metodologiarik berritzaileenak behar dituela sinistuta, eta metodologiarik berritzaileenek euskara bidelagun egokiena dutela konbentziturata.

Bilboko itsasadarreko ezker aldean frogatu du hori, ahalak eta leherrak eginda. Lanaren eta militantziaren muga oso

lausoa baita Pilarerentzat. «Bestela ezin da. Nik egiten ez dudana, zuk egiten ez duzuna, ez duelako beste inork egingo». Horri esker da egun Ezkerraldea apur bat euskaldunagoa: Pilarek bertako eragileekin D ereduaren alde egindako lanagatik.

Meñaka izugarri maite duzu, baina haurdanik garbi zenuen baserritik alde egingo zenuela.

Oso umezaro ona izan dut Meñakan. Eskolako maistra frankista zen, baina hainbeste ginenez, hori ere ez genuen hainbeste sufritu. Nik benetako kolpea hamalau urterekin hartu nuen, eskola garaia amaitu eta zer egin ez nekiela geratu nintzenean. Ikasteko gogoia nuen, baserritik irten nahi nuen, baina Bilbora etorri behar zen batxilerra egiteko, eta ez nuen nahi. Ni baino zaharragoa den neba etorri zen Bilbora, eta galduta ibili zen gizajoa, ezin kokatu. Nik ez nuen berdina pasa nahi.

Horregatik ez zenuen berehalakoan Meñaka utzi?

Inposiblea zen. Amak nahi zuen nik ikastea, aitik ere bai. Ahalginak egin zituzten, baina Mungian ere ez zegoen batxilerririk, eta hor geratu nintzen, hamalau urtera arte ikasitakoarekin.

Ama hasi zitzaidan zirikatzen, zer edo zer egin behar nuela esaten. Bera, ezkondu aurretik, oso jostun ospetsua izan zen; gero bihurtu zen baserritar, baserri handi batera ezkondata. Eta oso konplize bihurtu zitzaidan. Esan zidan tituluren bat atera behar nuela lehenengo, eta korrespondentziaz apuntatu nintzen frantsesa eta *corte y confección* ikastera. Larrauriko mojetara ere joaten nintzen josten ikastera –etxetik alde egiteko aitzakia zen–, baina han ez nuen askorik ikasi. Amak bai erakutsi zidala josten!

Baserriko lanak ere egin beharko zenituen.

Ba ez, begira! Amak ez zuen halakorik nahi. Beti esaten zigen: «Zuek ez ikasi baserriko konturik, ze ikasiz gero egin egingo dituzue, eta, behin eginda, galduta zaudete. Behiak jetzi? Ezta pentsatu ere!». Gure aita tratantea zen, eta falta

zenean amak egin behar izaten zituen lan horiek. Horregatik ez gintuen nahi horretara bideratu.

Gainera, ordurako moja karmeldarren fundazio bat etorria zen Meñakabarrena auzora. Eskola txiki bat sortu zuten,

«Nik oso garbi nuen ez nintzela ez ezkonduko, ezta baserrian geratuko ere. Lagunak ikusten nituen ni baino gazteagoak ezkondata soroan lanean batean, bestean ez dakit zertan... beti gizonaren menpean»

eta hara gerturatzen hasi ziren *gerrako emakumeak*. Lehenengo Maria Luisa Egiguren bilbotarra etorri zen. Bere lagunak ekartzen zituen asteburuetan: Tere Umaran, Maria Jesus Arregi, Mari Iturriaga, Rosario Ajuriagerra, Txaro Mujika... Guk ez genekien emakume abertzaleak zirenik, gerora jakin genuen hori. Ze Bilboko Correos kalean leku bat omen zegoen horiek elkartzeko, eta abertzaletasuna lantzeko kon-

promisoak hartu zituzten: aukerarik bazuten, herrietara joaten ziren baserrietako neskek abertzale eta euskaltzale bihurtzeko. Horrela iritsi ziren Meñakara. Zorte ikaragarria izan nuen.

Neska baserritarrak euskaltzale bihurtzeko? Nola?

Tailerrak ematen zizkiguten asteburuetan: josketa, kantua, sukaldaritza, txistua, antzerkia... Ni neu titiritero moduan ibilitakoa naiz herriz herri! Askotan mozkortiarena egiten, edo saildu batena ere inoiz. Baserritarrei gustatzeko moduko obrak egiten genituen, gehienak euskaraz –eta hori emakume horien artean Ajuriagerrak bakarrik zekiela euskaraz–. Tere-rekin ikasten genuen nola antzeztu. Gerra aurretik Bilboko antzerki talderen batean ibilitakoa zen bera, eta zeinuak eta testuak erakusten zizkigun. Prestatu, eta hurrengo igandean joaten ginen Bakiora, Mungiara, Arrietara, Fruizera... Trumilka etortzen ziren baserritarrak. Morgan, autobus garaje batean antzeztu genuen, lekurik ez zegoelako. Diru mordo bat egin genuen.

Zuentzat zen diru hori?

Ez, mojak ez kexatzeko zen. Bi oilorekin etorritakoak ziren, eta bizitzeko ematen zitzaien dirua. Horrela, diru horren truke, mojen babespean egiten zituzten ekintzak *señora* aberztzaleek. Mojek lekua uzten zieten trukean. Guri meriendaren bat edo irtenalditxo bat ordaintzen ziguten, ez besterik.

Argazki zuri-beltza hartu du Pilarek apalategitik. «Begera, begira...». Emakume gazte talde baten erdialdean ageri da bera, esku bat gerrian gakotuta, bestea kikarari helduta. Garaiko soineko eta jertsea soinean, ilea motz, burua apur bat makurtuta du irribarre jostariarekin. Antzerki taldearen merienda batean dago. Albo batean dago Maria Luisa Egi-guren; betaurrekoekin, dotore jantzita, kikara eskuan. «Hau da Maria Luisa, nire ongilea».

Artean jostun ikasketak bukatu berriak zituen Pilarek, eta baserritik nola atera pentsatzen ari zen. «Nik oso garbi nuen ez nintzela ez ezkonduko, ezta baserrian geratuko ere. Lagunak ikusten nituen ni baino gazteagoak ezkonduka soroan lanean batean, bestean ez dakit zertan... eta beti gizonaren menpean. Oraindino ere bai». Maria Luisaren bultzada horregatik egin zitzaion hain lagungarri, baserria uzteko bidea erakutsi ziolako.

Dena den, zuk abertzale izateko ez zenuen aparteko bultzadarik behar, etxetik zetorkizulako, ezta?

Dudarik gabe. Pentsa, eskolan euskaraz egiteagatik dirua eramane behar izaten genuen, zigor moduan. Ba gurasoek isil-isilik ematen zidaten dirua, ezer esan gabe; saritu bezala egiten gintuzten.

Ze aita bera hiltzeko zorian egon zen abertzale izateagatik. Zinegotzia zelako eramane zuten. Hala ere, begira irakaspena: gure aita kartzelan zela, gerrako unerene batean, *fatxek* ere beldurra izan zuten, dirudienez, eta hasi ziren gordetze-ko etxe seguruen bila. Gure baserriko errentadoreak ahizpa

moja frankista batzuk zituen, eta gure amari eskatu zion ea etxean ezkutatuko zituen; aita artean kartzelan zegoela. Aititik eta amak baietz esan zuten.

Egun batean, mojetako batek ama negarrez entzun zuen, aita garbituko zutela jakin zuelako, eta kontatu egin zion mojarri entzundakoa. Mojak ez zion ezer ere esan, baina moja horiek edo euren ordenak bide zuzena zeukaten Francorekin, eta, halako batean, gure amak ikusi omen zuen eskale moduko bat baserrira gerturatzen, zikin-zikin: gure aita zen. Amak esaten zuen moja horien kontua izango zela. Eta hori da irakaspena: pertsonak zintzoa izan behar duela beti, ondorioak azkenean onak izango direlako.

Hori gertatu zenean zu jaio gabe zeunden? Ordurako zure amak zenbat seme-alaba zituen?

Gero jaio nintzen, ni zortzigarrena naiz. Amak ere sufritutakoa... Gure baserria Sollube azpian dago, frontea egon zen lekuaren azpian, eta hartu egin zuten soldaduek. Ama Arrietara joan zen, gurasoenera, eta aititari besoan tiroa eman ziotenean, Larrauriko zubipean bizitzen egon zen ama, zazpi seme-alabekin. Azkenean, baserrira itzuli zen katuen moduan umeak hartuta, eta baserria dena zikina, ostuta... aurkitu zuen. Hala ere, etxea apur bat garbitu eta ipini zuen. Gero etorri ziren moja horiek etxean gordetzera.

Etxean abertzaleak, eta eskolan, aldiz, frankistak. Talka izango zen zuretzat?

Sei urterekin hasi nintzen eskolan; ez nekien gazteleraz, eta oso gogorra izan zen lehen urtea. Gero, ni baino ikasle zaharagoekin ikasten genuenez, ondo moldatu nintzen. Bage nekien maistra frankista zela eta berarekin euskaraz egitea alferrik zela, eta intentatu ere ez genuen egiten.

Maistrarekin izan zenuen jarrera ez zenuen gero apaizekin izango. Meñakan meza guztiek euskaldunak izan behar zutela aldarrikatzen hasi zinen zu aski gaztedanik.

Ene, Donostiara joan aurretik izango zen hori! [Barrezka gogoratzen du pasarte]. Mojak erdaldunak ziren, gutxi batzuk izan ezik, eta nagusiak erdaltzaleak ziren. Horregatik, euskara erreibindikatzeko ez zuen apaiza etortzen bazen, herriarentzako meza ere erdaraz izaten zen, mojen kapera hartan. Guk protesta egiten genuen: meza mojentzat egin zezatela erdaraz, ateak itxita, baina herriarentzat zabaltzen bazuten, horrek ere euskaraz izan behar zuela. Euskarazko meza entzutera etortzen ginela eta ez burlarik egiteko. Oso *protestonak* ginen. Amak esaten zidan: «Baina Pilare, beti zuk esan behar duzu hori?!».

Elizarekin harreman estua izan duzu eta duzu zuk, hala eta guztiz ere.

Bai, euskararen moduan, etxetik edan dudalako. Niretzat bizitzeko modu bat izan da, eta ez da traba izan nahi nuen egiteko. Hala ere, garbi nuen moja ez nintzela izango, ze hori ere probatu nuen.

Nola probatu zenuela?

Baserritik alde egiteko, ezkondu edo moja izatea besterik ez genuen, eta nik ahizpa bat neukanez *Esclavas de Sagrado Corazón*-en, kuku bat egin nuen. Konpromiso gabe bezala joan nintzen moja-etxera, baina ez zitzaidan giroa batere gustatu: klausurakoak ziren orduan, oso erdaltzaleak eta hierarkikoak. Gero erabat aldatu ziren, gizarteko beharri-zanetara zabaldu eta aurrerazaleagoak bihurtu ziren. Baina, orduan, egun bat nahikoa izan nuen giro hori niretzako ez zela ikusteko. Ze mojatxo bat berandu etorri zen oilategitik, eta gosaltzera berandu zetorrenari zigorra ezartzen zitzaion: barkamena eskatu behar izaten zuen belauniko, musu eman hango *señorari*, eta, platera hartuta, limosna moduan eskatzen hasi zen. Alboko lagunak azaldu zidan gertatutakoa, eta esan nion: emakume hori aldarean jarri beharko lukete, oilategian lanean egon delako, ez hango *señora* hori bezala. Eguerdirako erabaki nuen ez nintzela geratuko.

Elizari lotutako Herri Gaztedin, aldiz, gustura aritu zinen.

26-28 urte izango nituen orduan, eta bizi-bizi zegoen Herri Gaztedi. Fedetik zetorren, Elizaren adar moduko bat zen, eta euskara zen hango ardatza. Guretzat euskararen alde militatzeko modua zen, jende fededun eta idealistari ematen zitzaion irtenbide moduko bat. Dantzatu, txistua jo, beste taldeetako gazteekin elkartu, biltzarrak egin... Hori zen egiten genuena. Dena baimenik gabe, noski. Esaterako, behin, Bilboko Txinparta taldekoekin elkartzekoak ginen Mungian, baina ez ziren iritsi, ihes egin behar izan zutelako erreka behera. Ahizpa eta biok, etxera itzuli beharrean, trikitiarekin kaleetan ibili ginen. Ze egurra eman ziguten aguazilek...

Militantzia horrek bultzatuta erabaki zenuen baserritik alde egitea?

Maria Luisa izan zen benetako bultzada. Hark beti esaten zidan: «Pilare, zuk balio duzu, segi». Hori niretzako izan zen...

Nik eskolan ez nituen ez notak ez ezer jasotzen, ez nekien balio nuen edo ez, eta Maria Luisaren bultzada oso inportantea zen.

«Ilusio handiarekin
bizi genuen bigarren
kontzilioa, euskararen
alde borrokatzea
bazegoela ikusten
genuelako, eta langile
borroka ere bazegoelako.
Gizartearekin batera
ari ginen»

Berak ere komentatu zigun bazegoela Radio Popularren *Euskal ordua* izeneko programa bat, Xabier Peñak aurkeztu zuena. Aitak irratia erosia zuen bertsoak entzuteko, bertsozale amorratua baitzen, eta irradi harekin entzuten genuen guk *Euskal ordua*. Horrek be-

rotzen gintuen... Lehen ere salto egiteko bageunden, ba horrekin, pentsa! Irratira eskutitzak idazten hasi ginen, eta, egun batean, sorozan ginela, auto bat agertu zen. Xabier Peña zen, bisitan etorrita. *Euskaldunak* liburua ekarri zigun oparitan. Hura izan zen hura oparia!

Harremana egin genuen, eta behin komentatu zidaten, berak eta Maria Luisak-eta, bazegoela talde bat Ikaztegi-tan *comunidades de base* deitzen zitzaiona, jende euskaldun eta ekintzailearentzat. Aita Agirretzek sortua zen Ikaztegi-takoa, eta ezkondu ez eta moja ere izan nahi ez genuenon-tzako modukoa zen. Horrela egin nuen salto Gipuzkoara, talde horretara. Orduan hasi nintzen batxilerra ikasten, 26 bat urte nituela.

PILARE BIHURTU ZENEKOA

Meñakan *Pilartxu* zen gertukoenentzat, bere sortze izena Maria Pilar zelako. Ikaztegietan, ordea, beste Maria Pilar batekin gertatu, eta: «‘Pilare izena gustatzen zaizu?’, galdetu zidaten, eta nik baietz. Orduetik, paper ofizialetan eta guzti naiz Pilare». Meñakatik Gipuzkoara joatearen neurria irudikatzen du bere izen aldaketak. Maria Pilar izateari utzi, eta Pilare bihurtu zelako han.

Zer zen Ikaztegietan topatu zenuena?

Baserritik joanda, niretzako *modernismo* moduko bat izan zen. Bide guztiak zabalik ikusten nituen nik han. Hango neskak denak ziren euskaldunak, eta hori nahi nuen nik. Niretzako politika egiten ari nintzen, ez politikaritzat nuelako nire burua, ez. Euskararen zale amorratua nintzelako.

Bigarren kontzilioaren sasoian, Eliza eztabaida betean zegoenean iritsi zinen zu Ikaztegietara.

Ilusio handiarekin bizi genuen aldaketa hori, euskararen alde borrokatzea bazegoela ikusten genuelako, eta langile borroka ere bazegoelako. Gizartearekin batera ari ginen. Gure artean ere ez zegoen ezer ere debekatuta, eta geure kasa

bizi ginen, nahi genuena ikasten, nahi genuen hitzaldietara joaten... Batxilergoko lehenengo azterketak hantxe prestatu nituen. Lan ere egiten nuen, noski, beti oso argi izan dudalako ez niola inori ezer ere eskatuko, ezta etxean ere. Etxeak garbitzen ibili nintzen Tolosan, gero liburu saltzaile. *Enciclopedia Retana* egon zen orduan modan, eta horiek saltzen nituen, baina ez zuen bizitzeko adina ematen... Horregatik, Leireko monasteriora lanera joateko aukera izan nuenean, han egin nituen bi uda eta Aste Santuak. Euskaldunen artean modan zegoen Leire –orain dena da erdalduna–, eta Jose Maria Lojendio euskaltzainak zerbitzari euskaldunak nahi zituen. *Pintxe* ibili nintzen ni, beste sei bat lagunekin. Irabazten genuen erdia hango fraideentzat zen, beste erdia guretzat.

Lan kontuengatik utzi zenuen Ikaztegieta?

Ikasturte bat egin nuen han, eta Donostiara joan nintzen. Ategorrietan *Neriencea* mutilentzako erresidentzia zabaldu zuten Jose Maria Aranzadik-eta, Lekaroztik zetozen ikasleentzako. Aranzadi-eta dirudunak ziren, erdaldunak baina euskaltzaleak, eta hango zerbitzariak euskaldunak izatea nahi zuten. Niri komentatu zidaten han aritzeko, eta beste kide batekin, Zumaiako Maria Pilarrekin, aritu nintzen bi urtez; bera sukaldari eta ni administrazioko diru kontuetan. Hortik pasa ziren Pedro Miguel Etxenike, Eibarko Orbea familiakoak...

Gure erresidentziatik gertu ere neskontzako beste bat zegoen, andereñoentzako. Oso ezaguna zen, andereño horiek ez zutelako bakarrik prestakuntza akademikoa jasotzen, baita bestelako hitzaldiak eta formakuntza ere. Oso bizkorrak izan ziren horretan Karmele Esnal-eta. Baserritik jende asko etorri zelako hirira ikastera, borondate ikaragarriarekin, ni bezala, baina prestakuntza behar zuten, arlo guztietan. Eta horretarako antolatzen zituzten hitzaldiak erresidentzian. Oteiza eta euskal kulturako jende ezagun asko pasa zen handik, eta eurak ere pozik neska gazteekin!

Zu ere joaten zinen hitzaldi horietara?

Ahal nuenean, baina aukera handirik ere ez nuen, alboko erresidentzian nengoelako lanean, eta batxilerra ikasten ari nintzelako, gauetan. Hamabostean behin ere Meñakara joaten nintzen amari laguntzera.

Erresidentzian bertan bizi zinen?

Bai, guretzako gela bat genuen lankideak eta biok. Baina bi urte han aritu, eta Groseko pisu famatura joan nintzen.

Famatura?

Oso ospetsua zen, euskalgune bat zelako. Jende guztiak zekien euskaldunen eta andereñoen pisu bat zegoela Grosen. Bisitan etortzen ziren, batzuk ezagunak: Benito Lertxundi, Gorka Knörr... eta beste hainbeste. Mari Karmen Garmendia ere pisu horretan bizitakoa da.

Denak ginen neskak eta euskaldunak, lanean eta ikasten aritzen ginenak. Batzuk karrera egiten, beste batzuk batxilerra, ni bezala. Eta, gero, han eta hemen lanean ia denak: *Casa del Café*-n, Euskaltzaindian, ikastoletako udalekuetan, bulegari...

Fenomeno hori oso ohikoa zen garai horretan. Ikasi nahi, eta baserritik hirira gerturatzeko nolabaiteko pisu moldeak ziren. Han ez zen sartuko euskararik ez zekienik! Oso kontsekuenteak ginen, euskaraz bizi nahi genuen. Hura bai izan zela eskola! Euskalgintzaz eta beste blai egin nintzen ni han. Han ere ikasi nuen nik gipuzkeraz.

Ez zenuen beste aukerarik izango!

«Pilare, zer esaten den?», esaten zidaten. Askorentzat erdarearen antzekoa zen orduan bizkaiera, arrotza. Mendebaldekoa, batez ere. Eibarrekkoa-eta ezagunagoa zitzaien, baina nirea... Meñakarrez egiten nuen, oraindik landugabea, eta ez zidaten tutik ere ulertzen.

Halako batean, pisukide batek: «Pilarek zer esaten din, *ventana* gora eta *ventana* behera!». Niri haserrealdiren bat

etorri, eta «ba zuek *costilla* esaten duzue, eta guk saihesta. Zuek pareta, guk horma!». Hasi nintzen lexikoari lotutakoak bat bestearen atzetik esaten... Ene! [Algarari lotu zaio Pilare]. Horregatik, hika gipuzkeraz ikasi nuen pisan. Dena den, gipuzkeraz ikasteko beharra ere sentitu nuen, euskara irakasten hasi nintzelako.

Euskara klaseak ematen hasi zinen?

Donostiako Mariaren Bihotza ikastetxean hasi nintzen euskarazko klaseak ematen; hamasei urtekoei, eskolaz kanpoko klaseak. Batxilerra bukatu berria nuen. Orduan sentitu nuen ikasteko beharra, nire burua prestatu behar nuelako, eta horrek asko lagundu zidan gipuzkeraz ikasteko. Euskara batuaren aldeko erabakiak orduantxe hartu ziren, baina oraindik gipuzkera erabiltzen zen.

Lehenengo klaseak gogorrak egin zitzaizkidan, eta pisuki-deek lagundu zidaten liburuak bilatzen, prestatzeko. Zortea eduki dut, asko lagundu didate.

Donostiako Santo Tomas Lizeoan ere hasi zinen lanean?

Karmele Esnal askotan etortzen zen gurera. Alboan bizi zen, eta beti zegoen gurean; gustatzen zitzaion. Santo Tomas-ko irakaslea zen bera –ikastolen hastapenetako funtsezko pertsona da–, eta berak animatuta hasi ginen pisuko lagun batzuk irakasle lanetan. Ohiko andereñoen hutsuneak beteitzeko ordezkoko figura sortu zuten Santo Tomasen, eta lan horietan hasi nintzen ni. Askotan pentsatu dut niretzat propio sortu zuela Karmelek lanpostu figura hori, ni joan aurretik ez zegoelako halakorik.

Karmele Esnal pertsona gakoa da zuretzat.

Bai. Laguna izan da, familiakoa modukoa. Berak esan zidana egin nuen nik. «Pilare, joan hadi Martuteneko ikastolara, pixka bat ikustera». Miren Tolaretxipi irakaslearekin egin nituen hamabost egun han, eta, gero, urtebete egon behar izan nuen Santo Tomasen praktikak egiten, kobratu gabe. Baina,

Mariaren Bihotzeko euskara klaseekin ematen zidan pisua pagatzeko. Justu baina ondo bizi nintzen.

1972a zen, 34 urte betetzear zen Pilare.

Irakasle izatearen poderioz ikasi zenuen irakasle izaten.

Beharko. Andereño guztien ordezkapenak egitera pasa nintzen segidan. Maila guztietako gauzak ikasi nituen, eta andereño onenen geletan egoteko aukera izan nuen. Maria Jesus Zabaleta, Eulalia Aranburu, Edurne Martin, Kontxi Amenabar, Kontxi Sanadrian, Mari Kruz Okiñena, Lurdes Mujika, Koro Munduate, Tere Juaristi, Maritxu Arregi, Mari Karmen Garmendia... eta beste hainbeste. Aparteko trebetasuna zuten.

Hala ere, oso gogorra egin zitzaidan, ordezkoa zarenean ikasleek ez zaituztelako euren irakasle bezala hartzen, eta tranpak egiten saiatzen dira. Baina, beno, hori ere ikasten da. Andereño asko egon dira horrela.

«Donostiako Mariaren Bihotza ikastetxean hasi nintzen euskarazko klaseak ematen; hamasei urtekoei, eskolaz kanpoko klaseak. Batxilerra bukatu berria nuen»

Euskara batua 1968an onartu arren, gipuzkera erabiltzen zela aipatu duzu arestian. Santo Tomasen ere bai?

Esango nuke ikastoletan euskara batua ofizial 1970ean egin zela, inguru horretan. Ze hasieran gipuzkeraz egiten genuen lan. Baina bilera handi bat egin zen Gipuzkoako ikastoletako irakasleekin, eta euskara batuaren alde egin zen bertan. Horretarako, euskara batua ikasiko genuela erabaki genuen, eta larunbatetan aparteko klaseak ematen zizkiguten Xalbador Garmendiak eta Juan Antonio Letamendiak.

Santo Tomasko irakasle guztiak bat etorri ziren erabakia-rekin?

Batxilerra ematen zeuden zenbait irakaslek boikota egin zioten euskara batuari. Anbrosio Zatarainek eta Gotzon Egañak, esaterako. Horietako batzuk Euskaltzaindian ibiltzen zirenetakoak ziren. Karmele Esnal ere ibiltzen zen Euskaltzaindiko bileretan, eta han esandakoak komentatzen zizkigun gero guri; denean geunden. Beste Euskaltzaindi txiki bat ginen gu. Kontra zeudenak ospetsuak ziren guretzat, eta askotan komentatzen genituen horien kontrako kontuak.

Zuk zeuk euskara batuaren alde egin zenuen hasiera-hasieratik?

Nik neuk egindako ibilbideagatik, hain argi nuen! Adibide moduan, esaterako: Jesus Gaztañaga zen euskara batuaren kontrako militanteetako bat, eta, egun batean, auto-stopean hartu ninduen. Dirudenez, euskara batuan hitz egin nion, eta hasi zitzaidan goia jo eta behea jo. Orduan esan nion: «Zuk ez dakizu zergatik behar den euskara batua, bada nire ibilbideagatik. Lehenengo eta behin, erdara jakin gabe, erdal eskolan egon naiz ni hamalau urtera arte. Gero apur bat hirira, jendearengana eta liburuengana gerturatzen hasi, eta esku hutsik aurkitu naiz, bizkaieraz bakarrik nekielako, eta, gainera, bakarrik txoko bateko bizkaiera. Neuk bakarrik dakit zenbat lan eman didan alfabetatzeak. Gero, ikastolara joan behar lanera, eta euskaraz egiteko beldurra nuen. Eta beste arrazoi bat emango dizut: nola egingo ditugu Arabako, Bizkaiko edo Nafarroako ikastoletan erabiltzeko materialak, gipuzkeraz? Bizkaitarrok eta besteak kanpoan utzita? Euskara batuarena niretzat ibilbide naturala izan da. Niretik hitz egiten dizut, hau ez da ez politika ez ezer». Hori esan nion. Bera isilik, eta non bizi nintzen galdetu eta Grosen erantzun nionean, ea andereño pisu hartakoa ote nintzen galdetu zidan. Grosen utzi ninduen. Aitortu, ez zuen aitortuko, baina nik uste dut, nolabait, euskara batuaren aldeko arrazoi bat ikusi zuela. Hori komentatu nien pisukoei, baina esan zidaten:

«Zuk hori konbentzitu? Horiek harria baino gogorragoak dira». Halakoa zen giroa.

Euskara batuari hizkuntzaz gaindikoak tartekatzen ziztaizkiolako.

Hori zen txarrena. Euskara batuaren aldekoak ezkertiarrek eta borrokalariak ginen. Eurak ez, eta, gainera, normalean erdaraz bizi ziren. Gu ez, guk euskaraz bizi eta lan egin nahi genuen, eta oztopoak bizi genituelako geunden euskara batuaren alde. Pena ematen zidan herri moduan egoerak, ton-takeriatan horrela ibiltzeak. Ez zen momentua.

Egia da Santo Tomas Lizeoan kontrakotasunek jarraitu zutela, baina liburuak euskara batuan egiten hasi ginenez, eta Mikel Zalbide edo Letamendia bezalako irakasle prestigiotsuak alde zeudenez, babestuago sentitu ginen, eta beldurrik gabe aldarrikatzen hasi ginen. Pixkanaka aldatu ziren kontuak.

Kontrakotasunik izan duzu horregatik?

Niri ez didate inoiz aurpegira ezer bota, edo ez naiz gogoratzen [barrezka dio]. Kontrakoa: bizkaieraz nekienez, gero «bizkaieraz nola esaten duzu hori?» galdetzen zidaten. Luis Mari Mujikak, adibidez. Donostiako Joxe Migel Barandiaran Lizeoan egiten zuen lan, eta autobusean gurekin etortzen zen. Bidean galderak egiten zizkidan, hiztegian sartzeko. Pentsa nolakoa zen giroa: beldurrez erantzuten nion nik, ea gaizki irudituko ote zitzaion.

Eskola materialak aipatu dituzula. Zu zeu ibili zinen material horiek sortzen sasoi hartan, ezta?

Ikastolatik irten, eta arratsalde batzuetan Mari Sol Eizmendi pisukidearekin joaten nintzen materiala prestatzera, Gordailura. Jazinto Setienek egiten zuen Gordailuko buru, eta ikastolen federazioarentzat material didaktikoa sortzeko taldean aritzen zen. «Gaur Gordailu tokatzen da», esaten genuen, eta hara joaten ginen, ahal genuenean. Asteburuetan ikasten egoten nintzen, eta, ikastolako eta euskarako klaseekin,

ez neukan hainbeste denbora ere horri eskaintzeko. A, eta beste hau ere bai egiten ibili ginen!

Kolpean altxa da aulkitik Pilare. Apalategiak arakatzen hasi, eta fruta, kafe, bonboi eta txakolin kopa biren artean ipini du azal gogorreko liburu dotorea: Juan Antonio Letamendiaren *Euskara* liburua. 1975ean argitaratu zuen Letamendiak, Pilarerekin eta bere ikasleekin frogak egin ondoren. «Zirriborroak egiten zituen, niri pasa eta ikasleekin frogatzeko eskatzen zidan. Iritzia ematen nion gero, hau bai, hau ez... eta aldaketak egiten zituen».

Santo Tomasen ordezkoko irakasle izaten jarraitzen zenuen orduan?

Ez, zortzigarren mailan nenbilen ordurako, irakasle egonkor moduan. Fama hartua nuen inork baino hobeto nekiela euskaraz. Ez zen egia! Baina, hitzaldietan-eta horrela ibiltzen nintzenez, egokia nintzela pentsatuko zuten, eta 1974-1976 tarte horretan euskara eta euskal literatura irakasten aritu nintzen hiru gelatan. Juan Antonio Letamendia zen tutorea.

Hitzaldiak aipatuta, horrek esan nahi du hara eta hona ibiltzen zinela?

Gelditu gabe. Ze euskal kontzientzia nuen, baina baita langile kontzientzia ere, muineraino. Nola ez nuen izango... Ikasleen erresidentzian nik neuk ikusi nuen nolako aukerak zituzten aberatsen seme-alabek. Gu, aldiz, ezin ikasi ibiltzen ginen. Horregatik interesatzen zitzaizkidan gai pilo bat. Tolosan baldin bazegoen entzun nahi nuen hitzaldi bat, ba trenea hartu eta hara, gaueko hamaikak arte. Askotan ibili naiz horrela.

Langile mugimenduan sartuta egon zinen?

Ez, sartuta ez. Neuri eragin bai, baina eragile bezala ez naiz ibili.

Baina manifestazioetan eta bestelako protestetan, bai?

Zeuden guztietan. Erreibindikazio pilo bat genituen, gazte pilo bat zeudelako kartzelan, eta ez denek pistolak eramaten zituztelako. Gainera, apaiz arrerazaleen mugimendua ere bizi-bizi zegoen. Zenbatetan joan ote garen, larunbatean afaldu aurretik, Artzain Onaren katedralera, hantxe gose greban gaua pasatzera. Elize-tan ez zuen poliziak sartzerik, eta hor egiten genuen protesta. Beno, beti ez. Behin, Jacinto Argaña gotzaina kontra jarri zitzaigula, eta egoera oso makurra izan zen; poliziaren furgoia elizan sartzeko zorian egon zen.

«Euskal kontzientzia nuen, baina baita langile kontzientzia ere, muineraino. Nola ez nuen izango... Horregatik interesatzen zitzaizkidan gai pilo bat»

Oso gogoan dut Txiki eta Otaegi hil zutenekoa. Hor ere gogor aritu ziren. Euren aldeko mezak egiten hasi ziren, eta, elizara sartzerakoan, kateekin jotzen gintuen poliziak. Errezatzen sartzten ginen. Egun horretan bronka handia sortu zen, eta handik ateratzean nonbait gorde behar, eta Espainiako Bankuan sartu ginen, pentsatuz han seguru geundela. Ba ez, *grisek* zaintzen zuten eraikin hura! Hormaren kontra ipini, eta halako galdeketa moduko bat egin ziguten. Belaunak dardarka. Lagunak txiza egin zuen bertan.

Etxera joateko beldurrez geunden, pisukideak ez konprometitzeko, eta beste eliza batean sartu ginen, luze, eta gero bueltak eta bueltak eman genituen, bakoitza bere etxera joan aurretik.

Gero, baina, poliziak non bizi ginen ondo zekiela jakin genuen...

Zergatik?

Susto bat eduki genuelako. Kontua da, udan Meñakan egun batzuk pasatzen nengoela, pisukideek deitu zidatela esanez

Ulian afaritxo bat egingo genuela. Baina norbaitek komentatu zigun gure pisukide baten bila etortzekoak zirela. Bere bila zebilela polizia, EKTkoa [Euskal Kultur Taldea] zelako-edo...¹ Horregatik, ez etortzeko esan genion, baina, tentazioa eduki, eta ileordea ipinita etorri zen.

Kantatzen bueltan etorri ginen gauerdian; ardo apur bat tartean ere bai. Gure pisuko atariak sarrera moduko bat zuen, eta, gerturatzekoan, guretako bat konturatu zen bi itzal zeudela han, bi polizia. Korrika ihes egin genuen.

Etxe batean gorde genuen gure laguna, baimena eskatuta, eta gu zirimara eta zirimara ibili ginen, polizia despistatzeko. Bueltatu ginenean, han aurkitu genituen. Galdezka hasi zitzaizkigun. Guk esaten genien gure laguna oporretan zegoela, haiek ezetz. Geletan konfinatu gintuzten, eta ez ziguten ezta komunera joaten ere utzi. Bat hartu, eta galdeketa egiten zioten. Niri ez zidaten egin, baina lagunak negarrez itzultzen zirela entzuten nuen. Azkenean, goizeko seietan joan ziren, guk ezer esan barik.

Ezkutuan ibili beharko zen garai horretan, derrigor.

Hala zen. Pertsona bat ere gordeta eduki genuen gure pisan. ETAkoa. Hori zen genekien bakarra, guk berez ez genuelako ezer gehiago jakin behar, ezta ezagutu behar ere.

Mutil horrek aste batzuk egin zituen pisan, eta joaten ginenean ateratzen zen bera gelatik, bere aurpegia ez ikusteko. Lanera joaten ginenean, berak afaria prestatzen zigun.

Egun batean, abisatu ziguten mutil horrek mugatik alde egiteko prestatu zutela prestatu beharrekoa, eta hurrengo egunean zihoala. Eta, hain majoa izanda, bazkaria-eta prestatzen zigunez, despedida egingo genuela erabaki genuen. Ezin genuen, baina... Xanpaina erosi, eta gau osoa kasik egon ginen berarekin, txisteak eta abar kontatzen. Orduan ikusi genion elkarri aurpegia.

Handik denbora batera bere izena harrapatu nuen nik nonbait, eta gero komunikabideetan entzun nuen bala-bala. Harrapatu zuten.

Zuk harrapatzeko beldurra izan duzu inoiz? Bestelako kontuengatik bada ere?

Bai, askotan. Eta bestela ere, beldurra askotan.

Hatza aurpegira eraman du Pilarek, masailaren goialdean duen orbaina erakusteko. Orain 30 bat urte, poliziaren bultzaden ondorioz kolpea jaso zuen Bilboko *El Corte Inglés* merkataritza guneko atarian, manifestazio batetik ihesi zela. Ebaki sakona eragin zioten, eta ahizpa erizainak sendatu behar izan zion zauria, ospitalean «ez fitxatzeko». Masailean du geroztik marka.

Beldurra, baina, urte luzeetan sentitutakoa dela dio Pilarek. «Gure garaiko denek pasatu dugu beldurra». Manifestazioetan nola, egunerokoan ere hala. «Edozein etxetara joaten zen polizia. Begira gure pisukidea, EKTkoa izateagatik etorri ziren». Gertu baino gertuago zuelako hori: bere ahizpa atxilotu zuten lehenengoz hamabost urterekin, *Karmel* aldizkarian ‘Zazpiak negarrez’ izenburupean bertso batzuk idazteagatik; eta gertuko baten atxiloketa ere oso gogoan du Pilarek. «Kafetegi batean nengoela entzun nuen bere izena. Luis anaiaren lagun handia zen, eta pentsatu nuen: ‘hurrengoa nire neba edo ni’». Edozein izan zitekeelako hurrengoa, dio Pilarek. «Ni ez naiz inoiz ere ETAKoa izan. Baina abertzalea edo euskaltzalea zinelako etortzen ziren zure bila».

Beldurra bai, bazenuten. Baina gosea ere halakoa.

Izugarria. Ipar Euskal Herrira, esaterako, etxean mutil hura izan eta gero hasi ginen joaten. Piarres Lartzabal abadearengana joaten hasi ginen. Hark ireki zigun Iparraldea ezagutzeko bidea. Oso abertzalea zen, ETako gazte asko miresten zituen, Argala-eta. «Bizkaitik zer altxorrek etorri zaizkigun!», esaten zidan.

Halako gaien inguruan gure kezkek azaltzen genizkion, eta berak esaten zigun asko balio zuten pertsonak zirela gazte

horiek. Guretzat ere liderrak ziren ETako asko, oraindik ez zirelako hilketak eta halakoak hasi. Lapurretak bai, baina ez bestelakorik. Gero etorriko ziren horiek.

Erreferente berri asko sortu ziren garai horretan. Mugimendu politikoez aparte, baita kulturen ere, esaterako. Ez Dok Amairuren garaia ere bazelako. Zuretzat zer izan zen hura?

Esperantza ikaragarria, beldurra kentzeko modukoa. Intelektualak, poetak..., halako pertsonak elkartzen zituen Ez Dok Amairuk, eta guretzat erreferentziatzko jendea bihurtu

ziren. Larraitzeko kontzertura [1971ko urriaren 31n] pisukideekin joan nintzen, eta han pasa genuen gaua, hotzak garbitzen.

Niretzako, bereziki hasieran, oso inportanteak izan ziren Xabier Lete eta Lourdes Iriondo. Asko miresten genituen. Niretzat pertsona garrantzitsua izan zen Iriondo, abesti

zoragarri eta esanguratsuak abesten zituelako. Gerora, bere jarrera aldaketagatik gutxiago estimatu nuen. Baina, hasieran, asko. Zenbat ordu pasatu ote ditugu pisuan Leteren eta Iriondoren kantuak kantatzen...

«Oztopo handiekin,
baina lanean baimena
lortu nuen astean behin
klasera joateko, eta
nire kabuz hasi nintzen
filologia ikasten,
lan egin bitartean»

BORBORKA ZEGOEN BILBO HORI

Ikasteko goseak eraman zuen Pilare Bilbora 1976an, 38 urte zituela, Donostian ezin gose hori itzali. Santo Tomas Lizeoan irakasle postu egonkorra lortua zuen ordurako, eta Deustuko Unibertsitatean filologia ikasketak hasiak zituen. «Oztopo handiekin, baina lanean baimena lortu nuen astean

behin klasera joateko, eta nire kabuz hasi nintzen filologia ikasten, lan egin bitartean». Hori ez zen denen gustuko izan. «Onartu ez ninduen Patxi Altuna irakaslea izan zen. Hark esan zidan ea zer pentsatzen nuen nik, filologia ikasketak oso zailak zirela, eta lan eginez ezin zela ikasi. Kontrakotasun handia zuen, ez dakit zergatik, kategoria eman nahiko zien ikasketei». Ikasketak korapilatu zitzaizkion Pilareri, harik eta Gotzon Garateren gonbita jaso eta Bilbora joateko erabakia hartu zuen arte, ikasten jarraitu ahal izateko.

Nola hartu zenuen Bilbora joateko erabakia?

Luis anaiak deitu zidan esanez Gotzon Garateren deia jaso zuela –ezaguna zuen–, eta euskal filologian jendea behar zuela esan zion, apuntatzeko. Kontua da Bilboko Deustuko Unibertsitatean ez zegoela euskal filologiarik, eta Gotzon Garatek tranpa eginez atera ahal izan zuela aurrera.

Tranpa?

Hedabideren batean-edo esan zuen Deustun euskal filologia zabalduko zutela Bilbon, gauza egina balitz bezala. Gezurra zen. Bota zuen fraideei ezer ere esan gabe, eta gero esan zien jendea izan bazuela. Hori ere gezurra. Horregatik deitu gintuen, ezagutzen gintuelako, eta bazekielako interesa genuela. Hala ibili zen jendeari deika, apuntatzeko. Mirakulu bat lortu zuen Gotzon Garatek.

Zuri hortxe suertatu zitzaizun euskal filologiarekin jarraitzeko aukera.

Anaiak apuntatuko zela esan zidan, eta ea ni. Ba bai, esan nion. Lehenengo Karmele Esnali komentatu nion, ondo hartu zuen, eta gero Santos Sarasola zuzendariarengana joan nintzen. Ez zidan oztoporik ipini, eta, ikasturtea hasita, halaxe etorri nintzen Bilbora. Gotzon Garaterengatik ez balitz, nik ez nuen filologia egingo.

Patxi Altunaren trazarik ez zuen Gotzon Garatek.

Gotzon Garate maitagarria zen. Badakizu gure baserriko txakur baten istorioa jaso zuela *Zakurra, zeure laguna* liburuan? Askotan elkartzen ginen berarekin, ikasle izan eta gero; Kafe Antzokian askotan, bazkaritarako.

Dena den, Patxi Altunarekin berriro egin nuen topo Bilbon, klasean. Han ikusi nindueanean, oso txarto begiratu ninduen: «Hemen batzuek uste dute gauetan dena egiten dela erraz, ordu batzuk sartuta nahikoa dela», horrela bota zuen berriro klasean. Ez dakit, nik uste unibertsitateko prestigioarekin-edo bazeukala halako gatazkaren bat.

Ez zen izango emakumea zinelako?

Ez dut uste, edo horregatik bakarrik ez zen izango. Bazeuden klasean beste emakume batzuk, eta irakasleen artean ere bage-nuen baten bat. Baina... Lan egitearekin ez zegoen ados.

Seguru?

Emakume izategatik nik ez dut min berezirik sentitu, edo, mindu banaute, ahaztu egin nahi izan dut.

Esaldia bukatzerako barrezka da Pilare. Pausa labur bat aski zaio, ordea, besteengan ikusitakoen adibideak kateatzeko: klaustroetan, gurasoen artean, bikote harremanetan. «Maitasun erromantikoak tranpa asko egiten ditu». Baita gaur egun ere, dio. «Ni beti izan naiz feminista. Ez nuen hasieran kontzientzia hori, ez nion nire buruari feminista nintzela esaten, baina emakumeek independenteak izan behar dugula oso garbi izan dut hasieratik. Horregatik ez nintzen ezkondu».

Hala ere, Patxi Altuna lanean eta ikasten aritzearen kontra izan arren, ez zinen bakarra izango halako egoeran, hau da, lanean eta ikasten, ezta?

Ez, garai horretan bazeuden ni bezala beste batzuk; andereñoak, esaterako. Baina gazte-gazteak ere bagenituen klasean. Joseba Sarrionandia, esaterako. Superdotatua zen. Umil-umilla, majo-majoa. Liburuak erosi beharrik ere ez zuen: liburutegian behin irakurri eta azterketa gaintitzen zuen, eta nola!

Pott Banda sortu zuten orduan Sarrionandiak eta beste batzuek. Jakinaren gainean zeundeten?

Bai, jakin bai. Baina horiek goizetan elkartzen ziren, guk lan egiten genuenean. Esaterako, Arrate Mardaras, Idoia Santurtun, Arantxa Etxebarrieta, Joanes Urkixo, Tito Mardones... eta gehiago. Talde bikaina. Goizez elkartzeko aukera zutenez, beraiek prestatzen zituzten protestetarako testuak-eta.

Zein protesta?

Fatxa asko zegoen Deustuko jesuiten artean. Marcos ize-neko fraide bat zegoen, literatura ematen zuena. Espainia eta Espainia, ez zuen besterik, eta guk literatura unibertuala eta Euskal Herrikoa ikasi nahi genituela esaten hasi ginen. Eskaera testu bat prestatu genuen protesta modura, Sarrionandiak-eta idatzi zutena. Ez ziguten kasurik egin, eta hiru hilabetez egon ginen joan gabe fraide horren klaseetara. Bi ikasle bakarrik geratzen ziren klasetan.

Zuen kabuz ikasi beharko zenuten bestelako literatura, hortaz. Baita euskal literatura ere.

Orain ezin da, baina orduan euskaraz ateratzen zen guztia irakurtzen nuen. Obligazio modukoa genuen, eta denetaz enteratzen ginen, *Anaitasuna* aldizkariaren bidez edo elkarri komentatuta: Gabriel Aresti, Txomin Peillen.... Joxe Azurmendiren *Hitz berdeak* oso-oso gogoko nuen. Asko-asko irakurtzen nuen orduan.

Baina, ikasteaz gain, lan ere egiten zenuen, esan duzunez.

Bai, Labayrun. Euskara irakasten hasi nintzen Indautxuko Karmengo elizaren lokaletan. Ehun ikasle izango nituen,

asko umeak eskolan utzi eta euskara ikastera etortzen ziren gurasoak. Orduan ere Bilboko Irakasle Eskolan euskarazko klase batzuk ematen hasi nintzen, goizetan. Eta asteburuetan Bergarara joaten nintzen, irakasletza ikastera.

Irakasletzako ikasketekin ere hasi zinen orduan, aldi berean?

Nire moduan andereño aritu bai baina titulurik ez zutenentzako ikasketak ziren. Lan egin eta ikasi ahal izateko presatuak. Asteburuetan izaten ziren klaseak. Horri esker lortu nuen, filologiarekin bateratsu, irakasletza ere egitea.

Egunak 24 ordu ditu. Nola egiten zenuen?

Pentsatu ere ez! Irakasle Eskolan zortzietan euskara klasea eman, han bukatu eta Labayrura arratsaldeko bostak arte. Batzuetan, bazkalorduan ere laguntzen nien aparte ikasleei, azterketarik-edo bazuten. Gero Deustura, filologiako klaseetara, eta gaeuz ikasi. Beno, protestaren bat bazegoen, ba horra joaten ginen. Eta asteburuetan Bergarara, irakasletzako klaseetara, eta ikastera. Eta bertso saioetara ere bai, edo hitzaldiren bat baldin bazegoen. Halaxe ibiltzen nintzen.

Halakoa zelako giroa? Borborka zegoelako 1976ko Bilbo?

Oso gustuko Bilbo topatu nuen. Mugimendu handia zegoen. Errekalde auzoan, esaterako, *Universidad Popular* zegoen; orain IPESek egiten duen moduko zerbait. Errekaldeko unibertsitate librea deitzen genion, sistematik kanpoko zelako. Apaizak izandakoak, kultur munduko jendea..., ezkerreko jendea elkartzen zen han. Hitzaldiak ematen ziren, eta liburuak eta materiala sortu. Nik ezin nuen asko-asko joan, lan egin behar nuelako, baina ahal nuenean gerturatzen nintzen. Han sortutako materiala, hori bai, irentsi egiten nuen.

Santutxun, berriz, euskalduntze inguruan sekulako mugimendua zegoen, oso polita. Gero Indautxu ere bazegoen, aberatsen lekua, eta Deustuk ere bazuen bere zigilua. Borborka zegoen Bilbo. Hori ikusi eta esan nuen: niri gustatzen zaidan hiria da hau.

Franco osteko urte horietan kaleak bizi-bizi egongo ziren.

Manifestazioz manifestazio ibiltzen ginen. Orain ere bai, baina orduan zer esanik ez. Alde horretatik, Donostia hilagoa ikusi nuen. Polita da, bertan du hondartza, mendia... Baina Bilbo ezagutu eta gero, Bilbo nahiago. Donostia herri txiki bat da, Bilbo ez.

Bertso saioetan ibiltzen zinela esan duzu. Bertsotan ere bai?

Xabier Amuriza kartzelatik atera zenean, Anton Artiñano Ulibarri euskaltegiko arduradunari bururatu zitzaion bertso eskola moduko bat antolatzea. Amuriza lanik gabe zegoen eta laguntzeko-edo. Euskaldun batzuei heldu zitzaigun astean bitan bertso eskola egiteko proposamena, eta hantxe ni.

Santutxuko lehen bertso eskola sortu baino arinago izan zen hori?

Seguruenera bai. Joserra Etxebarriak-eta ez dakit noiz sortu zuten Santutxukoa, baina apur bat lehenago izango zen gurea, esango nuke. Gainera, askotan, klasera joan beharrean, alboko tabernara joaten ginen, eta hantxe ibili bertsotan. Batzuetan ezta hori ere: bertso-rik bota gabe itzultzen ginen etxera, eztabaidan. Oso oroitzapen onak ditut.

Amurizari txapelketetan animatzera ere joaten ginen. Injustizia itzela pasa zitzaion Amurizari. Antzinako bertso-lariek, berezko etorria zutenek, ez zuten onartzen bertsolaritza

ikasi zitekeenik. Horregatik, Amurizak lehen txapela irabazi zuenean, denek esaten zuten kasualitatez irabazi zuela. Eta guk segi animatzen, eta segi animatzen. Horrela aritu ginen orduan, Amuriza babesten. Eta begira.

«Oso gustuko Bilbo topatu nuen. Mugimendu handia zegoen. Errekalde auzoan, esaterako, *Universidad Popular* zegoen. Han sortutako materiala irentsi egiten nuen»

Entzule izateaz gain, sekula plazara pasa zara bertsoan aritzeko?

Amurizak esaten zigun animatzeko, eta nik ezetz. Sekula ez dut hori eduki buruan. Bertsoan lagunekin gozatzea zen nire helburua. Euskaraz bizitzeko beste gune bat ere bazelako, eta hitz egin ahal izateko leku bat. Gure artean, Laudioko *Bizkar* [Pedro Bizkarguenaga] ibili zen gero plazetan, esaterako. Baina ni ez, nahi ere ez. Bertso paperak bai, asko idatzi ditut. Baina plazarako gogorik ez dut inoiz ere izan.

2018ko Bizkaiko Txapelketan sariak banatzen jardun zuen Pilarek. «Ohore handia izan zen». Bizkaiko Bertsozale Elkartearen hitzetan, honengatik: «Bertsozaleetan bertsozaleena delako, plazarik plaza ibiltzen dena beti». Txapelketa hartan ere halaxe ibili zen: bera gidari, bost lagun autoan hartuta, sailkapen saiotik saiora. Finalean, ordea, taulara igotzea gertatu zitzaion, aurrenekoz, sariak banatzeko. «Hain urduri nengoen, ez dudala gogoratzen nori eman nion zer». Baina dakiena da aparteko ilusioa egin ziola Onintza Enbeitaren txapelak. «Oso-osu ondo ibili ziren bera eta Nerea Ibarzabal, sailkapen guztian zehar. Eta Onintzak irabazi zuela entzun nuenean, a ze poza nirea». Emakume batek merezi zuelako behingoagatik Bizkaiko txapela.

D EREDUAREN ALDE

Egongelako apalategiaren erdialdean du Pilarek Ugaoko eskola publikoko B ereduko lehenengo promozioiko ikasleen argazkia. «Horiek dira nire Ugaoko umetxuak». 1981eko erretratua da, ikasleek eurek erretiratu zenean omenaldi bazkarian oparitan emandakoa. Bi ikasturte eman zituen han, 1981-1982 eta 1982-1983koak, irakasletzako titulua eskuratu berri eta filologia amaitzear zela. Ikasle horiekin hasi zuen Pilarek D ereduaren aldeko inurri borroka.

Titulua lortu eta segidan hasi zinen lanean. Irakasle euskaldunen premia zegoen?

Orduan hasi zen euskara eskola publikoetan sartzten. A ereduetan ikasgai modura, eta B eredu moduko batzuk² ere sortu zituzten. Horretarako, lan poltsa berezi batzuk osatu behar izan zituzten, irakasle euskaldunak tituluak hartzen hasi ginelako, eta irakasle espezifikokoak edo egokiak deitzen zitzaizen figura moduko batzuk sortu zituzten.

Irakasletza bukatu eta segidan, Elorriora joateko eskatu zidaten. Ezin nuen, filologiako ikasketekin jarraitu behar nuelako, eta ez nuelako kotxerik. Handik bi egunera Ugaora joateko eskatu zidaten. Nik ez nekien ezta non zegoen ere. Baina Basauri alboan zegoela esan zidatenean, begiak parez pare zabaltu zitzaizkidan, trenean joateko aukera nuelako. Hantxe hasi nintzen 1981eko urriaren 6an.

Ugaoko eskolan euskara sartzten hasita zegoen?

Orduantxe. Ikastetxean A eredia zegoen artean, eta gurasoak B eredia eskatzen hasi ziren –horietako asko erdaldun-erdaldunak-. Baina administraziotik esaten zieten ez zegoela irakasle euskaldunik, eta ez zela posible. «A, bai? Ba irakasle euskalduna etorri arte, guk boikota egingo dugu». Hori erabaki zuten Ugaoko guraso horiek, ez zituztela euren seme-alabak ikastoletara eramango, eta eskola publikoan nahi zutela irakasle euskalduna. Koitaduak... Administrazioak beti esaten zuen ezetz, oztoporik handiena zen, irakasle erdaldunekin zer egin ez zekielako. Baina, Ugaora, behintzat, ni bidali ninduten B eredia abiatzeko, boikot horri esker.

Zer giro topatu zenuen han?

Ikastola batean egon eta gero, niretzako izan zen... Gela ilun-iluna, adreiluzkoa, marrazki bat bera ere ez horman, materiala dena erdaraz... «Ene, zer egiten dut nik hemen!». Halako batean, alboko gelan, euskaraz hitz egiten entzun nuen norbait, eta poztasuna piztu zitzaidan. A ereduko irakasle

bat zen, Arrigorriagako Gotzone, euskaraz moldatzen zena, euskaltzalea. Horrek poztu ninduen, pentsa!

Egoera ez zen erraza, baina. Ikastetxe hartan A ereduko hiru gela zeuden, eta nirea zen B ereduko bakarra. Horrek esan nahi zuen nik neukala nire gela osoaren ardura eta baita A

«Gure umeetako askok ez zekiten hitz bat bera ere euskaraz. Jolasaren eta bestelakoen bidez sartu behar genien euskara. Horregatik, oso aurrerakoiak bihurtu ginen. Material oso berritzailea sortu genuen»

ereduko geletako euskara klaseen ardura ere. Lotsagarria. A ereduko klaseetara joaten nintzenean, nire ikasleek ez zuten ezer ere egiten, beste irakasleek ez zutela klaserik ematen; askotan etxera joaten ziren. Nire umeak galtzen ateratzen ziren!

Protesta egin nuen horregatik zuzendaritzan, gure umeak abandonatuta zeudela euskaraz ikasteagatik, eta administrazioan ere kexatu nintzen. Esan nien ea zertan zebiltzan, nola onartzen ahal zuten hori.

Zure antzeko egoeran zeuden beste irakasle batzuk?

Bai. Garai hartan ikastolan egondako askok gairitu genituen oposaketak, eta elkarrekin hasi ginen B eredu moduko horietan lanean. Elkar ezagutzen genuen, eta B eredia bai, baina guk ahal zen guztia euskaraz eman behar genuela adostu genuen.

Adostu? Hala erabaki zenuten?

Erabaki erabaki... Ea. Ugaon hasi nintzenean, Abel Ariznabarreta zen Nerbioi Garaiko Euskara Koordinatzailea, Urduñatik Basauriraino. Oso tipo majoa. Gero, administrazioa joan zen, eta ni jarri ninduten bere lekuan, koordinatzaile. Hezkuntza Ordezkaritzako materialgintza taldean sartu nintzen orduan. Kontua da nire moduko irakasleekin batzarrak egiten nituela euskarazko materiala banatzeko,

koordinatzailea nintzelako. Basauriko Pozokoetxe eskolan elkartzen ginen, zonaldekako koordinazio bilerak han egiten genituelako. Bada, bilera horietan hasi ginen esaten ahal zen gehiena euskaraz eman behar genuela. Esan ere, ez zen asko esan behar... Ze materiala sortzen hasi, eta ez ginen hasiko ba pentsatzen hau euskaraz, bestea gazteleraz..., denbora neurtzen. Dena euskaraz egiteari ekin genion.

Euskarazko material gutxi zegoela baliatu zenuten bul-tzada emateko.

AEK-koen edo Patxi Altunaren materialak genituen euskara irakasteko, oso gramatikalak. Ondo funtzionatzen zuten Manolo Urbietaren kantu eta jolasaren bidezko materialek. Baina guk bestelakoak behar genituen, gure umeetako askok ez zekitelako hitz bat bera ere euskaraz. Jolasaren eta bestelakoen bidez sartu behar genien euskara. Horregatik, oso aurrerakoiak bihurtu ginen. Material oso berritzailea sortu genuen. Garai horretan, didaktikaren iraultza euskaratik etorri zen, euskara ezin zelako bestela irakatsi. A eremuan ez zegoen hori, ez zutelako behar.

Nola lantzen zenuten materiala?

Hezkuntza Ordezkaritzan egiten genituen bilerak. Baina gero, adibidez, [Bilboko] Pozasko Ziripot tabernan elkartzen ginen Karmele Landa Arrankudiagako zuzendaria eta biok, eta materiala egiten genuen. Materiala ona zela pentsatzen bagenuen, besteei pasatzen genien, hamabostero egiten genituen Basauriko koordinazio bilera horietan. Abel Ariznabarretarekin ere elkartzen nintzen Hezkuntza Ordezkaritzan, materiala egiteko eta trukatzeko. Denaren beharra zegoen, eta, horregatik, beharretik sortu zelako izan zen material hori hain berritzailea.

Karpeta urdin gomadunetik fotokopia batzuk atera ditu Pilarrek, bonboi paper gorrien gainean pausatzeko. 1984an *Karmel* aldizkarian argitaratu zuen artikulua kopia bat da:

«Irakaskuntza atzeratuta geratu da. Ezin ukatu iraultza baten beharrean aurkitzen denik. Bizitzak 'aurrerakuntza' nabar-menak egin ditu; kakotx artean, noski, ez baitut uste bizitzan ageri diren berrikuntza guztiek aurrerakuntzarekin zerikusirik dutenik. Bizitzarekin erlazio biziagoa beharko luke heziketak, haurraren interesak harrapatuko baditu behintzat». Orduko kezkak antolatzeko eta jasotzeko plaza zen Pilarerentzat *Karmel* aldizkaria. Baita salatzekeo plaza ere. «Euskarazko taldeetan dagoen haurren batengan arazoren bat sumatu orduko, euskaragatik dela uste izaten da, eta inoiz gurasoei erdarazko taldera pasarazteko aholkua eman ere bai». Nerbioi Garaiko Euskara Koordinatzaile zela, giro eta kezka horiek zituen Pilarek.

Irakasle ez euskaldunekin nolakoak ziren harremanak?

Ondoezak sortu ziren. Mugak ipintzen zizkiguten: esaten zizkiguten klaseek erdia euskaraz eta erdia gazteleraz izan behar zutelak. Administrazioetik berdin: koordinatzaile nintzela, aurkariak bagina bezala tratatzen gintuzten; bost axola zitzaizkien gure kexak.

Zuzendari gaizto bat ere izan nuen nik Ugaon, euskararen kontrakoa eta gezurrarekin ibiltzen zena. Administrazioa joaten zen esanez nik D eredia ematen nuela. A ereduko irakasle batzuk ere, euren lanpostuengatik beldur zirenak-edo, euskaraz gehiegi ematen genuela esaten hasi ziren, eta salaketak egiten zituzten. Halakoei erantzuteko, beti esaten nien hauxe: «Zure lankide bat salatzen duzu matematika gehiegi emateagatik? Zergatik, orduan, euskaraz emateagatik?».

Inspektoreak ere etortzen zitzaizkigun kargu hartzera. Esaten zizkiguten B eredia literalki eman behar genuela. Baina guk ez genuen ematen, ezta pentsatu ere!

Ondoriorik izan zuen erabaki horrek?

Inspektoreak gugana bidaltzen zituzten, baina, oraindik ez dakit zergatik, gure lagunak bihurtu ziren. Beharbada Abelenatik: Ordezkaritzan zegoenez eta euskaltzalea zenez,

horrek lagunduko zuen. Isabel Lertxundik ere asko lagundu gintuen. Inspektore burua zen bera, eta ez ziren ausartuko asko berari kontra egiten.

Dena den, behin ikuskari batek deitu zidan esanez pentsatu zuela nire gelan egun bat pasatuko zuela, ea oztoporik nuen. Inspektore hura erdaltzalea zen orduan –gero apur bat euskaltzale bihurtu zen–. Nola esango nion nik ezetz.

Salaketaren bat tartean egongo zela pentsatzen nuen. Eta bai: gure zuzendariak esana zion D eredia ematen nuela, eta berak ikusi nahi zuen nola egiten nuen hori. Gelan sartu, eta Manolo Urbietaren saioak egin nituen lehenengo, gero lanbideetakoak... Hizkuntzak erakusteko metodologia aktiboagoa behar duzu, eta halaxe aritu ginen klasean. Kantatzen, mugitzen... Ohiko martxan. Arratsaldean ez zela geratuko esan zidan: «Ez da behar egun guztian ni hemen egotea. Gustatu zait».

Hurrengo goizean zuzendaria nuen atean zain: gurasoak Ordezkaritzara ke-xaka joan zirela, eta nirekin hitz egin behar zuela. Ez nion sinistu, noski, eta esan nion: «Atzo bertan klasean izan nuen ikuskaria, eta lasai, pozik joan da. Gustatu zaio». Nola haserretu zen!

Ugaon euskarazko irakaskuntzari bide eman zenion, bezaraz. Gurasoak pozik egongo ziren.

Ugao inguruko ikastola bateko gurasoak etorri zitzaizkidan behin, gure ikastetxeko gurasoekin harremana zutelako. Diru problemak zituen ikastola hark, eta, eskola publikoan euskara sartzen hasi ginenez, pentsatu zuten euren umeek eta gure taldekoek bat egin zezaketela. Ikastola itxi, eta publikora pasa. Guraso horiek uste zutelako nik egiten nuena baino gehiago ez zutela egiten ikastolan. Baina ez zen horrela.

Ezetz esan nien: «Nola ba, B ereduarekin?». Eta adibide batzuk eman nizkien: «Ikastolan irakasleak ez dituzue urtero aldatzen, eta onak badira, bertan edukitzen dituzue. Nire kasuan, ez dakit horrela izango den, zenbat egongo naizen hemen, eta nik alde egiten badut, B eredia hutsean geratuko da. A eredu errefortzatu moduko bat eman dezake datorren

hurrengoak, eta ez D eredia. Hori ez dago gure eskuetan, Ordezkaritzak erabakitzen duelako nor bidali; eta ziurtasunik ez badago, ezin duzue ikastola itxi». Pena ematen zidaten gurasoek, baina hori zen gure errealitatea.

Ikastolen publikazioaren eztabaidak bete-betean harriatu zintuen hurrengo urteetan, Fernando Buesa Kultura sailburuaren hezkuntza erreformarekin. Nola ikusi zenuen prozesu hori? Antzeko iritzia zenuen orduan ere?

Ugaotik Barakaldora pasatua nintzen ordurako, eta han ikusten nuen euskararen kalterako izango zela publikazioa, euskara babestuago ikusten nuelako ikastoletan. Eskola guztietatik pasatzen nintzen ni Barakaldon, eta ikasleen artean diferentzia zegoen. Horregatik, ikastolen publikazioaren kontra azaldu nintzen. Hitzaldiak ere eman nituen hori defendatzen. Santutxuko Karmelon, adibidez.

Inkoherentea dirudi, euskara eskola publikoetan defendatzen aritu naizelako beti Barakaldon; baina, euskarari bakarrik begiratuta, ikastolek jarraitzea merezi zuela ikusten nuen. Ze niretzako ikastolak publikoak ere badira: gurasoek sortu dituzte, herriak sortu ditu.

Egun, aldiz, murgiltze ereduaren eztabaida dago bizi-bizi, D eredia ez dela nahikoa iritzita. Zer iritzi duzu zuk?

Nire kezkarik handienetakoa da hori. Bai, murgiltze eredia da onena. D eredia gutxi dela uste dut, eta murgiltze eredia joan beharko genuke. Baina horren atzean tranpa egon liteke. Kontzientzia handiko eskola ez bada, murgiltze ereduak ez duelako balio. Horretarako, irakasleek eta gurasoek oso prest egon behar dute, eta gizartean egon behar du halako koltxoia esateko: «Bai, ez dugu inolako beldurrik, gure umeak murgilduko ditugu euskaraz, eskola publiko guztietan». Horregatik uste dut murgiltze eredia ona izango dela gauzak oso argi ditugunerako. Beharbada Barakaldon D eredian egin genuena egin beharko genuke orain murgiltze ereduaren alde. Jendea eta gizartea prestatu.

BARAKALDO EUSKALDUNAGO

80ko hamarkadako krisi ekonomikoaren abaroan iritsi zen Barakaldora Pilare, 1983ko udazkenean, uholdeek Bizkaia kolpatu eta gutxira. Euskal filologia ikasketak amaituta, bigarren hezkuntzako oposizioak gainditu zituen 45 urterekin, eta euskara aholkulari lanpostu sortu berria lortu zuen Barakaldoko ABT Aholkularitza eta Baliabidetegian; gero PAT deituko zen zerbitzuan, eta, azkenik, egungo Berritzegunea denean.

«Barakaldon euskara aholkulari?». Harrituta esan zidan aitak. Tratantea zen, eta ondo ezagutzen zuen Ezkerraldea; *Erreka artea* deitzen zuen berak. Han euskaraz ez zuen inoiz ere entzun gure aitak, eta nik hori esan nionean, pentsa!».

Euskararen aldeko su txiki ugari piztuak ziren ordurako Barakaldon, ordea, eta horiek hauspotzen eta elkartzen jardun zuen Pilarek; lanean eta lanetik kanpo. «Barakaldo niri esker euskaldunagoa dela, hori esatea askotxo da. Baina bai, behin baino gehiagotan esan izan didate hori».

«Ikusten nuen euskararen kalterako zela publikazioa, euskara babestuago ikusten nuelako ikastoletan. Horregatik, ikastolen publikazioaren kontra azaldu nintzen»

Zergatik hautatu zenuen Barakaldo?

Administraziotik ezagutzen nituen Ezkerraldeko lankide batzuk, eta, oposizioak gainditzerakoan, aukera izan nuen Ezkerraldeko aholkulariaren lanpostua hautatzeko. Hala ere, nik ez nuen Barakaldo batera ezagutzen. Pentsa, hasi aurretik bilera batera joan behar izan nuen Barakaldora, bakarrik, materiala-edo eramatera. Paper-fardel guztiak hartuta joan nintzen autobusean. Gidariari galdetu, eta herriko plazan utzi

ninduen, majo-majo. Jaitsi nintzenean, gizon bati galdetu nion ea festak ote ziren, hainbeste jende kalean ikusita. Egun normal bat zen, noski, eta ni harrituta. Nik Barakaldo ezagutu ez!

Barakaldo behar bezala ezagutzea izango zenuen lehenengo lana, beraz.

Bai, euskarazko ereduak nola zeuden, irakasleak nor ziren..., eta, batez ere, bidelagun izango nituenak non aurkitu nitzakeen begira hasi nintzen. Nik banekien euskararen aldeko mugimendutxo bazegoela ordurako Barakaldon; D eredu moduko batzuk bazituztela ikastetxe batzuetan, borrokaturta lortutakoak.

Gainera, lanpostu berria zenez, eskoletako euskararen erreferentzia neu bihurtu nintzen, eta hasiera-hasieratik hasi zitzaizkidan lagundu nahian. Nahiko erraz sartu nintzen harian, ez hainbeste nire merituz.

Noren merituz, bada?

Gurasoen eta irakasleen merituz. Desiratzen zeuden euskararen inguruan bilkura moduko bat izateko, eta babes eskaini zidaten. Ni Barakaldora iristerako, bazeuden talde euskaltzale batzuk: Etxepare kultur elkarte, Laguntasuna dantza taldea, AEK, Hala Dzipo euskal musika eskola... Ikastetxeak ere bai: Beurko, Ibaibe, Mukusuluba... Horiekin bilerak egiten hasi ginen, udaletxean bertan, arratsaldeko zazpietatik aurrera. Ze, klaro, asko langileak ziren, *Altos Hornos* eta fabriketakoak. Jende euskaltzalea zen, oso ekintzailea, baina euren ordutegietara moldatu behar duzu zer edo zer egin nahi baduzu. Gugana etorri ziren asko, denerako prest, eta gu ere beraingana joan ginen. Azkenean Euskara Koordinakundea deitu genion taldea sortu genuen, bilera horiek egiteko.

Zure jarduna ez zen eskola mundura mugatu.

Ez, ezin duzu. Herriko taldeak baliatu behar dituzu, euskara zabaldu nahi baduzu. AEK izan da funtsezkoa, esaterako. Zenbat bilera egin ote ditugun AEK-ko egoitzan!

Euskaltzaletasuna ulertzeko beste modu bat topatu zenuen Barakaldon?

Oso langile soilak izan arren, euskararekiko zaletasun berezia zuten. Adibidez, eskola bateko guraso gazte batek, erdalduna zenak, etxetik hurbil zeukan A ereduko ikastetxe bat, baina berak ez zituen alabak han sartu nahi, ez behintzat A ereduan. Horregatik, ikastetxeko arduradunengana joan, eta B eredua eskatu zuen. Bere kabuz, berak bakarrik. Hori nahi bazuen beste norabait joan beharko zuela esan zioten, eta hor hasi zuen borroka. Gugana etorri zen gero. Bera bezala beste batzuk ere bai: «Pilare, gu ere B ereduarekin ados gaude» esanez etortzen zitzaizkidan.

Zergatik nahi zuten Barakaldoko guraso horiek euren seme-alabak euskaraz ikas zezaten?

Euskararekiko atxikimendua zutelako, frankismo ondorengo ilusioak euskararekin ere lotuta zeudelako. Niretzat oso bitxia zen hori, baina motibagarria ere bazen. Borrokarako gogoia zuten, neuk bezala. Ze ikastetxeetako zuzendari gehienak kontra zeuden, eta Jaurlaritzaren Hezkuntza Ordezkaritzak ez zuen ezer ere egiten. Gehienez ere bi D eredu zabalduko zituzten eskualde batean, eta, horrela, euskaraz ikasi nahi zuenari hara joan behar zuela esaten zioten. Baliabiderik ez zuela erantzuten zuen beti Hezkuntza Sailak, eta gurasoei ez zien inolako konponbiderik eskaintzen.

Guraso horien jarrera bitxia bezain motibagarria zitzazula diozu. Nolako hartu-emanak zenuen eurekin?

Iritsi berri, zuzendaria etorri zitzaidan esanez guraso talde batek nirekin hitz egin nahi zuela, kexa bat egitera zetozelako. Denetarik zegoen guraso talde hartan: irakasleak, medikuak, langileak, ertzain bi ere bazeuden tartean... Ikastetxe bateko D eredu zabaldu berriko gurasoak ziren, eta ilusio ikaragarritzat matrikulatuak zituzten han euren seme-alabak. Baina, irakaslea euskaldun zaharra izan arren, ikasleei dena

erdaraz egiten zien. Irakasle hark ez zuen D eredia onartzen, eta niregana etorri ziren kexatzera.

Irakaslearengana joan nintzen, modu onez, baina ez zidan ba erantzun: «*Cada maestrillo tiene su librillo*». Iji eta aja hartzen zuen berak kexa hura. Ez zuen kontzientziarik, eta alferra ere izango zen... Euskaraz klaseak emateko prestatu ere prestatu behar zarelako –hor ikusten da, euskaldun zaharra bai, baina euskararen kontrakoa ere izan zaitezkeela–. Gurasoekin elkartu, eta gogor egin behar izan genuen azkenean, bilera eginda ere ez zuelako jarreraz aldatu nahi.

Horrela hasi ginen euskarazko irakaskuntzaren alde lanean, guraso horiekin.

Beste ikastetxeetako gurasoekin hasiko zinen segidan lanean.

Bai. Beste eskoletako gurasoak elkartzen hasi ginen, bazeudelako han eta hemen D ereduaren aldekoak, eta elkarrekin hasi ginen lanean; batez ere matrikulazio kanpainetan. Lehenengo, udalean begirutzen genuen eskoletan zer-no-

«Bazekiten guk euskara ikastetxe guztietan nahi genuela, gurasoek eskatzen bazuten egon behar zuela defendatzen genuelako. Administrazioari ere hori eskatzen nion nik txostenekin»

lako eskaria egongo zen, ze eredutan matrikulatuko ziztuzten haurrak. Hori begiratu, eta erabakitzen genuen ze eskoletan komeni zitzaigun D eredia egotea, edo B eredia –B eredia baliagarria zitzai- gun gero D eredia eskatzeko, zubi moduko bat zen–. Nik gero ikastetxe batean D ereduaren edo B ereduaren eskaria egon bazegoela esanez idazten nuen txosten bat, gurasoek hori nahi zutela adie-

raziz, eta administrazioa bidaltzen nuen, ikastetxe horretan D eredia martxan ipini behar zela esateko. Horrela hasi ginen, eskatuz eta eskatuz.

Behin, deskuidoz, gure agerraldia onartu zuen udalak. Ikastetxeak euskalduntzen hasteko eta aisia ere euskaraz izateko gure proposamena aurkeztu genuen agerraldian.

Deskuidoz?

Bai, ez zutelako ondo neurtu zertara gindoazen. Kontua da udaleko batzar batean onartu zutela eskoletako euskalduntzeari eta aisialdiari buruzko agerraldi moduko hori egitea. Batzarreko azken puntua zen, eta hantxe geunden gu zain: ni aurrean eta atzean guraso taldea, korupean bezala ni babesten. Udalak Hezkuntza Ordezkaritzako gure lurralde arduraduna ere deitu zuen batzarrerara. Euskaldun zaharra zen bera, jeltzale-jeltzalea.

Bazekiten guk euskara ikastetxe guztietan nahi genuela, gurasoek eskatzen bazuten egon behar zuela defendatzen genuelako. Administrazioari ere hori eskatzen nion nik txostenekin: eskaria egon bazegoela demostratzen nuen, eta, ondorioz, administrazioak eskari hori bete behar zuela defendatzen nuen. Gainera, eskolaz kanpoko aktibitateek ere euskaraz beharko luketela esaten nuen: igerilekua, liburutegia, udalekuak... Ikastetxeen osagarri. Horixe bera errepikatu nuen udaleko batzarrean, eta gurasoak ere hasi ziren hitz egiten: «Halako eskolara joan naiz, B ereduak eskatu dut, eta zuzendariak ezetz esan dit», «Niri ere bai...».

Halako batean, lurralde arduradunak ez zuen ba esan, erdaraz, eta non eta langile herri batean, hauxe: «*¡Si queréis euskera, iros a las ikastolas!*». Denok geratu ginen... zur eta lur. Oso-oso eskuindarra zen bera, eta ez zuen halakorik nahi Barakaldon. Gurasoak haserretu egin zitzaizkion, nola, gainera, eta kexaka hasi zitzaizkion han bertan: ea zer ari zen esaten, eskola publikoa alferrik ote zen, eurek ez ote zuten izango euskaraz ikasteko aukerarik...

Egoera horrek sekulako bultzada eman zigun. Hortik sortu zen, esaterako, komentatu dizudan Barakaldoko Euskara Koordinakundea, talde euskaltzaleak koordinatzeko; eta, bestetik, gurasoentzako ereduaren inguruko informazio hitzaldiak ere sortu genituen.

Udaleko batzar horretan klase talka moduko bat egon zelako haserretu ziren gurasoak?

Denetarik zegoen gurasoen artean: jakintza oso-oso maila handikoak ziren batzuk, irakurriak eta hezkuntza teoriak nik baino hobeto ezagutzen zituztenak, eta beste batzuk alfabetatu gabeko langileak ziren. Tartean, beste hainbeste. Baina edonolakoak izanda ere, Ezkerraldean klase kontzientzia muineraino sartuta dute, denek. Horregatik, eurek ere euskaraz ikasteko eskubidea zutela garbi zuten, eta horixe aldarrikatzen zuten, eskubide hori. Norbere auzoan euskaraz ikasteko eskubidea.

Ikastolak aberatsen kontutzat jotzen zituztelako?

Gehiago esango nuke ikuspegi politikoa zegoela jokoan. Ikastolakoak EAJkoak zirela pentsatzen zuten –batzuetan hala zen, baina ez zen beti, ez zen egia, Barakaldon bazeudelako bestelakoak–, eta beraiek ezkertiarak zirenez, ez zituzten haurrak ikastolara bidali nahi. Ezin zuten hori onartu. Horregatik, ezker-eskuin bereizketa hori gehiago zegoela esango nuke, goi klasearen eta langileriaren arteko bereizketa baino. Noski, batzuentzat diru kontua ere izango zen. Denek ezin zituzten euren seme-alabak ikastoletara bidali. Baina, orokorrean, ez nuke esango klase borrokagatik zenik.

Guraso horiekin hitzaldiak ematen hasi zinela esan duzu.

Jendea konbentzitzeko hitzaldiak ziren, matrikulazio garaian han-hemen ematen genituenak. Lehenengo zein eskoletara joan behar genuen erabaki, eta gidoi moduko bat prestatzen genuen, nork zer esango zuen zehazteko. Hezkuntza aditu gisa joaten nintzen ni, orduko hezkuntza metodologia aurreratuenei buruz hitz egiten genuen, eta, gero, beti jartzen genuen hizlari bertako guraso eta irakasleren bat. Askotan euskaraz jakin ez baina sentsibilitatea zuten gurasoak hartzen genituen, seme-alabak A ereduan zituztenak baina B edo D ereduaren alde zeudenak.

Arratsaldetan bilerak deitzen genituen eskoletan, eta hitzaldi moduko horiek eskaintzen genizkien bertako gurasoei. Eredu guztietakoak etortzen ziren.

Zer galdetzen zuten guraso horiek?

Ba ohiko galderak: ea euskararik jakin gabe nola lagunduko zituzten seme-alabak, bi hizkuntzekin ez ote ziren zoraturako, gero non erabiliko zuten ikasitakoa... Azalpen teorikoekin azaltzen nien zein garrantzitsua den hizkuntza bat baino gehiago jakitea, eta euskarazko irakaskuntzaren didaktika ere berezia zela esaten nien, berritzaileagoa zelako. Gero, irakasle batek azaltzen zien hori egunerokoan nola egiten zuten, eta, azkenik, B edo D ereduko gurasoek zuzenean euren esperientzia kontatzen zieten; horrek asko balio zuen. Etorkizunera begira ere, esaten genien euskara beharrezkoa izango zela, administrazioan edo antzeko lanetan aritzeko. Hori ere erabiltzen genuen argudio gisa.

Koitaduak, guraso askok borondate ona zuten, baina gutxi zekiten. Horrelakoekin aparte hitz egin behar izaten zen, beldurra kentzeko. Behin gogoratzen dut nola guraso batek esan zidan: «*Yo creo que mi hijo no será capaz de aprender euskera*». Hori ez zela horrela esan nion, nire adibidea emanda: «Ni erdaraz tutik jakin gabe joan nintzen eskolara, eta ikasi nuen. Berbera gertatuko zaio zure umeari».

Zenbat ordu eta ordu bilera horiek prestatzen... Urre gorria zen jende hori, gurasoak eta irakasleak, denak. Zenbat lan, ene...

Denak ez ziren konforme izango zeniotenarekin.

Ikastetxeetako zuzendari askok boikotatzen gintuzten. Bileren aurretik denetarik esaten zieten gurasoei: gezurrak kontatzen genituela, euskara ez zela erraza, arazoak izango zituztela euren seme-alabek ikasketekin... Batzuetan, hasieran batez ere, ezagunak bihurtu ginen arte, zuzendari batzuek gurasoei esaten zieten bilerak bertan behera geratu zirela, ez joateko. Baina, hala ere, jendea etortzen zen.

Eta irakasleek zer zioten?

A ereduko irakasle batzuk greban jarri ziren garai hartan, euskarazko ereduen kontra; 1989-1990eko ikasturtea izango zen. Bilbon zeuden itxialdi moduko bat egiten, eta gurasoentzako antolatu genituen jardunaldi berezi batzuetara etorri ziren behin. Hizkuntza aniztasunari buruzkoak ziren

«Administrazioak
kontra egiten zigun,
ez zuzenean. Nik
eskaria egon bazegoela
erakusten zuten
txostenak idatzi eta idatzi
egiten nituen, baina
baliabiderik ez zegoela
erantzuten zidaten,
behin eta berriro»

jardunaldi horiek, eta inguruko guraso asko animatu ziren, jakin-minez edo. Oso leku diferentetako gurasoak elkartu ziren: Barakaldokoak, Bilboakoak, Senegaldik etorritakoak, arabiarrak...

Beti bezala, sarrera nik egin nuen: hizkuntza bat baino gehiago hitz egitearen garrantziaz hitz egin nien, erraztasunaz, lagunak egiteko abantailaz..., teoriak eta autoreak aipatuta. Eta han ari nintzela, A ereduko irakasle horietako

batek moztu ninduen: «*No, no, os está engañando. Porque yo soy de Málaga, soy profesor, llevo aquí 30 años, y todavía no sé euskera. Porque eso de que se aprende enseguida es mentira*». Modu onean erantzun nion, ez zela egia zioena, eta adibide zehatzak jartzen hasi nintzen; Barakaldoko bertako adibideak ziren, teoria eta praktika nola lotzen ziren erakusteko.

Aurrera egin genuen gurasoei aholku zehatzak ematen: eskolaz kanpo, euskal diskoak erosi behar zirela, haurrak euskal jaietara eraman behar direla..., halakoak. Eta berriro berotu zen irakasle hori. Baina, oraingoan, begira ze mirakulu gertatu zen: zapia buruan jantzita zuen andre gazte batek, ahoskeraz kanpotarra zirudienak, kontra egin zion esanez ez zuela arrazoirik. Berak bi karrera ikasiak zituelako, eta hizkuntza batzuk-batzuk zekizkielako: ingelesa, frantsesa, arabiera..., ez dakit zenbat. Eta bere haurrak B eredura bidaltzen zituela,

baina ez zela nahikoa, ez zutela euskara behar bezala ikasten, eta jardunaldietara etorri zela D ereduari buruz informazio gehiago jasotzeko. Emakume hori bere haurrak eskolaz aldatzeko prest zegoen, D ereduan ikas zezaten. Kategorian erantzun zion. Umil baina harro.

Segidan, beste mutil gazte bat hasi zen hitz egiten: Getxon bizi zela bera, jatorriz kanpotarra zela, marokoarra, ustez, eta bere haurrak ikastolara bidaltzen zituela, eta ze pozik, gainera! Kontatu zuen ikastolan etxerako euskarazko diskoak uzten zizkiotela, eta izugarri gozatzen ari zen bere haurrak euskara ikasten ikustez.

Programatu banu, ez zen hobeto aterako!

Arazo handiena A ereduko irakasle erdaldunekin izan duzu?

Bai, baina batzuekin bakarrik, eta ez zuzenean, lankideak ere bazirelako. Seguru euren artean ez nintzela oso maitatua izango... Baina euren artean jende zoragarria ere bazegoen, noski. A ereduko irakasle batek behin deitu zidan esanez bazuela edade bat, eta ez zela gai euskara ikasteko. Agurtzera etorri zitzaidan, elkarrekin bazkaldu genuen, eta euskararekin ados zegoenez, alde egingo zuela esan zidan. Zelako pena nirea, pertsona ona zelako. Horrek bai merezi zuela gurean egoteak!

Gero eta guraso gehiago zuen alde egonagatik ere, D ereduak ez zen berehalakoan hedatu.

Administrazioak kontra egiten zigun, ez zuzenean. Nik eskaria egon bazegoela erakusten zuten txostenak idatzi eta idatzi egiten nituen, baina baliabiderik ez zegoela erantzuten zidaten, behin eta berriro. Ikastetxeetako zuzendariak eta batez ere ikuskariak traba handiak jartzen zizkiguten. Ezkerraldean oso fatxak ziren ikuskariak, euskararen oso kontrakoak.

Ezkerraldean bereziki, edo denean ziren halakoak?

Nik uste ez zirela ausartzen halako bat Gernikara bidaltzen, esaterako, edo Durangora, edo Arratiara. Eta gurean, nola

ikastetxeetako zuzendari asko eskola espainoletik etorritakoak ziren, ez zuten aldaketa ziztrinena ere egin nahi. Eurentzako, gu goia eta behea astintzera gentozen...

Halako jarrearen kontra protestak egin behar izan zenituzten?

Ereduen aldeko manifestazioak egin genituen, nahiko eman-korrak, eta administrazioarekin bilerak izan genituen. Baina emaitzarik ez: B ereduarekin nahikoa zela erantzuten ziguten. Gainera, gogoan dut administrazioarekin izandako bilera horietako batean esan zidatela: «Baina, zer uste duzu, eskolekin euskara salbatuko duzuela?». Niretzat hori izan zen... Tontoak bezala tratatzen gintuzten. Baina, beno, tantaka-tantaka joan ginen lortzen.

Zuen arteko elkarlana izan zen horretarako gakoa?

Babes hori gabe nik ez neukan ezer ere egiterik. Gainera, irakasleekin mintegi bat sortu genuen, oso ona, Ezkerraldeko euskarazko materiala sortzeko eta banatzeko. Horren hastapena Portugaleteko Kanpazar eskolan zegoen. Ni Ugaon nintzela sortu zen, tarteka joaten nintzen hara. Eta, nolabait, horri segida ematen hasi ginen Barakaldon materiala lantzen, mailaz maila; eta irakasleei material hori nola erabili erakusteko hitzaldiak ematen hasi ginen.

Irakasle eta pedagogo katalanak ere ekartzen nituen mintegietara, prestigio handikoak. Euskal kultur arlokoak ere bai. Eta beste eskoletara bisitak antolatzen genituen: Gasteizera, Lizarrara, Eskoriatzara, Donostiara... Irakasleen autoetan antolatu, eta horrela joaten ginen. Beste eskoletakoak ere etortzen ziren guretara. Ze beste lekuetatik deitzen hasi ziren, gure materiala nahi zutelako; «Ezkerraldeko materiala» deitzen zioten. Azkenean, Bizkaiko Zubiaren alboan zegoen inprenta batean utzi behar izan genuen material hori, eta, deitzen zidatenean, handik hartzeko eskatzen nien. Bestela, ez nintzen iristen. Horrela lan egin dut erretiratu arte. Beno, zigortu nindutenean ez.

Zigortu, zergatik?

Traba egiten nielako.

GURASOEN BOZERAMAILEARI ZIGORRA

Ertzak horiztatzen hasitako hainbat paper utzi ditu orain-goan Pilarek mahai gainean. 1988koak dira. Idazmakinez idatzita daude horietako bi dokumentu, elkarri gratatuta. «Pilareren aldeko eskariak» dio eskuz idatzitako argibideak. «Ezkerraldeko irakasleak» irakurri liteke dokumentu baten sinaduran, Bizkaiko Euskara Koordinatzaile Taldea bestean. Barakaldoko euskara aholkulari kargutik kendu zuteneko kexa agiriak dira. Pilarek bere lana egiten ez zuelakoan, edo bere lana bakarrik egiten ez zuelakoan, administrazioak 'zigortu' zuenekoak.

Traba egiten zenuelako zigortu zintuztela esan duzu. Nori egiten zenion traba?

Gure zerbitzugunean oso PSOEko zuzendari bat izan genuen, Alejandro. Niri zuzenean ez zidan ezer ere esaten, baina atzetik gure kontrako lan ikaragarria egiten zuen, Barakaldon ez zuelako euskara ikusten. Udalekoen oso laguna zen, eta, Hezkuntza Ordezkaritzarekin batera, nire kontrako konplota prestatu zuen. Isabel Zelaa zegoen orduan Ordezkaritzan buru egiten, eta Mertxe Hidalgo zen ikuskariena.

Konplota?

Bai, ez daukat dudarik. Nik uste Alejandrok pentsatu zuela: «Pilarek ez du euskara abandonatuko», eta traba egiten nien. Beraiek nahi zutelako txakurkume bat, egiten zuena esaten zitzaiona. Ez ni bezalako bat. Egia da nire moduko batzuk bazeudela beste eskualde batzuetan, baina askok betetzen

zuten zuzendariaren hitza, eta Hezkuntza Ordezkaritzakoek bazekiten hori. Nolabait, uste dut nitaz horrelako zer edo zer pentsatu zutela: «Honek zergatik egiten du hau guztia, guk agindu gabe?».

D eredua hedatzearen alde lan egiten zenuelako zeuden zure kontra.

Horregatik bakarrik ez. Eurek bazekiten herriko euskararen aldeko kanpainetan sartuta nengoela, baita bestelako ekimenetan ere. Gauza asko egiten nituen: gurasoekin bilerak, AEK-koekin, HABErekin, herriko taldeekin, aisialdiko programak sortu eta bultzatu... Eta hori ez zitzaien gustatzen.

Hala ere, ni zigortzeko aitzakia –besterik ez zutelako– izan zen ez nuela niri zegokidan lana egiten. Hori esan zidaten: ni irakasleen euskara aholkularia nintzela, eta ez gurasoena edo euskara taldeena. Nire jarduna moztu nahi zuten.

Eta nola egin zuten hori?

Egun batean, zerbait pasatzen ari zela igarri nuen. Kafea hartzera irten, eta, bueltarakoan, halaxe bota zidan zuzendariak, zakar: «¿Qué, ahora también has estado con los padres?». Hori zertara zetorren galdetu nion, eta berak esan zidan nire zuzendaria zela, eta halako zer edo zer esana ziotela. Nik, egia esan, orduan ez nion kasurik egin.

Kontua da ordurako hasiak ginela gure kabuz PATeko euskara teknikari guztiak elkartzen, EAEko guztiak, denek antzeko arazoak izaten genituelako. Eta Hezkuntza Ordezkaritzan hori jakin zutenean, bilera batera deitu gintuzten, Bilbon. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko PATeko euskara aholkulari guztiak elkartu gintuzten. Isabel Zelaa ere hantxe zegoen.

Hasi ziren esaten: «Hemen batu gara zuek ezagutzeko, sakabanatuta ibiltzen garelako beti, eta badakigu zuek elkartzen hasi zaretela, eta elkarrekin aritu behar dugu, elkar ezagutu...», halakoak. Aurkezpen erronda moduko bat egiteko eskatu ziguten: nor ginen, nondik gentozen... Aurkezpenen erdialdera iritsita, nire txanda izan zen: «Ni Pilare naiz, eta

Barakaldoko PATetik nator». Hori esan, eta elkarri begiratu zioten ikuskariek, eta hasi zitzaizkidan aurpegira botatzen: «Irakasleen aholkularia izan beharreen, zu gurasoena zara, eta hori ez dagokizu zuri, ez da zure eginkizuna». Horrelakoak botatzen hasi zitzaizkidan.

Segidan erantzun nien irakasleen aholkularia nintzela ni, nire lan orduetan ez nintzela gurasoekin elkartzeko, eta hortik kanpo egiten nituela nik gainontzeko kontuak; ea zertara zetorren hori. Bada, beraiek erantzun zidaten ni euskara teknikaria ere banintzela arratsaldeko bostetatik aurrera. Ni harrituta!

Baina ordurako politikan nabarmentzen hasiak ziren Isabel Zelaa eta alboan zituenak, eta uste dut Xabier Bengoetxea teknikariak egin ziela kontra:

«Zuek zuen lan orduak amaitzerakoan, ez dituzue bilera politikoak egiten, ala? Nori eskatzen diozue baimena?».

Gainontzeko teknikariek ere nire alde egin zuten, eta, hori ikusita, apur bat atzera-edo egin zuten ikuskariek. Hala ere, argi zegoen ni baztertzeko erabakia hartuta zegoela. Handik gutxira, lanpostua utzi behar nuela esan zidan zuzendariak, deialdiko puntuak aitzakia

hartuta-edo, eta ea nora joan nahi nuen. Orduan erabaki nuen Santutxuko haur-eskolara joatea, han postua bermatuta nuelako.

Alegia, irakasle izatera bueltatu zinela.

Hor ere zorte ikaragarria izan nuen. Santutxuko ikastetxean D eredia zabaltzeko asmoa zuten. Hango irakasleek ezagutzen ninduten, eta D ereduko klase horrekin hasteko esan zidaten. Ze jende jatorra zegoen Santutxun, Marian Erkiaga, Garbiñe Malaxetxebarria...

«Ni zigortzeko aitzakia izan zen ez nuela niri zegokidan lana egiten. Hori esan zidaten: ni irakasleen euskara aholkularia nintzela, eta ez gurasoena edo euskara taldeena. Nire jarduna moztu nahi zuten»

Pilare non, D eredu han.

Ba bai. Esan zidaten ohitura zutela ikasturtea hasi aurretik gurasoekin biltzekoa. Barakaldoko materiala eraman nuen, gurasoek ikus zezaten. Bilera horretan hurrekin marrazkiak egin genituen, txokoak antolatu, eta bakoitzaren argazkiak ipini nituen. Gurasoak zoratu egin ziren, poz-pozik. Gero esan nien: «Nik arazo bat daukat. Maila bakoitzean material asko behar dugu, eta ipuinen fotokopiak kolorerik gabe ditugu. Ni pozik nengoke zuetako bakoitzak koloreztatuko balu baten bat». Astebetara material guztia koloreztatuta itzuli zidaten gurasoek. Oso pozik egon nintzen han, oso ondo ulertzen genuen elkar.

Barakaldoko zure lankide eta lagunak ez zeuden hain pozik.

Oso haserre zeuden, nire lankideak eta baita Barakaldoko jendea ere. Badakit Ezkerraldeko irakasleek eta gurasoek bilerak egin zituztela, eta erabaki zutela nire postua ez zela beteko; plaza hori hutsik geratuko zela. Eta protestan hasi ziren.

Barakaldoko postua betetzeko deialdia egin zuen Hezkuntza Ordezkaritzak, eta, normala denez, jendea apuntatzen hasi zen. Baina hutsik geratzea lortu zuten. Ez dakit zehazki nola. Eskutitz hauek [mahai gainean daude] zerikusia izango zuten.

Ezkerraldeko irakasleek sinatutako gutunak hala dio: «Bizkaian, Euskara koordinatzaileen historia osoan haxe da koordinatzaile bat bere lanetik kanporatzen duten lehen aldia. Hona kanporatze honen zergatia: koordinatzaile honen garaian Barakaldon Bizkaiko beste eskualdeetan baino euskal eredu (B ereduak batez ere) gehiago zabaldu izana. Beraz, Barakaldon gaur egun, A eredu hutsa duten eskolak salbuespen direla esan daiteke. Horra, ba, koordinatzaile honen errua: gurasoen eskabideen arabera, euskal ereduak bultzatzea...!». Azpimarratuta ditu Pilarek beste hainbat esaldi: «Lanpostu hauek irailean nola nahi, isilean eta maltzurkeriaz betetzen ez dugu utziko».

Orrialdea pasa, eta Bizkaiko Euskara Koordinatzaile Taldeak sinatutako gutuna dago, «Berrikuntza Pedagogiko-ko Zuzendari Orokor Andre Txit Argiari» zuzendutakoa. «Lehiaketako kandidatu bakoitzak lorturiko puntuazioaren arabera, somatu izan dugu euskaldunizazio teknikari zenbait lanpostu, Pilare Baraiazarrek duena baino puntuazio txikiagoz izan direla adjudikatuak. [...] Faktore hauek kontutan izanik eta ustezko ezegokitasun profesionalak, edo gutxieneko puntuazioak Pilare Baraiazarra Euskara koordinatzaile taldetik kanporatua izateko benetazko arrazoiak ez diruditez, berauek zeintzuk izan diren izan dadila argitua eskatzen dizugu, Pilareren ohore eta taldekideon aurretiko traiectoria profesionala orbainik gabe gelditzearen mesedean».

Bazenekien zure lanpostua hutsik geratzeko lanean ari zirela?

Jakin, jakin, ez. Ez nekien lanpostura inor aurkeztu zenik ere. Beti esaten zidaten hutsunea bete gabe zegoela. Santutxun nengoen ni, eta kitto. Baina bai, lortu zuten lanpostu hori hutsik geratzea.

Horregatik eskatu zizun administrazioak Barakaldora bueltatzea? Nolatan?

Zuzendari aldaketa egon zen Barakaldoko PATen, eta zuzendari horrek esan zidan itzuli behar nuela. Hori esan zidan Bilbon, Correosen topo egin nuen egun batean. Nik ezetz esan nion, aurpegia behar zela gero hori horrela esateko: ez nuela erabaki nik alde egitea, eta ez nuela itzultzea erabakiko. Egia esan, pasatakoak pasata, oso gustura nengoen Santutxun, eta ez nengoen itzultzeko gogoz.

Zergatik nahi zuen zu Barakaldora itzultzea?

Jendeak *lata* ematen ziolako: non dago Pilare? Zergatik leku guztietan euskara teknikaria dute eta guk ez?... Apropos egiten zuten hori, *lata* eman. Dirudienez, baten bat ere joan zen lanpostu hori betetzera, baina lankideak-eta enteratu

zirenean, esan zioten bera ez zela izango euren euskara teknikaria, eta alde egiteko.

Hori ikusita beharbada zuzendariak eta Ordezkaritzak erabaki zuten horrela ezin zela segi.

Nola jaso zenuen itzultzeko agindua?

Zuzendariarekin Correosen egon eta gero, egun batean, irakasle bat etorri zen Santutxuko ikasgelara esanez Ordezkaritzara joan behar nuela, bera zelako nire ordezkoa. Ezetz esan nion, abisu ofizialik gabe ez nintzela inora joango, eta Ordezkaritzara itzuli behar izan zuen, nire mezuarekin.

Egun bat pasa, eta ikuskari-buruak deitu zidan esateko hurrengo egunean Barakaldoko PATen egon behar nuela. Zergatik galdetu nionean, «agindu bat delako», bota zidan.

Santutxuko lankideei komentatu nien esan zidatena, ea zer egin nezakeen pentsatzeko, baina ez nuen beste erremediorik izan: Barakaldora joan beharko nuela ikusi genuen, eta horregatik itzuli nintzen Barakaldoko postura, 1989 bukaeran.

GAIXOTZERAINO

Barakaldora itzuli eta gutxira etorri zen Fernando Buesa Jaurlearitzako Hezkuntza sailburuaren (1991-1994) hezkuntza erreforma. Ez zen xamurra izan, esan duzunez.

Irakaskuntzan berrikuntza hark aldaketa handiak ekarri zizkigun: esaterako, PATak berrantolatu zituzten, euskararen kontra egiteko. Garbi daukat aldaketa horiek guztiak estrategia bat izan zirela. Sasoi horretan ikusi genuen zein fatxak ziren.

Zuen zerbitzuen berrantolaketa nolakoa izan zen?

Nolabait, euskara koordinatzaile izateari utzi genion, eta hezkuntzako edozer gauzetarako aholkulariak bihurtu gintuzten. Aldaketa hori egiteko, lege bat atera zuten buletinean, eta indarrean sartu zen. Horrek esan nahi zuen, beste zer edo zer

egitea agintzen baziguten, euskara gaiak utzi eta esaten ziguten hori egin behar genuela. Eta halaxe egin behar izan genuen.

Lege horrek hori esaten zuen?

Ez, ez zen garbi esaten ezin genuela euskararen aldeko lanik egin; baina, gero, horrela izan zen, bestelako lanak ere agintzen zizkigutelako. Oso gaizki pasa genuen denok, ez genuelako gure lana egiteko modurik.

Zertan jardun behar izaten zenuten?

Erdarazko mintegiak ematen ipini gintuzten, esaterako, gure eguneroko lan guztiak baztertuta. Gogoratzen naiz, aldaketa martxan jarri eta segidan, mintegi bat egitea tokatu zitzaidala Sestaoko Bigarren Hezkuntzako Institutu erraldoi batean, erdaraz. Hezkuntzak egin zituen berrikuntza horien inguruko saio batzuk eman behar nizkien irakasleei. Gehienak erdaldu-nak ziren, baina, hala ere, mintegiaren sarreran adierazi nien ez nuela nik hor egon behar: denek denetarako behar genuela esan zigutela Hezkuntzatik, baina nire espezializazioa hizkuntzak zirela, eta bestelakoetan aritu beharko nukeela, ez euren aurrean mintegi hori ematen. Hori esan eta mintegia eman nien, noski. Nik uste nahiko pozik atera zirela.

Halako zenbat egin behar izan nituen gero, mintegi asko sortu zizkigutelako, nahita.

«Euskara koordinatzaile izateari utzi genion, eta hezkuntzako edozer gauzetarako aholkulariak bihurtu gintuzten. Erdarazko mintegiak ematen ipini gintuzten, esaterako, gure eguneroko lan guztiak baztertuta»

Lanez lepo, euskararen aldeko lana baztertu behar izan zenuen, beraz.

Bai. Gaixotu eta dena egin nintzen, kontzientziak beste lan batzuk egin behar nituela agintzen zidalako, eta ez nintzelako

ari horiek egiten. Halako barne borroka bat neukan: «Nik euskara baztertu? Eta hauek dioten bidetik jo?». PATeko asko ginen horrela, min horrekin.

Hain txarto eraman nuen, estresa ere izan nuela. Behin, mintegi bat ordenagailuan prestatzen ari nintzela, konturatu nintzen begi batetik ez nuela ezer ere ikusten. Kanpora joan nintzen, erdi mareatuta. Lankideak zerbait igarri zidan, eta Gurutzetara eraman ninduten. Bihotzeko baten zantzuak izan nituela esan zidan medikuak, eta hantxe eduki ninduten. Sintoma arraroak izan nituelako ingresatu behar izan ninduten, azkenean. Karpetak eta guzti joan nintzen ospitalera, arratsaldean mintegia nulako, baina egun pare bat eman nuen han. Azkenean, medikuak esan zidan estresarengatik izango zela. Ze, hainbeste txorakeria... Oso txarto tratatua sentitu nintzen.

Zuen zerbitzuguneez gain, Buesaren hezkuntza erreformak eskolen publikazioa ekarri zuen, eta liskar asko piztu ziren eskoletan. Giro horrek ez zizun lagunduko.

Eskoletako euskararekiko harremanean eragin zuen horrek. Lehen aipatu ditugun eztabaidez gain, atzerakada handia ekarri zuen, gauza askotan: garbi ikusi zen administrazioari ez zitzaiola euskara batere inporta. Irakasleen lan ohiturak ere aldatzea ekarri zuen –militante izateari utzi zioten askok–, eta gurasoen jarrera apurka aldatu zen. Euskararen aldeko borroka apaltzea ekarri zuen.

Zuzendariekin ere azpijokoan aritu ziren administrazioak. Oso efektiboak izan ziren. Euskaltzaleak ez ziren irakasleak aukeratzen zituzten zuzendari izateko, eta, soldata igoerak-eta eskainiz, postu horietan jartzea lortzen zuten. Eskolan bertan euskararen aldeko joera moztea lortzen zuten horrela.

Oso gaizki sentitu ginen garai horretan, harik eta euskara zerbitzua gure ingurura etorri eta Berritzegune bezala lanean hasi ginen arte.

Barakaldoren kasuan, *Casa del Pueblo* asko zabaldu ziren garai horretan, eta hori ere estrategia horren erabakia izan zela ondorioztatu zenuten.

Poliki-poliki sortu ziren, gu konturatu gabe. Udaletik laguntzak jasotzen zituzten, eta horrek aldaketa ekarri zuela konturatu ginen. Lehenago, erdaldunak izan arren, asko oso euskaltzaleak ziren, eta euskaldunekin elkartzen ziren mendira joateko, bazkariak egiteko... Bat-batean, gutxinaka apaltzen joan zen hori: galiziarrek galiziarrekin, burgostarrak Burgosko etxera... Normala ere bada, kanpoan zaude-nean zuk ere hori egin nahi duzu. Baina, euskararen aldetik, elkarrekin aritzearen joera hori gutxitzen ikusi genuen urte bi edo hirutan. Ezin dugu esan estrategia zehatz batengatik sustatu zituztela halako etxeak, ez daukagu hori zuzenean frogatzerik, baina gure bileretan aztertu genuen beherakada hori, eta ikusi genuen halako elkarteen igoerei lotuta zegoela.

Zure PATeko lanarekin aski ez, eta beste hainbat taldetan militatzen jarraitu zenuen.

Barakaldoko elkarteekin lan asko egin dut, euskara eskolan emanda ez delako nahikoa jendea euskalduntzeko. Aisialdian euskaraz egin behar dute haur eta gazteek, eta eskaintza hori sortzeko lan asko egin dute Barakaldoko hainbat taldek. Irakasle euskaldunei ere laguntzeko mintegiak eta aldizkaria baliatzen genuen, *Arbela*. Eta AEKrekin zenbat lan... Horrela hamaika kontutan.

EKB Euskal Kulturaren Batzordeko kide ere bazinen.

Eskatuko zidaten-edo, eta hilabete behin joaten ginen Donostiako bileretara. Euskara eta kultura, horiek izaten ziren erabiltzen genituen gaiak, eta nik batez ere irakaskuntzari lotutako kezak eramaten nituen. Esaterako, ikuskari erdaltzaleena, eredu arteko eztabaidak, ikastolen publikazioa..., halakoak eztabaidatzen eta lantzen genituen. 15-20 lagun izaten ginen bilera horietan: Paulo Agirrebaltzategi –funtsezko

pertsona-, Txillardegi, Gandiaga, Xabier Alegria, Agustina Pontesta... Ez ditut denak gogoan, jende asko, Euskal Herri guztikoak, eta hori oso onuragarria zen, besteen kezka ez zuten eta asko ikasten genuelako.

LAB sindikatuan ere ibilitakoa zara.

Barakaldon sindikatua sortu zenean, jende premia zutelako, bertako LABeko ordezkaria izan nintzen. Bilerak egiten

«Barakaldon sindikatua sortu zenean, jende premia zutelako, bertako LABeko ordezkaria izan nintzen. Bilerak egiten genituen Bilbon eta inoiz Gasteizen, hezkuntzari lotuta beti»

genituen Bilbon eta inoiz Gasteizen, hezkuntzari lotuta beti. Baina gero utzi nuen, ez zegoelako nire beharrik, eta lan asko nuelako. Antzekoa gertatu zitzaidan *Hik Hasi* aldizkariarekin. Nik betidanik nuen kezka hori: ez zegoela euskarazko hezkuntzari buruzko aldizkaririk, eta beharrezkoa zela. Horrelako zer edo zer komentatu nuen behin sindika-

tuan, eta, handik gutxira, telefono dei bat jaso nuen esanez euskarazko aldizkari bat sortzeko bilera zegoela, eta joan nintzen. Joxe Mari Auzmendi, Uri Ruiz eta Kristina Mardaras zeuden. Horiek ere antzeko premia sentitzen zuten, eta hiru-lau bilera egingo genituen. Ni, baina, oso-oso lanpetuta nengoen garai horretan, eta ezinezkoa zitzaidan bileretara joatea. Horregatik esan nien ados nengoela, baina ezingo nuela zuzenean jarraitu. Proposamenak egiten-eta bai, baina ez besterik. Hori bai, aldizkaria ikusi nuenean, a ze poza... Jende zoragarria dago hor.

Hala ere, hiztegitzan aritzeko tartea topatzea lortu zenuen. Zure neba Luis Baraiazarra Bostak Bat taldeko kidea da, eta horiekin aritu zara hiztegitza lanetan.

Taldearen lehen hiztegitik hasi nintzen eurekin lanean. Neuri denbora asko kendu gabe, lantokiko tartea aprobetxatzen.

Hasieran nahiko pasiboa zen nire hartu-eman, eskatzen zidatena. Gero, hiztegia egin ahal izateko, galdetu ziguten ea zein ziren hezkuntzako nozio espezifikoak. Erramun Osa, Iñaki de Nicolas eta hirurok prestatu genuen nozio orokorren eta espezifikoen inguruko txostena, hiztegegileei aurkezteko. Eta Iñakik ordenagailuarekin praktika handia zuenez, biok egin genuen lan hori, ikasleentzako hiztegegintzarako. Orduak eta orduak egin genituen ordenagailuan.

Bukatu genuenean, inprentan utzi genuen lan hori zuen disketea. Baina, ez sinistekoa, ez ziguten itzuli; disketea euren ez zutela esaten ziguten. Lapurreta ederra egin ziguten inprentakoek. Azkenean paperean ere bagenuen kopia moduko bat, eta horrekin egin ahal izan genuen. Baina lapurreta hori eta gero, erabaki nuen ez nuela berriro parte hartuko. Haserrealdiagatik. Hala ere, gerora ere lagundu izan dut beste hiztegiak osatzen; baina lagundu, besterik ez.

Lanetik kanpo beti euskarari eta hezkuntzari lotuta aritu zara, hamaika kontutan: EKBN, sindikatuan, hiztegegintzan...

Bai. BIGE Bizkaiko Ikastoletako Gurasoen Elkartekoekin ere zenbat lan. Jardunaldiak antolatzen batzuetan, besteetan hitzaldiak ematen...

Zenbat hitzaldi eman ote dituzu, Pilare?

Hainbeste ere ez, ni ez naizelako oso 'ofiziala'. Gurasoei eta halakoei bai, baina ez hitzaldi elegante horiek. Deitzen bazidaten, joaten nintzen, hori bai, baina askotan ere ezetz esan dut, lankideak ez zapaltzeko. Deitzen ninduten lekuan nire moduko lanpostu edo zerbitzua bazegoen, esaten nuen hango arduradunak eman behar zuela hitzaldia. Ez nituen bertakoak konpromisoan jarri nahi. Baina arduradunek euren deitzen bazidaten, orduan bai, joaten nintzen.

Eta zenbat hitzaldi eta mintegi antolatu ote dituzu zuk?

Buf... Ez dakit zenbat. Erretiratu arte antolatu ditut, prestakuntza modura oso inportanteak direlako. Klase akademikoetatik

kanpoko ekimenak ere bai, euskararen normalkuntzarako eraginkorragoak direlako. Ea, ez dakit, hainbeste...

Kafe kikara mahai gainean utzi du Pilarek, zerrenda eskuekin kateatzeko: ikasleentzako Azpeitiko Antzerki Topaketak, Urruzuno literatur lehiaketa, kantagintza, barnetegiak... eta, tartean, baita bertsoaritza ere. «Berritzeguneko irakasleei bertsoaritzari buruzko hitzaldiak antolatzen nizkien. Batzuek ez zuten tutik ere ulertzen. Eta ikasleekin sentsibilizazioa lantzeko, Xabi Payarekin joaten nintzen eskolaz eskola. Raparekin-eta nahasten zuen berak bertsoaritza, eta ikasleek asko gozaten zuten». Halako ekimenak euskararentzat ezinbestekoak direla dio Pilarek, NOLEGA programaren defen-datzaile sutsua dela horregatik. Barakaldon bertatik bertara konprobatu ahal izan duelako berak hori: euskararen aldeko ekimenei ikasgelak gainditu behar dituzte.

90eko hamarkadako talkek utzitako zapora garratza gozatzeko balio izan dizute halako ekimenei.

Bai, baina bereziki ilusioa berriro berpizten hasi zitzaidan Barakaldoko euskara zerbitzukoak gugana gerturatzen hasi zirenean, euskararen normalkuntzarako proiektua sortu zutenean. Gure babesle bihurtu ziren Mikel Zalbide, Iñaki Artola, Santos Izagirre... Proiektu horrek esaten zuen euskararen normalkuntzak ez duela irakasleen borondatearen araberakoa izan behar –horrela zelako–, baizik eta ikastetxeak berak onartu behar zuela proiektu moduan. Horrek esan nahi zuen zuzendariak ere inplikatu behar zuela euskararen normalizazioan, baita klaustroak ere. Eta normalkuntza teknikariak sortu ziren eskoletan, postu batzuk liberatuta. Jende asko ibili ginen horretan, jende zoragarria.

Proiektu horrekin piztu zinen zu berriro.

Bai, ikastetxe osoa hartzen zuelako kontuan, eta banan-banan konbentzitu behar zirelako ikastetxeak. Eskola publikoetan

erraz sortu genituen taldeak, baina kostata aritu behar izan genuen pribatuetan. Ikastola batzuetan ere kosta zitzaigun, uste zutelako egiten zutenarekin nahikoa zela. Eta egia da asko egiten zutela, baina bazegoen zer egina, hala ere. Horretarako diru laguntza batzuk sortu ziren, pertsona batzuk liberatu ahal izateko, eta horrek ere lagundu zuen.

2008an erretiratu aurretik, ia Barakaldoko ikastetxe guztiak programa horretan sartzea lortu nuen: La Salle, Salesianos, Alazne kooperatiba, Trueba... Ikastetxe bat geratu zitzaidan normalizazio planik gabe: Paules ikastetxea. Beste guztietan bai, lortu nuen.

2020-2021 ikasturtean Barakaldon lehen aldiz D ereduaren eskaria gailendu zaie beste ereduenei. Lan horren emaitza da?

Egindako lanaren emaitza dela uste dut, bai. Erleen moduan egin behar da lan, emaitza horiek jasotzeko. Batzuk erreginak izango dira, eta besteak langileak. Abaraska bat hemen, beste bat han. Horrela egin behar da lan euskararen alde.

ERRETIROAREN TALAIATIK

Erretiroaren aitzakian egindako omenaldietako argazkiak barreiatuta ditu mantel zuriaren gainean, kikarak eta postreak alboratuta. «Ez dakizu zenbat ospakizun, ene! Barakaldon hiru, Bilbon ere bai, Lantziegon beste bat...». Otordu garaian, mahaiaren bueltan ageri da Pilare argazkietako batzuetan. Besteetan lagunen bertsoak entzuten, oroigarriak jasotzen, eskaintzen ari zaien aureskuari so... «Nik esaten nien ez nuela nahi ez jaialdirik ez ezer. Lagun bati horixe esan nion behin, eta, autoa eta dena geldituta, ez dakizu nolako sermoi ederra eman zidan. Horregatik pentsatu nuen ezetz esatea itsusia izango zela».

Erretiroa hartuz geroztik, zertan dabil Pilare?

Nire moduan lanean jarraitu arren, familiari eman diot lehentasuna. Tailerrak emateko eskatzen didate, hitzaldiak... Baina Meñakako nebein dut konpromisoa. Ahizpa txikiena alboan bizi da, nik baino hobeto eramaten ditu. Baina, esaterako, ospitalean ingresatuta badaude, Bilbon ni nagoenez, ba ni joaten naiz. Astean behin ere joaten naiz baserrira, la-guntzera, nebak zaintzera.

Eta nork zaintzen du Pilare?

Ez dut behar, ondo nago. Zahartu naizela badakit, gauzak geldoago egiten ditudala, baina... ez. Lagun batek esan zidan inor zaintzeko moduan egotea poz handia dela, eta uste dut hori horrela dela.

Gainera, aholku moduan esaten dizut: nik ikusi ditut pertsona batzuk euren buruari begira beti, eta denak gaixotu egin dira. Horregatik, uste dut, beharbada zure buruari apur bat begiratu bai, baina kanpora ere begira egon behar dela.

Eta kanpora begira bazaude, nolako etorkizuna ikusten diozu euskaltzaletasunari?

«Jendeak argi eduki behar du euskara ez dagoela salbatuta, eta euskara salbatu behar dela. Zertan atzera egin dugun ere ondo aztertu behar dugu, eta aurrera egiteko progresio politikoak hitzartu»

Militantzia beharrezkoa izango da beti euskal kulturari eta euskararen arloan, eta badaude motiboak baikorra izateko. Baina, bestetik, militantziarako baldintzak falta direla esango nuke. Gure garaian ondo ikusia zegoen ikastolak sortzen aritzea, AEKren inguruan lan egitea, Iparraldearekin harremanak edukitzeko saioak egitea... Dena behar gurela pentsatzen genuen, egoterra etsigarria zelako, eta hori

egiten genuen. Orain are inportanteagoa da hori, globalizazio handi honetan euskara ez dadin atzean geratu. Beste moduko militantzia bat beharko da: sare sozialetan, komunikabideetan... Ez dakit, baina horretarako jendeari jaten eman behar zaio; berez idealistak diren pertsonak lagundu behar dira, eta uste dut hori egitea gure garaian baino zailagoa dela.

Eta nola sustatu liteke euskaltzaletasun berri hori?

Jendeak argi eduki behar du euskara ez dagoela salbatuta, eta euskara salbatu behar dela. Erdarek dena dute eginda, erdarez blai gaude. Jendea hezi behar da horregatik, eskolatik hasita, irratian, Interneten... Ze berez ez da etorriko. Zertan atzera egin dugun ere ondo aztertu behar dugu, eta aurrera egiteko progresio politikoak hitzartu. EKB bezalako taldeak ere behar ditugu.

Irakasleek lan handia egin badezakete bide horretan, nolako irakasleak beharko ditugu?

Irakasleak errebeldea izan behar du. Egin behar den hori egin beharko du, bai, baina, gero, euskaltzalea izan behar du. Eta horretarako aktibo egon beharko du, euskararen mugimenduari eta metodologia berrienei adi. Aldaketak etengabekoak direlako. Bestela, kalte handia egingo dio euskarari eta bere ikasleei.

Ezkerraldean eta Barakaldon, nola ikusten duzu etorkizuna?

Ondo doa. Baina gurasoek uste dute euskara salbatuta dagoela, eta irakasle batzuek ere hori pentsatzen dute. Formalki euskalduna izango da Barakaldo, baina erabilerak kezkatzen nau.

Hala ere, esango nuke Meatzaldea pizten ari dela, eta hurrengo urteetan eredugarriak izango diren gauza asko eman go dizkigula. Baita Barakaldok ere. Ikusiko duzu. Badago etorkizuna. 🍷

Oharrak

1. Euskal kultura eta alfabetizazioa sustatzeko 60ko hamarkadan sortutako taldeak dira. Euskal Herriko hainbat gunetan sortu ziren, unibertsitate giroan, batik bat. Agintari frankistek EKTen zenbait hitzaldi eta ikastaro debekatu zituzten.
2. Espainiako Estatuko hizkuntza koofizialak irakaskuntzan arautzeko 1049/1979 Errege Dekretua argitaratu zuen 1979an Madrilgo gobernuak. Oraindik Jaurlearitzak ez zuen bere gain hezkuntzako eskumena, baina dekretu horrek ikastetxeetan euskara erabiltzen hastea ahalbidetzen zuen.

GAIAK

71 Ihesa zilegi balitz: Xabier Lete
eta trantsizioko poetikak
Alexander Gurrutxaga Muxika

Ihesa zilegi balitz: Xabier Lete eta trantsizioko poetikak

Alexander Gurrutxaga Muxika

UPV/EHUko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika
Saileko irakaslea

Tengo que salir de esto, tengo que salir de aquí.
Yoyes (1979)

Euskaldunon irudimen kolektiboan iltzatuta geratu diren Xabier Leteren (1944-2010) esapide askoren artean, Mikel Laboak musikatu zuen hura izan liteke adierazgarrietako bat.¹ Esklamazio bat zen, *desideratum* bat: «ihes betea zilegi balitz». Aldarriak baiez-tapena zeraman berarekin: ez dago ihes egiterik. Leteren 1981eko *Urrats desbideratuak* liburuan dago poema, eta aro historiko jakin bateko bizipen pertsonal nahiz kolektibo gordinen isla poetikotzat irakur daiteke.

Hurrengo lerroetan, ihes egiteko nahi eta ezin hartaz hitz egingo dugu, iheserako beharra eragiten zuen egoera sozio-politikoaz, ihes egin nahi lukeenaren etsipenaz, eta etsipen horren irudikapen poetikoaz.

Lehendabizi, Hego Euskal Herrian eta Espainian trantsizio deitu ohi denaren (1975-1982) garaiko zenbait gertaera eta jokabide hartuko ditugu gogoan, hala Xabier Leteren ibilbidea markatu zutenak nola dimentsio sozial zabala hartu zutenak. Gero, eremu poetikora egingo dugu jauzi, eta,

lhesa zilegi balitz: Xabier Lete eta trantsizioko poetikak

horretarako, Leteren *Urrats desbideratuak* liburua hartuko dugu erreferentzia nagusi gisa.

Ikonoen gailurra...

1965ean hasi zen Xabier Lete plaza publikoan lekua hartzen. Hogei urteko gaztea zen, eta, indartsu, lau enborri atera zizkien ezpalak.

Batetik, antzerki munduan ibili zen, gidoilari eta antzezle, Oiartzungo Lartaun eta Intxixu taldeetan nagusiki –Eugenio Arozena, Adolfo Leibar eta abarrekin–, baina baita Donostiako Jarraikoeekin ere. Talde haiek, besteak beste, Gabriel Arestiren *Justizia txistulari* (1965) eta Albert Camusen *Les justes* (1967) antzezlanak eskaini zituzten. Bestetik, 1965ean *Zeruko Argia*-n kolaboratzen hasi zen Lete, Iñaki Beobiderekirekin eta Ramon Saizarbitoriarekin partekatzen zuen *Gazte naiz* atalean.

Hasiera hartan antzerkian eta prentsan oso aktiboa izan bazen ere, jakina denez, beste bi esparrutan finkatuko zen Lete berehala: poesian eta kantagintzan. 1965ean eta 1966an Agora elkarteak antolatzen zuen Gipuzkoa Sarira poemak aurkeztu zituen, eta, saria irabazi ondoren, lehen liburua argitaratu ahal izan zuen 1968an: *Egunetik egunera orduen gurpilean*. 1974an etorri zen bigarren poemategia. Kantagintzari dagokionez, berriz, antzeko prozesua izan zuen. Badakigu lehen kantuak osatzen 60ko hamarkadaren erdi aldera hasi zela, eta 1966an abestu zuen lehenbiziko aldiz oholtza gainetik, Ez Dok Amairuren jaialdi baten testuinguruan. 1968an kaleratu zuen lehen disko txikia, eta, hurrengo hamar urteetan, beste hainbat disko argitaratu zituen.

Lan esparru horiei guztiei esker, suziriak zerura abiada bizian nola, hala igo zen Leteren sona euskal kulturgingintzan. Hamahiru urtez, haren figura hazi eta hazi egin zen. Itzal handiko artista bilakatu zen, eta hartzaileek ezaugarri bereziko sortzailatzat hartu zuten. Berehala nabarmendu zen kantarien artean poeta gisa: «euskal kantaren poeta

handia», deitu zion Manuel Domínguezek 1975ean *Ozono* aldizkarian (González Lucinik jaso, 2006: 276); Bernardo Atxagak (1996: 12-13), berriz, haren letrek sortu zioten lilura aipatu izan du. Adierazpide poetiko horrek, kontzertuetan baliatzen zuen erretorikak eta oro har zuen ahozkotasan eraginkorrek Leteren figura aski markatua izatea eragin zuten. Gainera, ikur hori desberdin bihurtzen zuen elementu nabarmena zen diziplinartekotasuna. Esan bezala, poesiaz eta kantagintzaz gain, antzerkia eta prentsa ere ibiliak zituen. Diziplinartekotasun horren argitan uler daiteke Koldo Izagirrereren sintesia (2017: 301): Lete izan zen «gure kultura modernitatean sartuko zuen belaunaldiko ikur osatuena 1960-1970etan».

Adierazpide poetikoak,
kontzertuetan baliatzen
zuen erretorikak eta oro
har zuen ahozkotasan
eraginkorrek Leteren
figura aski markatua
izatea eragin zuten

Hamahiru urte, esan dugu, 1965etik 1978ra doazenak. Hamahiru urte, zeinetan ekoizpen kultural oparo bezain eragin handikoa osatu zuen Letek –eta beste batzuek, jakina–. Hamahiru urte giltzarri, euskal kulturgintzaren berpizkundea gorpuztu zutenak.

Eta, orduan, 1978an, arrakala handi bat azaleratu zen bai Leterengan, baita beste sortzaile askorengan ere.

...eta gainbehera

Franco hil eta hurrengo urteak txanpiñoien aro (Larrinaga 2016) gisa izendatu izan dira euskal musikagintzaren arloan. Izan ere, goizetik gauera, kantari ugari azaldu zen oholtzan, gitarra batekin armatu eta lema errazak kantu sinpleen bidez eskaintzen. Aldi hartan, jaialdien ezaugarriak aldatuz joan ziren. Entzuleria beroa zen orain, parte hartzen zuen, oihu egiten zuen, banderak astindu... Ohikoa bihurtu zen kantatzen hasterako aldarriak entzutea, eta, batzuetan, baita

kantariak euren lanean ari zirenean ere. Honela laburbildu du Jon Eskisabelek kantaldi haietako giroa, Badok atarian:

Kantariak bihurtu ziren esperantza eta amets guztien bozera-maile, politikarien ordeiz. Eta herriak jarraitu zien. 'Jaialdiak' ugaritu egin ziren, batez ere Gipuzkoan eta Bizkaian, herrietako frontoiak eta plazak milaka lagunez eta ikurrinez betetzen hasi ziren, eta ordura arteko kantu jaialdietan ezagutzen ez zen osagai berri bat agertu zen: entzuleen parte-hartzea. Emozioa, herriaren ilusioekiko lotura eta bultzatzen ari diren aldaketetan parte izateko sentimendua azaleratuko dituzte kantaldiok. (Aurtentzek jasoa, 2013: 335)

Jaialdi haiek giro politikoak blaitzen zituen. Joxanton Artzek azaldu zuen bezala, hitzarmen inplizitu moduko bat zegoen kantarien eta publikoaren artean, eta jendea ikurrinak ikustera eta «Gora Euskadi askatuta» bezalakoak oihukatzen joaten zen kantaldietara (Oronozek jasoa, 2000: 75). Egoera hori jasan ezinik, Letek oholztatik jaistea erabaki zuen. Ez zuen diskorik argitaratuko 1991 arte. Kantagintza utzi zuen unea deskribatzeko Letek erabili zuen esaldi ezagunak ikono haien nekearen neurria ematen du: «Aguanta zaitzatela zeuen ama santisimak!» (2006: 182). Eta ez zen izan, inork pentsa lezakeen bezala, kantariak ideia haiekin bat ez zetozelako, egon baitzitezkeen ados, baizik artistaren autonomia kolokan zegoelako. Sistema politikoak sistema kulturala zamatu zuen; hainbeste, ezen, bigarrenaren autonomia kolokan geratuta, sortzaile askok erabaki zuten lokarria etetea.

Letek bezala, Antton Valverdek eta Lourdes Iriondok ere oholntza utzi zuten. Lehenak, tarte baterako –1986an kaleratu zuen *Urte-giroak ene begian* diskoa–; bigarrenak, Hernaniko Galarreta frontoian eskainitako jaialdi baten ondoren, betiko. Mikel Laboa ere oholntzatik jaitsi zen denboraldi batez. «1978. urterako –dio Gontzal Agotek, Badok atariko testuan– Laboa nekatuta sentitu zen, eta, garai hartako beste abeslari askoren moduan, etenaldia egitea erabaki zuen. 1984. urte arte iraun zuen atsedendialdiak». Itzulerarekin, *lekeitioen* munduan murgildu zen; Iñaki Salvador bidelagun harturik, jazz eraginak

eta bestelakoak egin zituen bere, hala nola ikusten den 6 diskoan (1985). Benito Lertxundik erromantizismoaren bi-deetan sakondu zuen, paisaia ebokatueta eta antzinako garaietara eginez –*Altabizkarko kantua* edo *Orreaga bezalako kantuak dira adibide* (1981)–. Maite Idirin, *Ahizpatasuna* (1979) diskoaren ondoren, lirika kultuan murgildu zen, eta ez zuen diskorik kaleratu 1988 arte; *Euskal kamerata* etorri zen orduan, Aita Donostiaren eta Jesus Guridiren piezekin osatua nagusiki.

Hori guztia, eta gehitu litezke izen gehiago ere, kantagintza-ren alorrean. Poesiaren esparruan, berriz, Ez Dok Amairuko beste bi poeta ezagunek, Joxanton Artzek eta Jose Angel Irigarayk, zortzina urte pasa zituzten libururik argitara eman gabe. *Bide bazterrean hi eta ni kantari* (1979) liburuak Artzeren lehen aroa itxi zuen (Ornoz 2012), eta *Ortzia lorez, lurra izarrez* (1987) hizkera berrietarako urratsa izan zen. Beste horrenbeste esan liteke Irigarayren kasuan: *Kondairaren ihauterian* (1978) liburuari *Bizi minaren olerkian* (1986) jarraitu zitzaion. Bi poeten kasuan, hizkera liriko berrituen bilaketa nabari da trantsizioko geldialdiaren ondoren.

Errepasoa oso azaletik egin badugu ere, nahikoa izan daiteke iradokitzeke zer-nolako gainbehera eta transformazioa espermentatu zituzten, diktadorea hil eta hurrengo urteetan, haren azken bizi urteetan euskal kulturgintza erdigunean zeuden ikonoek. 1975 arte euskal gizarte «hutsetik esperantzara» igaro baldin bazen –Joan Mari Irigoien lehen liburuaren izena dut gogoan–, trantsizioko urteetan abiadura berean edo azkarrago erori zen itxaropenetik desengainura.

Gainbehera hori Espainian ere bizi izan zuten, eta lotua egon zen bizitako konbultsio politiko eta sozialari. Ez luza-tzearen, aipa dezagun soilik José Antonio Labordeta Aragoiko kantari eta poetaren kasua –zeinak, dakigunez, behin bederen eman zuen jaialdi bat, Nafarroan, La Bullonerarekin eta Valverde eta Leterekin–. Bada, txanpiñoien aroz ari zela, Labordetaren musikari izandako Iñaki Fernándezek adierazi zuen ez zela hura «akorde sotilantzako unea» (Carbonellek

jaso, 2012: 224). Eta, Labordetak berak, euskal kantari nagusien ildo bertsutik joz, honako balorazioa eskaini zion 1977an Fernando Baetari: «Denon onerako, kantaldiak ez du gehiago izan behar masarentzako ekitaldi politikoa soilik, eta bestelako ekitaldiei utzi behar die zirkunstantziek eman zioten protagonismoa» (Carbonellek jasoa, *ibid.*: 225).

Gauzak horrela, esan daiteke artista haiek euren publikoari errebelatu zitzaizkiola. Leteren kasuan, baina, elementu bat gehitu zitzaion oholtzatik jaisteari. Kantari izateaz gain, poeta eta pentsalari ere bazela esan dugu, eta, gitarra jotzeari utzi arren, ez zen gertakizun zenbaiten aurrean isildu. Jon Sarasuak *Xabier Lete eta elkarbizitza* mahai-inguruan (Urnieta, 2015-03-23) iradoki zuen bezala, Lete intelektual bat izan zen, jakin baitzuen bere publikoarekiko deserosoa izaten.

Traizio baten anatomia

Beharbada, 1978tik 1983ra bitartean Letek hartutako zenbait erabaki posizio hartze etiko baten pauso klabe gisa uler daitezke. Gaia konplexua da eta azterketa sakonagoak merezi ditu, baina bihoaz ohar zenbait gogoetarako gonbidapen gisa.²

Lehen mugarrria, aipatu dugun bezala, kantaldietatik urrun-tzeak jarri zuen: publikoaren zati batek eskatzen zuenera makurtu nahi ez, eta, uko egin zion aukera horretara erren-

ditzeari. Bigarren mugimendu garrantzitsua *Muga* aldizkarian (1979-1986) kolaboratzen hastea izan zen.³ Izen euskaldunaren atzean, funtsean gaztelaniaz egindako aldizkari bat zegoen. Leteren kasuan, trantsizio garaikoak dira, guk dakigula, bere gaztelaniazko testu bakarrak: batzuk, *Garaia*-n atera zirenak, Franco hil eta berehala; *Muga*-n kale-ratuak beste batzuk, 1979 eta 1981 bitartean. Leteren artxibo

Beharbada, 1978tik
1983ra bitartean Letek
hartutako zenbait
erabaki posizio hartze
etiko baten pauso klabe
gisa uler daitezke

pertsonalak erakutsi digu ohitura zuela gogoeta testuak, testu filosofikoak, euskaraz nahiz gaztelaniaz idazteko; alabaina, orduan soilik egin zuen bidea mota horretako saiakera testuak gaztelaniaz plazaratzeko.

Muga aldizkariko sinadura nagusiak EAJren lerro liberalari atxikiak ziren. Eugenio Ibarzabalek kontatu duenaren arabera (2016: 136), Xabier Arzalluzek proposatu zion eite historikoa izango zuen aldizkari bat martxan jartzea, 20ko hamarkadako *Hermes*-en izpirituari jarraipena emateko asmoz. Federiko Zabala hasi zen zuzendari gisa, eta Ibarzabal koordinazio lanetan. Baina, ziurrenik, eredu etiko eta politiko gisa, Koldo Mitxelenaen figura izan zen *Muga* gehien markatu zuena. Iritzi horretakoa da Idoia Estornes; haren ustez (2013: 421), Mitxelena eta bere kideak benetan saiatu ziren nazionalismoa aldatu eta eztabaidari ate bat zabaltzen. Beharbada, dio Estornesek, *Muga*-k ez zion EAJri etekinik ekarri, baina saiatu zen Euskal Herriari on egiten; mundu abertzaleetik zetorren zenbait jenderen nekea azaleratu zuen, eta, bereziki, autokonplazentziarekiko kritikoko agertu zen.

Muga-ren inguruak eta Donostia aldean mugitzen zen EAJren ildo liberalak trantsizioan hartu zuten posizioak eztabaida zabalagoa behar du –are gehiago 80ko hamarkadako zatiketak eta EAren konfigurazioa aintzat hartzen baditugu–. Lete ez zen EAJkoa, baina Mitxelenarengan eta beste zenbaitengan sakoneko humanismo baten arrastoa aurkitu zuen. Jon Sarasuaren argudioari jarraituz, esan liteke Letek bere bideari eutsi ziola. 1978an Eugenio Ibarzabali esan zion bezala, Lete beti sentitu zen ideologikoki independentea.⁴

Testuinguru kultural, filosofiko eta politiko horretan sortu zen orduko ekintza intelektual azpimarragarrietako bat: *Aún estamos a tiempo* manifestua. Huraxe izan zen Leteren trantsizioko hirugarren mugarria. 1980ko maiatzaren 27an atera zen, eta azpтитuluak argi adierazten zuen sinatzaileen asmoa: «33en manifestua ETAren terrorismoaren aurka». Testua gaztelaniaz atera bazen ere, sinatzaile gehienak ziren inguru abertzale eta euskaltzalekoak –Martin Ugalde,

lekuonatarrak, Jose Maria Satrustegi, Aita Barandiaran, Jesus Altuna, etab.–, eta, beharbada, horrek karga intelektual are handiagoa eman zion keinuari. Xabier Letek ere sinatu zuen, eta, hala, argi geratu zen gaztetatik zekarren indarkeriaren aurkako jarrera. Lerro ideologiko batzuek traizio gisa esplikatu zuten posizio hartze hura, eta HBk herriaren etsai izendatu zuen poeta kantaria. 1980a zen; bi urte geroago, Miarritzeko bileraren ondoren, ETArek ildo politiko-militarra desegin zen. Joseba Zulaikaren hitzetan (2014: 265), Yoyes baino zenbait urte lehenago, milaka militante *traidore* bihurtu ziren gauetik goizera. Antropologoaren arabera, Judasen ebanjelioko dotrina apokrifoa bereganatu zuten: benetan maite banauzu, saldu nazazu.⁵

33en agiriaren edukiari dagokionez, 36ko gerraren eta frankismoaren ondorioz sorturiko bortxa egoera aipatuz hasten da, onartuz badagoela indarkeria mota bat kanpotik etortzen dena Euskal Herriaren gainera. Segidan, baina, bertakoa du aipagai, «hori baita, benetan, arimarik gabeko borrero, gaitzakeriaren estaltzaile zuri edo konplize koldar bihur gaitzakeen bakarra». ETArek bortxa anakronismo hutsa da agiriaren arabera, XIX. mendeko kriminalistak arduratu zituen, baina egun pedanteria hutsez justifikatzen dena. Bortxa horrek atzerapauso argia ekarriko luke, ekintza-errepresioa dinamikan oinarritua, zeinak euskal kulturaren iraupena kolokan jarriko lukeen.

Interesgarria da nola aipatzen duen testuak indarkeriaren erabilera termino patologikoetan. Izan ere, trantsizio garai-ko gertaera orokorrek norbanakoengan izandako ondorioez pentsatzeko aukera ematen du.

Bada jendea –dio testuak– etengabe erakusten dituen sorgortasun morala eta perbertsioa, baita moztasuna ere, eta ezaugarri horiek guztiek susmarazten digute, beharbada, plaga psikosozialen baten menpe eroriak direla.

Are urrunago doa dokumentua, eta drogen presentziak –alkoholak, bereziki– jendearen sentsibilitatean eta razionalitatean duen eragin kaltegarria aipatzen du. Era berean,

«zentzugabekeria olatu» batez mintzo da, lema burugabeetan gorpuzten den uhin batez:

Zenbait eslogan makabroren zakarkeria, ateraldia bailitzan, txalotu eta ospatu egiten da; eta beste hainbeste egiten da ekitaldi kolektiboen kariatara zabaltzen den erretolika iraingarriarekin. Ez dago behar bezalako erantzunik, dela gogogabeziaz edo ahultasunez, dela –eta hau are okerragoa da– beldurak eraginda.

Dokumentuaren oharrok esanguratsuak dira trantsizio garaiko presio soziala eta irakinaldia irudikatzeko, zeinetan Euskal Herriak «neurosi kolektibo» moduko bat bizi zuen, bortxazko *loop* etengabe batean preso, eslogan makabroen bidez zabaltzen zen «plaga psikosozialean». Har dezagun gogoan, 1977an ETAk eragin zituen 12 hildakotik, zifra 64ra igo zela 1978an. Eta hurrengo bi urteetan zenbakiak are gehiago egin zuen gora, 1980an 90eko langa pasatzeraino.

Leteri dagokionez, jakina da bortxaren eragin hori min handiz bizi izan zuela beti. Zenbait urte geroago, bereziki kolpatu zuen Imanol Larzabalen kasuak. *Abestitzak eta poema kantatuak* liburuaren hitzaurrean adierazi zuen bezala (2006: 23-24), «denok buruan dugun ilunabar batean Ordiziara hurbildu zen, eta han izenpetu zuen bere azkena; Imanolen izarra behin betirako itzali zen». Oro har, bortxaz eta beldurrez jositako egoera sozial eta politiko hura oso zaugarria gertatu zitzaion Leteri, are gehiago politika instituzionalean sartzeko erabakia hartu zuenean.

Esan liteke horixe izan zela trantsizioko Leteren laugarren mugimendu klabea: 1983an, Imanol Muruaren bitartekotzarekin, politika instituzionalean sartu zen Gipuzkoako Aldundian. Legealdia beteta, eta Muruak jarrai zezan nahi bazuen ere, Letek utzi egin zuen jardun politikoa.

Gainera, gaitza 1985ean hasi zitzaion manifestatzen, eta hamarkadaren amaieran lehen ospitalizazio larria pairatu zuen. Leteren inguruko pertsonak, gaitza gertutik ikusi eta tratatu zutenek barne, iradokitzen dute politikaren munduak kalte handia egin ziola, hala psikologikoki nola fisikoki. Esan

liteke, beraz, hamarkada horretako jarduera eta langintza publikoa gaitzarekin ordaindu zituela.

Are gehiago: beharbada, galdetu behar genuke zenbat aktibistarengan eta euskaltzalerengan utzi zituzten zauri pertsonalak trantsizioko bizipen soziopolitiko kolektiboek. Josu Chuecak idatzi zuen bezala (1999: 46), «Euskadin diktadura frankistaren aurka gehien borrokatu zuten esparru politikoez etsipenez dastatu zituzten trantsizioaren urrats berriak». Arrazoi zenbait markatzen zituen historiagileak; oroz gain, amnistia gauzatu zenean, onuradun nagusia frankismoa izan zela. Gehitu horri armada eta indar polizialak erabat libratu zirela gutxieneko berrikuspen batetik, eta nazioen eskubi-deak zikiratu zirela. Politika instituzionalaren esparruan ere, abertzaleek galtzaile rola jokatu behar izan zuten. Chuecaren hitzetan (*ibid.*: 51), euskal gizarteak aurrera egin behar izan zuen «krisi ekonomiko larriaren pean, Estatuko indarkeria legala edo zikinaren itzalpean, ETA hizkiak eramaten zituzten erakundeen estrategia gero eta ulertezinagoaren pean».

Egoera horretan, errealtate berriak utopiak irentsi ahala, eta 60 eta 70etako ametsak gainbehera etorri zirelarik, *desengainua* nagusitu zen (Gurrutxaga 2020a: 135-137) eta poesia sozialarena bezalako hizkera poetiko ameskoiek zentzua galdu zuten. Bilakabide historiko eta poetiko horren konstataziotzat hartu daiteke Bernardo Atxagaren *Etiopia* (1978), eta, ildo beretik, trantsizioko zirimola ilunaren gorpuzte poetiko gisa irakurri Xabier Leteren *Urrats desbideratuak* (1981).

Euskal Herria 1980: *lasciate ogni speranza*

1970eko hamarkadaren erditik aurrera, poesia sozialaren uharrak indar gutxi zekarren. Guztiz ilustratzailea da, zentzu horretan, Josu Landak Jokin Apalategiren *Burnitik* (1979) liburuari egin zion kritika. Ideiak albo batera utzita, ildo poetikoari buruzko ohar interesgarri bezain zorrotza egin zuen Landak: izan ere, oro har, «*Harri eta Herri*-ren poetikari eusteari anakroniko eta ezinezkoa» iritzi zion.

Leteren kasuan, kritikak *Urrats desbideratuak* poesia sozialaren esparruan sartu izan badu ere, beharrezkoa da markatzea liburu hori ez dela dagoeneko aurreko hamarkadetako poesia sozialaren enuntziazioan mugitzen. Esperimentalismotik eta ironia zaurgarritik urrundu zen poeta, eta «gaztaro-ko garraztasuna, ironia nahiz umorismo bufoiaren erabilera baztertu zituen» (Otaegi 2011: 31). Mainer Etxanizek (2011: 82), Maribel Sanchezen irakurketa (1993) jarraituz batez ere, liburuak markatzen duen biraketa poetikoa seinalatzen du: «Hizkuntza gogortzeaz gain, ezkortasuna eta etsipena zerien poemei». Etxanizek, gainera, bira horren klabe bat identifikatzen du (2011: 83): «*Urrats desbideratuak* liburuko poemetan existentzialismoaren eraginak indarrean jarraitzen du, baina jadanik ez da poetak aintzat hartzen duen ikuspuntu bakarra; beste filosofo baten esanak ere badarabiltza orain buruan Letek, Nietzschenak». Jose Angel Irigarayren irakurketak ere lerro horri eusten dio. Hain zuzen, Irigarayk (2011: 16) adierazten du, balizko esperantzak hondaturik, nihilismora iritsi zela Lete, eta ezkortasun nietzschetarrak eta etsipenaz ere mintzo da.

Adituek seinalatu duten enuntziatio aldaketa horren dimentsioaz ohartzeko, beharrezkoa da *Urrats desbideratuak* makrotestu⁶ gisa irakurtzea, tematikoki eta estilistikoki poemek duten jostura estua azalerratz, eta azpimarratuz bildumaren osotasunak duen garrantzia.

Tonu etsia da liburua hasieratik bukaerara markatzen duena. Ez dago ihes egiterik, eta etsipena nagusitzen da, gutxienez, hiru zentzutan. Alde batetik, poetaren lanaren antzutasuna dago. Letek berak maiz esan zuen bezala, hitzek ezin

Errealitate berriak utopiak irentsi ahala, eta 60 eta 70etako ametsak gainbehera etorri zirelarik, *desengainua* nagusitu zen eta poesia sozialarena bezalako hizkera poetiko ameskoiek zentzua galdu zuten

dute deus erredimitu. Hain zuzen, hitzaren eta existentziaren arteko arrakalarekin borrokan aritu zen beti Lete, eta bizitzaren une askotan izan zituen sormen krisiak. *Urrats desbideratuak* liburuaren garaian, dagoeneko kantagintza utzita, ematen du poesiak ere ez duela Lete kontsolatzen. *Epilogo*a poemak argi esaten du: «Emoziorik sorrerazten ez duen hainbeste poemaz asperturik zapata bustiak pasilloan uzten ditut, gaua beltz eta gorria da...». Hurrengo hamar urteetan, ez zuen poesiarik argitaratuko.

Beste alde batetik, etsipenaren dimentsio existentziala dago. Orduen gurgila ez da gelditzen, eta gu, ezinbestean, bizitzarekin borrokan ari gara. Hau da etsipenaren maila existentziala: «Izenik gabeko lurretatik ez zera inoiz itzuliko»; «Hitz, sentipen eta keinuz itzuli nahi izan diot baikortasunari bere armonia hautsia, eta basamortu huts batetara aurkitu naiz herbesteratua»; «Zama hartu eta aurrera jarraituz irterarik gabeko ibilbidetan, erantzunik gabeko gau itsuak beste egunsenti zikinago bat halabeharrez erdi dezan»; «Denbora haundi batenak xautzen ditut apurrak, xautzen zentzugabe oreka galdurik». Poeta bakarrik ikusten dugu, irteerarik ez duen bidean galdua, basamortuan erbesteratua.

Etsipenaren azken dimentsioa politiko eta soziala da. Kasu honetan, Leteren kokagunea Euskal Herria da, eta lehen planoan hartzen du horrek bizi duen egoera politikoak. Poeta, berriz, etsiak jota dago bere haurrideak ematen ari diren urrats desbideratuekin: «Herri mixerablea zekenen herria makurtasuna oihuz aldarrikaturik»; «Behin bizi behar eta eremu latz hontan gizeraile sutsuen lurralde eroan, gorrotoa ikusiz begietan pizten haizkorak anaiantzat zorrotz direnean»; «Bizitza ebatsiko didazue ukazio ankerraren arma koldarrekin»; «Zergatik oraindik ere itxaropenaz mintza? Zergatik eta zertarako solas zaharkituak berriztatu? Hain azkar ahaztu ote zaizkigu erenegun guztietako erailketen oihartzunak?».

Liburuak, azaletik bertatik, irteerarik ez duen labirinto batean sartzeraz goazela iradokitzen digu: hosto artean, Danteren figura zutitua ageri da, atzera –irakurleoi– errezeloz

bezala begira. Melankoliazkoa izan daiteke begirada, baina baita mesfidatia ere. Irudiaren jatorria Gustave Doréren ilustrazio bat da, eta, zehazki, *Commedia*-ren lehen kantuko une bat irudikatzen du, Dantek Virgilio topatuko duen unearen aurrekoa. Irudiko baso itxiak, zuhaitzak sendo eta sustraiak bihurri, bide ilun eta galgarria ekartzen du gogora. Iduri luke abisu ematen digula: 1980ko Euskal Herrian sartzera zoaz, maitasunak eta bakeak, jainkoek eta zuzentasunak abandonatutako lurraldean; utzi atean esperantza oro.

Lehen poematik, Letek ibiltari baten ondoan jartzen du irakurlea, eta abiarazten «izenik gabeko lurretaruntz». Erromes etsi baten eskutik goaz orriak pasa ahala, eta, poemaz poema, euskaldunen akatsak, geure pauso okertuak seinalatzen dizkigu. Dantek bere Florentzia maite gorrotatuarekin egin zuen bezala, gure poetak teogonia partikular bat osatzen du Euskal Herriarekin. Mailaz maila, espiral itogarrian, euskal infernuaren egoitzak seinalatzen ari zaigu: errukirik eza, posesio nahiak, elkarrekiko bekaizkeria, senideen arteko gerra... Eta okerreña da erromesa ez dela inora iristen: ez dago hiri aurkiturik ibilbidearen amaieran, soilik lerroz lerro harra-patzen gaituen basamortua, lur eremua.

Bernardo Atxagaren *Etiopia*-k, 1978an, bazeukan zerbait danteskotik, baina Leteren poemategia, hiru urte geroago, are makabroagoa da, iluna eta infernala. Atxagak distopia bat eratu zuen *Etiopia*-n; amaieran, ordea, bazegoen irteera moduko bat, hiri desiratu bat, etorkizunera proiektatzen zen amets bat, aukera bat. 1981ean, Leteren liburuak ez du irtenbiderik postulatzen.

Ez alferrik, azken uneko kondena baten onarpena bailitzan, epilogoaren aurretik dago *Aberria, orain* poema (1981: 77):

Eta aberria, orain
lotsaldi eta erorka guzien izendapen zait:
atari horretatik begiratu ditut egunsentiak
gertakizun harrigarriei alferrik itxoinaz.
Hemen, atzo amorratuak eta gaurtasun herabeak
behartu dizkidate gizakoi orooren pasarte arruntak.

Hemen, nire urratsek laberinto moldaezina irun dute
ilunabar erraustueta
biarraren emaitza
etsiperatuki antsiatu dugularik.
Hemen, nire itzala ororen itzal zehazgabean
arras galduko dela onartu behar izan dut.
Ez gaitu maitasunak batzen, ikara larriak baizik.
Horregatik natzaio agian leial aberri dohakabe honi.

Itxaron ditu poetak gertakizun harrigarriak, antsiatu biharren emaitza argitsuak, baina itzala nagusitu da hemen. Hala esan zion Letek Eugenio Ibarzabali, 1978ko elkarrizketan: denek espero zuten, demokraziak bidea egin aha-

Trantsizioak markaturiko
sortzaileez eta obrez ari
garela, sakonago ikertu
beharra dago euskal
gizartearen egoera
historiko eta kulturalak
belaunaldi honetako
norbanakoengan eta
euren obretan nola
eragin zuen

la, mugimendu bateratzaileak sortzea, hobeto elkar ulertzea, zenbait proiektu errazago gauzatu ahal izatea...⁷

Baina ez zen, Leteren begietan, halakorik gertatu. Minotauroa Kretatik Euskal Herrira aldatu bailitzan, labirintoak jendea irensteari ekin zion. Labirinto hori irudikatzen du *Urrats desbideratuak* den kantu itogarriak: utopiarik gabeko egoera bat, irteerarik gabeko euskal labirintoa. Esparru hartan katigatuta zeuden, «ikara larriak» batuta, euskaldunak; labirinto hartan harrapatuta, aberri dohakabeari beti leial, Lete. Eta 80etan handik irte ten saiatu bazen ere, Leteren ahaleginek ez zuten Ikaroren hegaldiaren altuerarik hartu...

Hipotesi gisa

Trantsizioak markaturiko sortzaileez eta obrez ari garela, sakonago ikertu beharra dago euskal gizartearen egoera historiko eta kulturalak belaunaldi honetako norbanakoengan eta euren

obretan nola eragin zuen. Izan ere, aipatu ditugun Lete, Artze, Iriondo, Laboa eta beste hainbaten ibilbideek elementu komunak erakusten dituzte: esperimentalismo eta abangoardietan kokatu ziren gaztaroan, eta, euren adierazpen artistikoen bidez, ikono publiko esanguratsu bihurtu ziren; gero, ordea, hondoa jotzera iritsi ziren norbanako horietariko asko, eta historiaren eta euren indibidualtasunaren arteko etena hain izan zen handia, ezen handik aurrera euren azalean pairatu baitzuten garai hartako desengainuaren ordain tragikoa. Eta azalarena ez da metafora huts, David Beorlegik (2016: 71) aktibisten inguruan idatzi duena zabaldu bailiteke, seguru asko, kultur eremuan jardun zuten subjektuengana ere:

Aktibistentzat, [iraultza edo utopia] inoiz baino hurbilago egon zen, inoiz baino ukigarriagoa eta errealaagoa izan zen, eta aukera hori desagertu izanak orbain sakonak utziko zizkien, luzaroen markatuz gorputzak, eta herrestan eramango zituen iraganeko itxaropen guztiak. (Garazi Ugaldek itzulia, ingelesetik).

Beharbada, eta hau da hipotesi gisa iradoki nahi duguna, belaunaldi horrek gerora –80ko hamarkadaren amaieratik aurrera eta, bereziki, 90etan– bereganatutako zenbait jarrera eta ildo estetiko trantsizio garaiko gertakariak sortzaile horiengan eragin zituzten zauriak sendatzen saiatzeko erantzunak dira. Hala irakur daiteke Leteren obra, zeinetan poetak beste ahots bat bilatu zuen 90etan: ahots poetiko berritu bat, argitasunari eusten lagunduko ziona bere saminen iluntasunean.

Azken hitza: nora ihes?

Gorago iradoki bezala, Bernardo Atxagaren *Etiopia*-rekin batera, trantsizioaren lekukotasun poetiko garrantzitsua da *Urrats desbideratuak*. Gorrotoak eta etsipenak zikindutako herri baten kolorea dauka poemategiak. Leteren hizkera poetikoak modu paregabeen islatu zituen garai hartako bizipen eta emozio kolektibo nagusiak: ahots zauritu baten oihartzuna zen, haurrideei errealitate zaurgarria seinalatzen ziena; eta, emandako pausoen desbideratzea gogor salatzen

zuen gisa berean, aldarrikatzen zuen inoiz urratuko ez zen leialtasun pertsonala.

Liburuak «ihes betea» desira gisa irudikatu arren, *Aberria, orain* poemak letania baten pare errepikatzen du hemen, hemen, hemen... Hain zuzen, ihes egin nahi eta ezin horrek markatu zituen urte haiek.

1979ko abuztuan, Argala dagoeneko erailda eta ETA uztea buruan zerabilela, Leteren *Euskalerra nerea* gogorarazten duen poema bat idatzi zuen Yoyesek bere egunerokoan; honela dio hasierak:

Herri nirea, ezin zaitut jada gehiago maite. Ezin zaitut gehiago maite. Badira, diote, hiltzen duten maitasunak. Maitasuna gorroto bihurtzen baita, eta horrek bai, horrek hiltzen du.⁸

Urrian, itolarria nagusitzen zaio eta zurrunbilotik irten nahi du:

Ezin dut nerbioekin burutu, oihu egin nahi nuke, oihu egin, negar egitea ez zait nahikoa, nire larritasuna oihukatu nahi nuke, gertatzen zaidana oihukatu, zerbaitetan sinetsi ahal izango banu otoitz egin nahiko nuke, zerbaitetan sinetsi, baina ezin dut, ezin dut burutu, irten egin behar dut honetatik, irten egin behar dut hemendik.⁹

Baina nola egin ihes Minotauroaren labirintotik?

Hamarkada baten ondoren, 1989an, lur eremu beretik, honela abesten zuen Andoni Basterretxeak, *Delirium Tremens* taldean (1989):

Hemen, dirudienez, denok badakigu zer egin. Bakoitzak bere aukera esaten du dela onena. Baina gauzek, hemen, berdin jarraitzen dute, eta ez dago antzik aldatuko direla, ez oraindik. Eta orduan zer? Nora ihes?

Ihesa zilegi ez, eta Xabier Letek poetizatzen –problematizatzen– jarraitu zuen, hizkera poetiko baikorrangoak bilatuz, aberriaren bizipen kolektibo eraikitzaileagoak proposatuz. 80ko hamarkadaren amaieratik aurrera, trantsizioko hizkera poetiko etsiari buelta eman, eta beste behin berritu zuen bere burua poetak, azken egunera arte iraungo zion leialtasun berraurkitu bati atxikiz. 🍷

Oharrak

1. Artikulu hau IT 1047-16 (Eusko Jaurlaritza), US 17/10 (UPV/EHU) eta FFI2017-84342-P (Mineco) proiektuen barruan idatzia da.
2. Leteren ikuspegi etikoaz, ikus, halaber, Gurrutxaga (2020b).
3. *Muga*-n argitara emandako artikuluak –prentsan argitara emandako beste artikulu askorekin batera– Perez Gazteluk eta Saez de Eguilazek editatutako *Zerbitzuko lanean. Lete kazetari, Lete prosagile* (2020) liburuan irakur daitezke.
4. «Yo siempre me he sentido, no sé por qué, no sé a qué se debe esto exactamente, pero me he sentido independiente, y sigo sintiéndome independiente» (Ibarzabalek jasoa, 2020: 64).
5. Judasen ebanjelioa *Ebanjelio Apokrifoa*k bilduman irakur daiteke (2008: 155-170).
6. Makrotestuaren ideia Maria Cortik, Cesare Segrek eta abarrek garatu zuten. Testu laburren bildumak –poema liburuak, ipuin liburuak, etab.– egitura osoaren zentzuari erreparatuz irakurtzeko erreminta teoriko interesgarria da. Kontzepzio horretan oinarrituko gara *Urrats desbideratuak*-i buruz aritzeko.
7. «Se decía que, cuando la situación cambiara, cuando se pudiera definir y organizar todo el espectro ideológico y político dentro de un contexto democrático con más facilidad y con libertad de expresión, pues todos teníamos el sueño de que se iban a producir movimientos convergentes, y de que el encuentro mutuo iba a ser mucho más fácil, de cara a trabajos y de cara a realizaciones» (Ibarzabalek jasoa, 2020: 91-92).
8. «Ya no puedo quererte más, Pueblo mío. No puedo quererte más. Hay amores que matan, dicen. Es que el amor puede convertirse en odio y éste sí mata» (2009: 95).
9. «Los nervios me pueden, querría gritar, gritar, no me basta con llorar, querría gritar mi angustia, lo que me pasa, querría rezar si pudiera creer en algo, creer en algo, pero no me es posible, todo me puede, tengo que salir de esto, tengo que salir de aquí» (*ibid.*: 101).

Bibliografia

- Agote, Gontzal (datarik gabe): 'Mikel Laboa. Biografia', *Badok* (<http://artxiboa.badok.eus>; azken kontsulta: 2020-09-26).
- Atxaga, Bernardo (1996): *Nueva Etiopía*, Madril, Detursa.
- Aurtenetxe, Aritz (2013): '1970. hamarkada, kontzertuak euskal zaleen bilgune. *Baga biga higa sentikaria* espektakulutik jaialdietara', *Musiker* 20, 327-341.
- Askoren artean (2008): *Ebanjelio Apokrifoa*k, Zornotza, Ibaizabal, *Erlijioen jakinduria* bilduma.

- Beorlegi, David (2016): *La experiencia del desencanto en el País Vasco (1976-1986): memoria, subjetividad y utopía*. Doktore tesia. EHU.
- Carbonell, Joaquín (2012): *Querido Labordeta*, Bartzelona, Ediciones B.
- Chueca, Josu (1999): '40 urte eta gero hau! Franco ondoko trantsizio politikoa Euskal Herrian', *Jakin* 113, 41-51.
- Delirium Tremens (1989): *Ikusi eta ikasi*, Iruñea, Oihuka.
- Estornes, Idoia (2013): *Cómo pudo pasarnos esto. Crónica de una chica de los sesenta*, Donostia, Erein.
- Etxaniz, Maider (2011): 'Existenzialismoaren ekarpena euskal literatura modernoan', in Joxe Azurmendi (arg.): *Filosofía eta poesía*, Donostia, *Jakin*, *Jakin Irakurgaiak* bilduma 43, 71-99.
- Gonzalez Katarain, Maria Dolores Yoyes (2009): *Yoyes, desde su ventana*, Irun, Alberdania.
- González Lucini, Fernando (2006): *Y la palabra se hizo música. La canción de autor en España*, I. liburukia, Madril, Iberoautor, Fundación autor.
- Gurrutxaga, Alex (2020a): *Xabier Lete. Aberriaren poeta kantaria*, Irun, Alberdania.
- (2020b): 'Kaliayev eta Antigona. Ohar zenbait Xabier Leteren ikuspegi etikoaz', in Askoren artean: *Urrats urratuak. Xabier Lete gogoan*, Donostia, Balea Zuria, 77-88.
- Ibarzabal, Eugenio (2016): *Días de ilusión y vértigo (1977-1987)*, Donostia, Erein.
- (2020): *Xabier Lete, de un tiempo, de un país*, Donostia, Erein.
- Irigaray, Jose Angel (2011): 'Xabier Lete, lore gorrien arteko poetika', *Hegats* 47, 11-24.
- Larrinaga, Josu (2016): *Euskal musika kosmikoak. Euskal musika popularra gizartearen isla eta aldatzailea*, Mungia, Baga Biga.
- Lete, Xabier (1968): *Egunetik egunera orduen gurpilean*, Bilbo, Cinsa.
- (1981): *Urrats desbideratuak*, Donostia, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- (2006): *Abestitzak eta poema kantatuak*, Donostia, Elkar.
- (2017): *Elurra ikusi dut*, Donostia, Elkar. Koldo Izagirrenen antologia.
- Ornoz, Belen (2000): *Gazteri berria, Kantagintza Berria*, Donostia, Erein.
- (2012): *JosAnton Artze 'Harzabal': inguruaren eragina poesiagintzan (1969-1979)*, Bilbo, EHU.
- Otaegi, Lourdes (2011): 'Estalitako egia esanezinen poesia', *Hegats* 47, 25-37.
- Perez Gaztelu, Elixabete; Saez de Eguilaz, Haizea (argk.) (2020): *Zerbitzuko lanean. Lete kazetari, Lete prosagile*, Oiartzun, Oiartzungo Udala.
- Sanchez, Maribel (1993): 'Leteren poetika', in Askoren artean: *Gaurko poesia*, Bilbo, Labayru Ikastegia, 95-127.
- Zulaika, Joseba (2014): *Vieja luna de Bilbao. Crónicas de mi generación*, Donostia, Nerea.

EGUNEN GURPILEAN

91 Kultura

-lakondik

-lako

-(n)dik

Maialen Akizu Bidegain

97 Soziolinguistika

Bideoa

Errua errun duen erruduna

Zilborrari begira

Nahi dugulako

Jaime Altuna Ramirez

103 Glokalia

Beti haur al gara galderen aurrean?

Haur Filosofia eta Jakinmin Elkarte

Pentsamendua eta krisia, irudiak eta
datuak

Filosofiaren haurtzaroa

Iñigo Martinez Peña



Kultura

Maialen Akizu Bidegain

-lakondik

JAKIN aldizkarian, txo! Bi hilean behin begiak zabal-zabal esku artean hartu, arkatzarekin azpimarratzen hasi eta entresakak irakurtzen bukatzen duzun aldizkarian. *Irakurri al duzu azkenengo zenbakia?* Eta zuk, baiezkoa buruaz, *klaro ba*. Egun sekula baino gutxiago irakurtzen dela dioen ustearen aurka zaude, edo hala uste duzu. Irakurtzea, ordea, bihurtu da sekula baino gehiago jakiteko bide, eta, akaso, inoizko jakintzarako muga handien. Nahi dugulako jakin, baina nahi dugulako minetik urrun, eta euskararen esan kuriozosoa da minaren positiboa: maitemina, herrimina, jakin-mina.

Narrats hasi haiz. Hasieretan beti ibiltzen haiz xelebre. Ez dun asmatzen noiz atera behar diren azeitunak, zer egin urtarrilaren leian, zer tokatzen den; *Kaixo. Apa! Iepaleei!* Kosta egiten zain tonua topatzen. Badakin, hobe dela isiltasuna ez puskatu hobetzeko ez badun.

Ibon RG musikariak *Ahotsa pieza esperimentalezko konposizioetan* lantegia antolatu du Uharteko Arte Garaikidearen Zentroan. Hainbat ariketa gauzatu dituzte, kasu, artikulatutako hitzak beharrian, gorputzak produzitutako soinuak erabiltzeko ariketa. *Kraghwy* (euskaratik egin dudana soinu honek *w* eta *y* dauzka). Iboni irakurri diot «gure ahotsa ez dugula ezagutzen», eta akordura etorri zait Uxue Alberdiren *Kontrako ezarririk* saiakeran ahotsari eskainitako azpikapitulua. Nerea Ibarzabalek hala zioen: «ez daukat harreman ona nire ahotsarekin». Nik markinarraren tonuan irakurtzen nuen esaldia, eta poetiko bezain metafisikoa iruditzen zitzaidan, baina ez dut nahi bertsolaritza lerro hauetara ekarri, oraingoan, Segurolak (abizena pare-parera!) ezarriko nauelako

IdPot (Ideia Potoloak) *besarkatzen dituen bertsolari gutarra gisan* (hire liburua esku artean diat!).

Nire ahotsetik atera ez diren nire hitz hauek, ordea, zio bat eta bakarra hautatu beharko balute, garbi daukat (beno ez, bi hautatuko ditut, badaezpada): zertarako kultura(z)? Eta nondik kultura(z)?

-lako

Arrazoiak beti doaz menpeko esaldietan. Eta gurean, konkordantziaren mesede, gehienetan atzizki bat daramate. Arrazoia aipatzen dudanean, zertarako galdetzen dudanean, kultura-ren determinazioaz jardun nahi nuke. Raymond Williamsen hitzak neuretz, kulturak edo kultur espresioak prozesu material gisa ulertu nahi nituzke eta eraldaketarako gaitasuna aitortu.

JAKINEN azken zenbakia, azaro-abendukoa, arkatx eta azpimarra leitu nuen (hura bai), eta mahai bueltan banengo gisa jaso nituen Itziar Ugarte kazetariak ‘Pandemiaren urtea kulturgintzan’ izeneko mahai-inguruan ekarritako hitzak. Xabier Gantzarainek, bueltan-bueltan, hasieran aipatutako galdera jotzen zuen funtsezko: «zer da eta zertarako da kultura?». Katti Pocheluk zioen, eta bat nator, «zer da» hori ez dela horren garrantzitsua, (ez) garena egiten (ez) duguna delako edo izatearen galdera beti doalako definizio baten bila. 1952rako, Alfred Kroeber eta Clyde Kluckhohn antropologoek kulturaren 250 definizio bildu zituzten; xx. mendeko bigarren hamarkadan Telesforo Aranzadi eta Joxemiel Barandiaran ere aritu ziren euskal kulturaren definizioaren bilaketan, baina kulturaren ikuspegi estatiko eta idealizatua sortzen dute halakoek, gorpuztasunetik eta emozioetatik apartekoa.

Alabaina, funtsezko izatea funtsezko bihurtu da, eta kulturaren funtsezkotasunaz galdetzea interesatzen zait ez hainbeste erantzun bat topatzeko, ezpada kulturaren agentzia eta baliario politikoa jomugan ipintzeko. Hasi gaitun potolokeriatan.

Bai zera potolokeriak. Belarri ertzean burla-haizez ari zait kilkerra *gu gera Euskadiko gazteri berria* kantari. Potoldu dezakedan bakarra, hor nonbait, Pello Lizarraldek *Argiantza* bere azken nobelaren karira utzitako titularra: literatura *light*-a nagusitu da. Tripak mugitzen omen zaizkio Lizarralderi irakurritako zerbait gustatu eta inork *polita* dela esaten badu. Poolita, polit-polita. Niri ere *polita* ez zait bereziki kategoria polita iruditzen, Porrotxen ahotsean entzuten dut irakurri ahala; nahiago *ederra* edo *latza* edo *tumatxa* (*tumatxa* nola ez dugu gehiago erabiltzen?), baina zalantza daukat bat etorriko ote nintzatekeen Lizarraldek izendatzen duen literatura *light*-arekin. Kultura eta entretenimenduaren afe-rari heldu zion, besteak beste, Plaza Hutsa Jardunaldietan *Herri kontakizuna birsortzeko bulkada kulturala* izenburuan egindako saioan Ximun Fuchsek ere. Fuchsen ustez, kultura abertzaletasunarekin lotzen asmatu behar dugu; entretenitzea izan daiteke bigarren mailako sintoma, baina kulturak/arteak berezko duten «garratza» izan behar omen da helburu. Euskaraz, garratza *mina* ere bada. Gavin Turk artista plastiko britainiarrak zioen artearen munduko lana oso zaila dela egun, entretenimenduaren, aisialdiaren industriarekin alienatu delako, eta entretenimendu gisa, bereziki, ez delako entretenigarria.

Nik ere, ordea, behar ditut, Ane Garciak *Berria* egunkariko 'Zimikoa' artikuluan aipatu bezala, *Divinity* egunak. Garciak zioen: «Batuetan bizitza igande arratsalde errugabe bat izan zedin desiratzen dut». Bis-bis. Katixa Agirrek ere, tarteka, «ez-produktibo» izatea aldarrikatzen zuen. Ez nuke produktibitate eza entretenimendurekin berdinduko, baina nabarmena da nire ustez, orokorrean, gai honetan generoak duen papera (beste baterako).

Esku artean duzun aldizkaria zintzo demonio irakurtzen ari bazara, ohartuko zinen ez dela *Divinity* egunetarako idatzia. Estatuena ez beste mugak baina, lauso. Hauxe duela gutxi gertatua: *Zaldi urdina* ikustera joan dira bi lagun. Bat, calendarrean jakinarazpena jarrita, sarrerak ahalik eta

azkarren erosita, okasiorako txamarra *vintage*-a jantzita joan da; bigarren laguna, hamar gutxitan, hantxe. Bukatu eta lehen begiak bekainarekin bat eginda, flipatzen, *buah, buah, buah, hau gure historia da, superidentifikatuta nago, buah, nire amari galdetu behar diot honetaz...* Buah. Bestea, pozik. Guay, ondo, divinity!

Aditzera eman nahi dudana da hartzailearen *politik* ez duela literatura *light*-a egiten halabeharrez. Egun, gainera, esango nuke artearen (eraldaketarako gaitasuna duen prozesu materialaren) eta estetikaren (plazer sensorialak helburu dituen) eremuen artean gero eta diferentzia gehiago dagoela. Begoña Martinez Goyenaga Guggenheim museoko komunikazio eta marketin zuzendariak, Euskal Telebistak egindako elkarrizketa batean, apirilera bitarte egongo den Olafur Eliasson artista daniar-islandiarraren erakusketaren arrakasta aipatu zuen: Eliassonen erakusketak gazte eta familia talde handiak bildu ditu. Arrazoa: bere artea «argazkietan oso ondo ateratzen» dela.

Zertarako galderari tiraka hasi naiz eta hementxe nabil nahas-mahasean, emankor izan guran deseroso. Behe-laino itxia sartzean bezala, askotan iruditzen zait *zertarako* galdera bilakatzen dela *nondik*. Banoa hara.

-(n)dik

Orain artean euskal kulturarik ez dut aipatu, baina aitor dezadan kulturara ere euskaratik iritsi naizela. Munduaz hitz egitean, mintzatzen naiz territorio honetatik, baita lotsaz edo urdinaz dihardudanean ere. Behe-lainoaren metafora kutrea berrekarriz, *nondik* galdera erantzuteko, hizkuntza segi.

Herri hau *euskaratik eta euskaraz* sortzen jarraitzeko gonbita luzatu zigun Maialen Lujanbiok 2009ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako final jendetsu (gaurtik are jendetsuago) hartan. Borobil-borobila iruditzen zait esaldia, eta momentu historiko hartako sentsibilitatea bete-betean

biltzen asmatu zuelakoan nago. JAKINEk kulturaz aritzeko aukera eman dit. Itsaso beste ur azaldu zait parez pare, baina, neurria hartzeko, derrigorra iruditzen zait kulturaz beste politikaz eta ekonomiaz ere aritzea (aho uhalak nahi eta hain zabiltza aho ahul).

Uhalak eta hariak. Interseksionalitateaz pentsatzeak bultzatu gaitu hari desberdinak lotzera, eta ohartu korapiloak egiteko baino soka indartzeko balio digula horrek. Kultur-gintzan sumatzen dut kultur esparru desberdinak elkarrekin aritzeko eta elkartzeko inoizko borondaterik gehien, eta testuingurua alde eta moldez horrenbeste baldintzatu duen pandemia bezalako gertaerak asmo hori indartu duela esango nuke. Jar daitezke adibide gisa greba digitalaren kontsentsua, edo Sormene, abenduan Galdakaon lekututako sormen-erloto egitasmoa, baina egia da oraindik zailtasunak topatzen ditudala kultura eremu diferentzial eta autonomo gisa ez kokatzeko. Kulturatik zer egin Donostiako Alde Zaharreko polizien bortizkeriaren aurrean? Kulturaz nola hitz egin adinekoen egoitzetako langileen asanbladan? Nola elikatu neketik kultura?

Sumatzen dudana da, 'bestea' zein jendartea arrisku leku bihurtu den honetan, kulturak eman diezaiokeela lekua kolektiboari. Iruditzen zait desberdin bizitzen ari garela gure etxeko mantapean ikusten dugun pelikula alternatibo kritiko demasa edo herriko antzokian biltzera garamatzen *edozer*. Eta horrek betetzen nau nolabait. Azken hilabeteetan kultura bizi/kontsumitu/partekatu dudana ekitaldietan sumatu dut, denbora eta leku batean nengoela, kolektiboa eta norbanakoa momentu berean izateko aukera eta handik atera eta *noranahi* joateko gogo falta (ados, horretarako aukerarik ere ez dagoelako bada). Byung-Chul Han filosofo korear sonatuak *Erritualetan desagertzea* saiakera argitaratu zuen, itxura, COVIDaren usainik hartu gabe artean. Erritualetan mundua 'etxe' bihurtzeko gaitasuna zutela zioen Hanek; erritualetan bidez komunikaziorik gabeko komunitatea lortzen zela dio, justuki, komunitaterik gabeko komunikazioa nagusitu den

honetan, eta bizitzarentzat erritualak gauzentzat lekuak bezain beharrezkoak direla uste du.

Gure kultura kristauan, Gabonak, urte amaiera da erritual sozial-espiritual gehien pilatzen den epealdia. Osasun-neurriak *alapikulatunpaire* doitu arren, aurten inoizko Gabonik lauenak pasa ditugu: *ez fitxatu* beharreko familia-elkartzeak, opariak justuan, gehiegikeriak neurtuta. Eta ingurukoei galdezka, sentsazio konpartitua izan dugu oso ondo zein egunetan ez geunden jakitea, «aiba, bihar lanera».

Horregatik uste dut datozen urteetan harremanak elikatze eta politizatze helduleku izan daitekeela kultura. Eta bai, galdetu diezadakezu zer ulertzen duzun 'politizatzearekin' eta nola egiten den hori, baina kilkerak jarraitzen du kantari eta ez zaitut entzuten. 🍷



Soziolinguistika

Jaime Altuna Ramirez

Bideoa

Arratsalde ilun, euritsu eta pandemiko batean ikusi dut bideoa. Familia nuklear prototipikoa ageri da: ama, aita, alaba eta semea. Afaltzen ari dira. Hizkuntza ohiturei buruzko bideoa denez, erakusten diguten egoera ere nahiko tipiko eta topikoa da: gurasoek euskaraz hitz egiten diete haurrei euren artean gaztelaniaz mintzo diren bitartean. Oherakoan neska-mutilen artean gaztelaniaz ari direla entzun du amak eta errieta egin die: «euskaraz egin!».

Hurrengo eszenan istorioaren protagonistak diren gurasoak beste ama batekin hizketan ageri dira. Eskola atarian daude eta haurren hizkuntza ohiturak dituzte mintzagai. Protagonistak kezkatuta daude. Seme-alaben arteko elkarrizketa asko gaztelaniaz direla konturatu dira, eta ez dakite zein den horren zergatia: ETB1 eta ETB3 ikusten dute, liburuak euskaraz irakurtzen dituzte, eskolan euskaraz ikasten dute... Ez dutela ulertzen diote gaztelaniaz hitz egiten ari diren guraso horiek. Beste amaren harridura aurpegiarekin amaitu da bideoa.

Mezua ez dela berria pentsatu dut: gurasoak eredu dira, gurasoek egiten dutena egingo dute seme-alabek, bikotekideen artean euskaraz egitea da giltza, guk hitz egiten ez badugu haurrek ez dute hitz egingo... Mezua zaharregia ez ote den ere pentsatu dut: zure eginbearra da, zure ardura da, zure errua da...

Errua errun duen erruduna

Bideoa ikusi dudan egun berean, Harkaitz Canok idatzi eta Pettik musikatutako abesti baten izenburua duen artikulua,

Errurik gabeko habia, irakurri dut *Berria* egunkarian. Abes-
tiaren lehen zatiak honela dio:

Errua errun duen oiloa zara:
zure errua, zure pozoia, zure bazka.
Errua errun duen oiloa zara.
Maldan behera zoaz, *erruberari* bultzaka;
erru ezberdina da erru bera.
Erruak dakar erru-dantza;
erruak soilik du erruaren antza.
Zer izan zen lehenago, errua edo arrautza?
Eta errurik ez balitz? Bizitza balitz habia?
Dena bere kabuz balebil? Kulparik hona ez ekarri,
nirekin ez konparti...

Artikulu Ana Galarragak idatzi du (eskertu beharra da-
go Galarraga eta beste zenbait zientzialari eta kazetari pan-
demiaren inguruan euskaraz informatzeko egiten ari diren
lana). Koronabirusaren pandemia uzten ari den alderdi so-
zial bati buruz mintzo da, eta testuaren hasieran Felix Zubia
medikuaren hitzak ekarri ditu:

Pandemia edo izurrite batean, ardura kolektiboa da, beti; bakoit-
zari dagokion mailan, baina ez pertsonala. Birusa ustekabeen
kutsatzen da, sintomarik gabeko pertsona askok zabaltzen dute,
eta ez da pertsona batek egin duen akats baten ondorio. Denok
gure bizimoduarekin zabaltzeko arrisku handia dugu. Oso zaila
da arrisku hori murriztea behin puntu batera iristen denean; eta,
beraz, ez dezala errurik sentitu, ez du pertsonalki ezer gaizki egin.
Hau gizarte oso baten arazoa da, gizarte oso baten ardura.

Osasun eta zaintza kontuak bezala, gutxiagotutako hizkun-
tzen indarberritze prozesuak ere auzi komunitarioak dira,
nahiz eta, maizegi, erruduntasun pertsonala azpimarratzen
duten diskurtsoak gailentzen diren. Horregatik argigarria
iruditu zait Galarragak artikuluan egiten duen hausnarketa:

Baina erruaren eta lotsaren zama, banakoetan ez ezik, gizartean ere
nabaritzen da. Horregatik, irtenbidea ere ezin daiteke norbanakoe-
tara mugatu. Komunitatean aurre hartu behar zaio, erruduntasuna
eta estigma eragiten duten mekanismoak identifikatuz eta erago-

tziz. Azken finean, agintariak eta komunikabide handiek bideratutako mezuek adinako eragina izan dezakete ahoz aho eta sare sozialen bidez hedatutakoek, ingurune hurbilean zein zabalean.

Esaera zaharraren arabera, «aurreak erakusten du atzea no-la dantzatu»; baina euskarari lotutako erru-dantza martxan jarri ordez, bakoitzak duen tokia eta ardura zein den begiratu eta hortik abiatuta koreografia kolektiboa dantzatzeari ekin beharko genioke. Jendarterik gabeko erru eta ardurak inora eramango ez gaituzten abstrakzioak baitira. Zaila baita maldan behera etengabe doan *errubera* bakarka gelditzea.

Zilborrari begira

Erruduntasun indibidualeko diskurtsoak dira razionaltasun neoliberalaren adiera argienetako bat. Eduardo Apodakak eta Jordi Moralesek argitaratu berri duten 'La gobernanza lingüística en la Comunidad Autónoma Vasca: racionalidad neoliberal y demandas comunitarias' (Hizkuntza-gobernantza Euskal Autonomia Erkidegoan: razionaltasun neoliberal eta eskari komunitarioak) izenburua duen artikuluan ondo azaltzen dute razionaltasun neoliberal hori egungo razionaltasun hegemonikoa dela, «munduaren arrazoi berria»: lehia printzipio unibertsal eta natural gisa ezartzen duten diskurtso, praktika eta dispositiboen multzoa.

Artikuluan, hizkuntzaren ideologiak eta euskararen normalizazioaren diskurtso eta praktikei zentzua eta zilegitasuna ematen dieten razionaltasunak aztertzen dituzte. Azken hamarkaden errepassoa eginez, hizkuntzari buruzko bi jarrerak ideologiko deskribatzen dituzte. Batetik, hiztunak eta hizkuntzak baliabide eta konpetentzia pertsonal gisa ikusten dituen diskurtso instituzionala, eta, bestetik, hizkuntza egitura eta jarduera komunitariotzat hartzen duen euskalgingutzaren diskurtsoa.

Apodaka eta Moralesen azterketaren arabera, administratibo-erakundearen diskurtso hori razionaltasun neoliberalarekin

bat datorren diskurtsoa da, non hizkuntza-politiken hartzaile onargarria hiztun indibiduala den. Hitztun horrek nahi duen hizkuntza ofiziala hautatzeko eskubidea du, eta aukera ahalmen hori zerbitzuen eta produktuen kontsumoaren bidez kodetzen da. Ikuspegi horren arabera, beraz, administrazioaren eginbeharra norbanakoaren erabilera-hizkuntzaren aukeraketan berdintasuna bermatzea da:

Horregatik, esaten da hizkuntza-arloko esku-hartzeak eta politikak beharrezkoak direla. Hizkuntza-merkatu librea antolatu, sustatu eta bermatu behar da, lehiakorra baina orekatua, «elebitasun orekatua». Baina, hizkuntza-merkatuaren metaforaz harago, esku-hartze politikoak ez du ordezkatu behar benetako merkatua, lehia da kultura-ekoizpen «emantzipatu eta normalizatua» (kalitatekoa, erakargarria, erreferentziala, etab.) arautzen duen mekanismoa.

Hiztunaren esku uzten da, azken batean, hizkuntza-egoeraren erantzukizuna eta hizkuntza-politiken arrakasta edo porrota. Hizkuntza aukeratzeko askatasun formal horrek hiztuna bihurtzen du egoera soziolinguistikoaren ardura-dun; razionaltasun neoliberalaren diskurtsoak gidatzen du hizkuntzen gaineko iruditeria:

Kasu honetan, razionaltasun neoliberalak, funtsean, gaitasun eta xedapen psikosozialak indibidualizatu eta abstraitu egiten ditu jendarte-egoeretatik; beraz, xedapen pribatuak dira, kalkulu ekonomikoaren eta aukera pertsonalaren auzia, baina baita zeharkako erregulazioaren eta gobernantzaren auzia ere. Ondorioz, hizkuntzen bizitza soziala eremu ekonomiko gisa adierazten da, lehian dauden kapitalen arteko merkatu gisa.

Baina Apodakak eta Moralesek, Euskal Herriko administrazioaren diskurtso instituzional horren azalpen zehatza egiteaz gain, ohartarazten digute arrazoibide neoliberal hori oso hedatua dagoela, hau da, hizkuntza-politika instituzionaletatik kanpo ere, euskalgintzaren jarduerak eta baita egunerokotasuneko bizitza linguistikoak ere razionaltasun neoliberalaren zentzua eta zilegitasuna hartzen dutela.

Garai honen zeinu bihurtu den produktibitate indibiduala, beraz, hizkuntza kontuetan ere barren-barreneraino sartu da.

Norberaren zilborretik ekin eta norberaren zilborrari begiratu behar omen diogu. Baina Ana Urkizak idatzitako eta Begoña Durrutyk ilustratutako *Paperezko ahozapietan idatzitako ipuinak* liburuko ipuin labur-laburretako batean ohartarazten diguten moduan, kontuz ibili beharko dugu. Izan ere:

Zilbor-zuloa lapurtu zioten behin eta, harrezkero, ez zuen (gehiago) nora begiratu jakin.

Nahi dugulako

Bizitza sozialaren beste hainbat alorretan bezala, beraz, hizkuntza kontuetan ere ardua eta erruarekin estu lotuta dagoen askatasun indibidualaren diskurtsoa ozen entzuten da. Gauzak aldatzea norberaren esku dagoela sinetsarazten saiatzen diren autolaguntza kutsuko diskurtsoen bidez, nahi dugun hizkuntza erabiltzen dugula uste dugu. Indibiduo *Homo economicus* gisa hartuta (norberaren burua gobernatzeko gaitasuna duen 'enpresaria'), erabiltzen dugun hizkuntza aukeratzeko askeak garelako pentsatzen dugu. Baina, askatasunaren izaera soziala ahaztuz gero, zaila izango da gurea bezalako egoera soziolinguistikokoan aldaketak eragitea. Gaztelania, euskara, frantsesa ala ingelesa erabiltzeko aukeraketa norberaren nahiaren arabera dela sinetsita, ez al gara ari 1936an Georges Barbarinek idatzi eta 2018an Maia Ossak itzulitako *Jesusa Gipuzkoakoa* liburuko protagonistak bezala?

Si los curas y frailes supieran... botatzen zuen gramofonoak. Eta mahaiko guztiek, errebolta eta ardoz hordi, ahots batean jarraitzen zioten kantuari.


– Euskaldunak elizara joaten zirela uste nuen –esan nion Perpetuari.

Barbara andreak ez zion erantzuteko astirik eman. Bere indar guztiarekin oihu egin zuen:

– Gu, gu errepublikazaleak gara. Baina herria memeloz beteta dago.

Eta beste guztiak uluka hasi ziren uste osoz:

– *Tontos!... Tontos!*

- Ines andreak mendekatzailer jarraitu zuen:
- Errege-erreginen garaian ez ginen ausartzen mezatara huts egiten.
 - Eta orain? Galdetu nion.
 - Orain -hasi zen andrea, duintasun handiz-, berdin-berdin joaten gara, baina nahi dugulako. 



Beti haur al gara galderen aurrean?

Zer da pentsamendua? Zein da pentsamenduaren eta galderen arteko lotura? Galderek pentsamenduaren hutsuneen aurrean jartzen gaituzte, erantzunen faltan, ezjakintasunari begira. Asmatu beharrean gaude nondik joan, zein hari jarraitu. Pentsamenduaren bidea ez baita eginda dagoen autopistatik bidaiatzea; ibilbidea eraiki eta berreraiki egin behar da. Hala zioen poetak: ez dago biderik, ibilian egiten da. Pausoz pauso joan behar dugu, bizi-bizirik, galderen eta erantzunen arteko dantzan.

Galderen erresuman, ordea, haurrak dira nagusi. Zergatik *hau*, zergatik *hori*, zergatik *hura*? Gure alabaren galdera nekazinar, tematiak, jolas bilakatu genituen, bost urte zeuzkanean. ‘Zergatik’ deituriko jolasa. Hutsuneetara hurbiltzeko modu ludikoa? Autobusa hartzera gindoazela galdezka hasi zitzaidan: «Aita, zergatik joan behar dugu autobusez?». Eta nik: «Distantzia luzea egin behar dugulako, bestela asko luzatuko ginatke». Berriro berak: «Eta zergatik distantzia luzea?». Eta nik: «Ba... gaur egungo hiriak oso handiak direlako». Alabak: «Eta zergatik dira hiriak hain handiak?». Horrela jarraitu genuen, ez *nekiela* esan nion arte: «Ez dakit, zuk zer uste duzu?». Eta erantzunak ematetik galderak egitera pasa nintzen, rolak aldatuz. Egia esan, barrezka amaitzen genuen.

Galderak, dena den, ez dira galdera ikurrarekin soilik idazten, ez dira beti zuzenean adierazten. Batzuetan antzeztu ere egiten dira. Psikoanaliaren arabera, adibidez, galdera gisa interpretatu behar dira umeen hainbat jolas. Ezkutaketan jostatzean, helduari galdetzen diote: gal nazakezu? Ni bilatzeko adina maite nauzu? Haurren ikerketa sexualetan ere hainbat

galdera jartzen dira martxan. Haien teoriak unibertsoaren jatorriaren inguruan presokratikoez sortutako teorien antza daukate, Freuden ustez. Non nengoen ni jaio baino lehen? Zein da mundura ekarri nauen desira? Desira ez baita sekula anonimoa izaten, eta horren aztarnaren bila arituko dira umeak buru-belarri, jakintza propio bat eskuratu nahian. Ikerketen abiapuntu izan ohi dira gizakion jaiotza, sexualitatea, heriotza. Bizitza zulo existentzialez beterik dago, eta sormena martxan jartzen dugu ezjakintasun sakonak eragindako dardararen aurrean. Harridura hori da, Aristotelesen hitzetan, filosofia abiarazteko motorra.

Batzuetan, harridurak eragindako galderak albo batera utzi nahi izaten ditugu, ahaztu, baina galdera horiek giza bizitza zeharkatzen dute, hasiera-hasieratik.

Haur Filosofia eta Jakinmin Elkarteak

Gure lurraldean Haur Filosofia sustatzen du Jakinmin Elkarteak, eta horren inguruko jardunaldiak antolatu ditu 2021eko urtarrilean, Donostiako Tabakaleran. 2018tik hona egindako saioek egundoko interesa piztu dute, eta horrek egun osoko jardunaldi bat antolatzerara eramanez ditu. Haur Filosofiak metodologia propioa dauka, elkarrizketa filosofikoa ez baita elkarrizketa arrunta (elkarrizketa arrunta deituriko zerbait baldin badago). Talde elkarrizketa horietan, koherentzia, razionaltasuna edota logikotasuna lantzen dira: zergatik esaten duzu diozun hori? Zer ondoriotara eramanez gaitzake esandakoak? Nola definituko zenuke aipatutako hitza? Zer adibide jar genezake esan duzuna irudikatzeke? Kontrakoa pentsatuko bazenu, zein izango lirarteke argudioak?

Saioetan pentsamendu kritikoa (norbere sinesmenak zailantzan jartzeko), pentsamendu sortzailea (ideia berriak proposatzeko) eta jarrera arretatsua (besteen pentsamenduak kontuan izateko eta esandakoa serio hartzeko) bultzatzen dira. Hitzek pisua eta gorputza hartzen dute. Baina, batez ere,

taldean egindako zerbait dela azpimarratuko nuke; ideien gaineko ikerketa horretan, pentsamendu autonomoa bai, baina era komunitarioan lantzen dela. Kontua ez da *eureka* batera heltzea, aparteko ideia jenialera edo originalera. Gakoa ez da pentsamenduaren ikuspegi *enprendedorista* edo ekintzailetsua bultzatzea, neoliberalismoak haurtzaroaren horrelako ikuspegi hedatu nahi badu ere. Ez al dute jolas-parke itxura Googleko bulegoek, txirrista, hamaka, billar eta futbolinez beterik? Haurtzaroa eta sormen enpresariala parekatu nahi dituzte?

Bestela irudikatzen dut nik Haur Filosofia, elkarbizitza helburu. Garrantzitsuena galderak eta erantzun posibleak partekatzea da, ikerketa komunitate bat sortzea, asanblada giroa eraikitzea. Eta, horrelako esparruek, ikuspuntu pedagogikoaz gain, zentzu politiko bat daukate, polisa ulertzeko modu bat. Elkarri entzutea eta norberaren kontraesanek ohartzea ez da kontu txikia, adin txikikoekin egiteko aukera baldin badago ere. Baina ezin da helduekin ere estilo bera landu? Ez du ematen ziurtasunen eta zalantzen inguruko talde elkarrikerak horretarako adin tarte zehatz bat dagoenik. Zer dela eta Haur Filosofia deitu orduan? Matthew Lipman pentsalari estatubatuarrak horrela izendatu bazuen ere, badira korrante pedagogiko hori izendatzeko bestelako proposamenak; Maieutika, besteak beste, sortutako elkarriketek estilo sokratikoa daukatelako. Edo agian planteatzen genezake, Lacan psikoanalistarekin batera, haurtzaroa ez dela adin tarte jakin bat bakarrik, denbora kronologiko bat, baizik eta denbora logiko bat ere badela: harritzeko, emozionatzeko, ikusmiratzeko denbora. Galdetzeko eta ulertzen ahalegintzeko unea. Horretarako arnagunea eskaintzen du Jakinmin Elkarteak, pentsamendua taldean indartzeko eta argudioetan sakontzeko espazioak eraikiz.

Egun, berriz, egia-ostearen garaian, pentsamendua ahuldu ta dagoela eta pentsamenduaren krisia bizi dugula entzuten dugu sarritan. Horrela ote da? Pentsamenduaren erabateko krisia pairatzen al dugu XXI. mendean? Ez al dago, alderantziz, pentsamenduaren eta krisiaren arteko berezko harreman bat?

Pentsamendua eta krisia, irudiak eta datuak

Krisi hitzaren jatorri etimologikoa kontuan hartuta, zatiketarekin eta erabakitzearekin harremana daukala azpimarragarria da: grezierazko *krinein* aditzetik dator. Erabakiak eta zatiak mahai gainean. Egia esan, bizitza ere osotasunik gabe aurkezten zaigu: gure bidaia existentzian erabakiak hartu behar izaten ditugu eta aukera anitzen artean zatiturik egoten gara (ez erabakitzea erabakitzen badugu ere). Bizitza bera krisi gisa irudika genezake? Erabaki guztiak ez dira kritikoak, baina zein ote da erabakitzeko irizpiderik edo kriteriorik egokiena? *Krisi* hitza eta *kriterio* hitza ere erro beretik datoz; krisia eta pentsamendua sendo lotzen zaizkigu, beraz. Zerk gidatzen nau? Desirek, balio moralek, maitasunak, gorrotoak, betebeharrak, sakrifizioak... Gure erabakietan irizpideren bat jarraitzen dugu, bermerik gabeko apustua eginez eta hamaika ondorio eraginez. Horregatik, bizitzaren eta krisiaren arteko antzekotasuna azpimarratuko nuke; ez bereziki zentzu tragiko edo patetikoan, baizik eta zentzu logikoan. Krisiak gizakion berezko ezjakintasunarekin, zaurgarritasunarekin eta ziurgabetasunarekin bat egiten du; zuloen aurrean kokatzen gaitu, galderetan zatituta. Eta zatiketa onartzeak badu bere balio politikoa erantzun dogmatikoen harrokeriaren kontra.

Beraz, ez dut uste XXI. mendean pentsamenduaren krisia bereziki pairatzen dugunik, krisia pentsamenduari berezkoa baitzaio. Garai bakoitzak, aldiz, krisia ukatzeko hainbat estrategia garatzen ditu; galdera desorosoek eragindako zatiketak eta estropezuak tapatzeko, alegia. Pentsamenduaren alde subertsiboa neutralizatzeko moduak? Oinarrien edo fundamentuen inguruko galderak ez ohi dira ongi etorriak izaten.

Eta, zein dira zuloak tapatzeko XXI. mendean erabiltzen diren modu nagusiak? Bi ardatz aipatuko nituzke: irudien prestigioa eta etorkizunaren aurreikuspen algoritmikoa.

Irudien prestigioak hitzekiko gutxiespena eta mespretxua ekarri du. Ikusten dena soilik omen da erreal: horra hor gure garaiko mantra nagusi bat. Zer-nolako lotura dauka

horrek pentsamenduarekin? Besteak beste, pentsamendua garden ikusteko ikerketa hipergarestiak bultzatu dira. Baina ikusgarria ote da pentsamendua? NeuroSpin deituriko Frantziako ikerketa gune erraldoian, adibidez, pentsamenduaren argazkia lortu nahi dute burmuinaren mapa eginez. Ondoren, erresonantzia magnetikoak emandako irudiekin estrapolazio asko egiten dira, besteak beste, neuroteologia edo neuromarketin moduko ikerketa arloak sortuz. *Neuro* aurrizkiak gure mundua kolonizatu du. Nola mugitzen dira neuronak otoitz egiten dugunean? Zelan aldatzen da garuneko odol-fluxua erosketak egiten ditugunean? Fededunari edo erosleari galdetu beharrean (hitzekin erantzungo baitigu: onartezina!), goazen bere burmuina begiztatzerara. Burmuinaren irudiek isilduko gaituzte. Azken erantzuna bertan omen dago, burminaren mugimendu neuronaletan. Baina erabaki eta funtzio subjektibo guztiak burmuinean jaiotzen al dira? Bera ote da ororen *causa sui* teologikoa? Nerbio sistema zentrala beharrezkoa izan daiteke, baina ez nahikoa eta ezta kausala ere. Haur Filosofian aritutako pentsalari txiki batzuen arabera, pentsamenduaren kokagunea ez dago burmuinean, baizik eta ahoan, hori delako hitzen tokia. (Haur Filosofiaren esperientzia konkretu bat *Ce n'est qu'un debut* dokumental ederrean ikus daiteke. Frantziako Jacques Prévert eskolan Pascaline Dogliani irakasleak lau urteko umeekin gidatutako tailerra deskribatzen da bertan.) Egia esan, beste pertsona batek ez badigu hitz egiten, hizkuntza ez dugu garatzen, eta erlazioen errealitate hori ezin da burmuinera sinplifikatu. Harremanetan dago, hortaz, hizkuntzaren 'kokagunea'? Ramon Llullek, XIV. mendeko filosofoak, biriketan kokatzen zuen. Zergatik ez? Behin irudikatzen hasita, hori ere izan zitekeen hitzen jatorria. Lacanek, burmuinarekin beharrean, oinekin pentsatzen zuela zioen, lurra zapaltzerakoan zerbaiten kontra egiten dutelako. Egun, burmuinak gure ordeztu pentsatzen eta erabakiak hartzen dituela uste badugu, krisiaren zuloak tapatuko ditugu. Burmuinaren autopistik zuzenduko gaitu.


Horrez gain, estrategia algoritmikoaren ardatza aipatu dut, gure mendearen seinale. Algoritmoen bidez sortutako *big data* delakoek gure portaera aurreikusi nahi dute, hartuko ditugun erabakiak gidatzeko eta erosketak, irakurgaiak edo harremanak proposatzeko, besteak beste. Éric Sadinen arabera, bizitza datuetara eta informaziora murriztu nahi du Silicon Valleytik datorren ideologiak, gure erabakitzekeo gaitasuna intelijentzia artifizialaren esku jarritz. Pentsamendua kalkuluarekin parekatze horrek etikaren eta politikaren amaiera ekarriko luke.

Baina ez du ematen pentsamendua neuronon argazki batekin edo kalkulu algoritmiko batekin pareka daitekeenik. Krisiak gainditzeko bidea krisia bera baino okerragoa dela ematen du! Pentsamenduak honekin dauka zerikusia: aukeratzeko, ukatzeko, hanka sartzeko, kritikatzeko, konpromisoak hartzeko eta galdetzen jarraitzeko gaitasunarekin. Galdera batzuen aurrean, ume sentitzen gara behin eta berriz. Presokratikoek unibertsoaren jatorriaren inguruan egindako galderek, adibidez, haurtzarora eramaten naute. Aspaldiko dardara berriztuz, zorabioa. Mozkorraldi filosofikoa sentitzen dut, etengabe jausten ariko bagina bezala.

Filosofiaren haurtzarora

Hori bera galdetu zidan gau batean lau urteko semeak: zer dela eta ez da ari lurra une oro jausten? Zeren gainean ari gara flotatzen? Semearekin berbetan, presokratikoen testuak datozkit burura, erantzun anitzekin. Uni-bertsotik pluri-bertsora salto egiten dugu, presokratikoen laguntzaz helduleku baten bila. Ura, sua, lurra, haizea, zenbakiak, maitasuna, gorrotoa, atomoak... Zein ote da gauzen oinarria? Zer ote da aldaketa guztien atzean irauten duena? Filosofiaren jaiotzan (edo behintzat Mendebaldeko filosofia irudikatzeko eran) egindako oinarri-oinarrizko galderek modu basatian harrapatzen naute.

Progresatu al dugu? Zertan bai, zertan ez? Pentsamen-
duaren bidaiari galdera unibertsalen ondarea jasotzen dugu,
baina modu singularrean formulatu eta ahots propioarekin
aurre egin behar diegu. Marina Garcések unibertsaltasuna-
ren eta singularitasunaren arteko muga arazotsuan kokatzen
du filosofia. Mugalaria omen da. Pentsalari presokratikoen
hausnarketetan, adibidez, ez dago jakintzagaien arteko muga
edo bereizketa akademiko zehatzik. Mugen artean mugitzen
dira: poesia, fisika, kosmologia, matematika zein mitologia
nahastuta daude. Gu ere galduta aurkitzen gara erantzunen
eta galderen mugetan, baina kezka parteka ditzakegu, hitzen
haria elkarrekin jarraitu. Ez gaude hutsuneetan bakar-baka-
rrik. Zentzu horretan, Jakinmin Elkarteak antolatutako jar-
dunaldiek *sapere*-aren zaporea elkarrekin dastatzeko gonbita
luzatzen digute, eta eskertzekoa da zergatiak piztuta manten-
tzea. Primo Levik, *Hau gizon bat bada* liburu biografikoan,
Auschwitz bizi izandako esperientzia dramatikoaren ingu-
ruan idazten du. Neka-neka eginda kontzentrazio esparrura
gosez eta egarri ailegatutakoan, izotzezko burrunzi bat hartu
zuen, egarria kentzeko. Orduan, soldadu nazi batek eskutik
bortizki kendu eta lurrera bota zion, inprobisatutako izozkia
txikituz. «Zergatik?», galdetu zuen Levik harrিতuta. «Hemen
ez dago zergatia galdetzerik, zergatiak ez dira existitzen»,
erantzun zion soldaduak. Ez dago galderak ukatzea baino
erantzun politiko krudelagorik. ❀



 euskadi
irratia
gertu

IZAN ZAITEZ JAKINKIDE

Harpidetuz

- Euskal Herria **60 €**
- Europa **75 €**
- Mundua **85 €**

Nola jaso nahi duzu?

- Paperean bakarrik
- Digitalean bakarrik
- Paperean eta digitalean

Harpidetuz gero, %30 aurreztuko duzu.

Babesle izanez

120€ ordainduz, Jakinen proiektu berria sustatuko duzu eta paperezko aldizkaria eta aldizkari digitala jasoko dituzue etxean.

Ekarpena eginez

Nahi duzun kopurua

EROSI

Aldizkaria

PAPERA

- Euskal Herria **14 €**
- Europa **17,50 €**
- Mundua **20 €**

DIGITALA

- 14 €**

3 urtetik gorako zenbakiak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN.

Artikuluak

DIGITALA

- Jakinkide bazara **Doan**
- Jakinkide ez bazara **3 €**

3 urtetik gorako artikuluak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN

Liburuak

PAPERA

- Jakinkide bazara **10 €**
- Jakinkide ez bazara **12 €**

DIGITALA

- 4 €**
- 7 €**



JAKINKIDE TXARTELA

Izena

Abizenak

Helbidea

Herria Posta kodea

Telefonoa

Posta elektronikoa

Kontu zenbakia

Kontuaren jabea



Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 218092
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

